

# Maiatz.

maria mestoy la  
 dixarro sagara  
 itxi piar bel bid  
 eitxarobor dajo  
 hcazenave jeapl  
 odis davan t pia  
 rres d d n y petr  
 emikel d upak mi  
 kel d d verte n adt  
 etxa mep d ip antx  
 o a etxe goi n l uci  
 epetxe zaharre  
 tamikel hiribar  
 renxanigos jon  
 miran de beñato ih  
 arzabal txomin peil  
 len mayipelot zigor

3

Aldizkari bat, gurea. Gauza batzu, denetarik, euskaraz, lantuak. Gure literatura.

Literatura, zertarako ? Gure sendimenduak ez dituen bakarrik pasa bainan bizi ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta mendiak, esperantza eta gau baten zoriona, euskaraz. Gureak euskaraz direlakoan.

Literatura guretako. Ez gauza hil batzu, ikerketa hotzetarakoak eta errautsez bete erakustokietarakoak.

Literatura bizirako.

# ΔURKIBIDEA

- Txomin PEILLEN **2** *Jon Mirande-ren gelako irudi grabatua:  
Albrecht Dürer-en "Melencolia"*
- Pantxo ETEGOIN **13** *Hitz  
Gaua, amets bat...*
- Ladix ARROSAGARAI  
Jon CAZENAVE  
Mikel HIRIBARREN **14** *Tropiketari (Orroitzapen asmatuak)  
Susa 6  
Axeriarren ezteiak*
- Mari AMESTOY **19** *Euria  
Goroldian*
- Eñaut ETXAMENDI **20** *Artoak*
- Itxaro BORDA **30** *Espainiako erregeari eskainiak  
Gaxuxa KAKOLI-ren obrak  
Jo ezan, jo...  
Euskal herrian euripean*
- Mayi PELOT **35** *Eden*
- Beñat BIDEGORRI  
Beñat OIHARTZABAL **36** *Dezimaketa  
Aita (V. Alexakis-etik itzulia)*
- Mikel DUPAK **44** *ANARROSA (I. Ega Teffe)*
- Lucien ETXEZHARRETA **54** *Indietako exarpa xuri beltz bat bezala  
Egutegi hutsa*
- ZIGOR **58** *Gizonen baratzean  
Putza  
Gizona  
Sua  
Eztia*
- Jean Louis DAVANT **59** *Otsoa eta hora.*
- Piarres DUNY-PETRE **60** *Montpellier-ko sendagailuak*
- Txipi ARBELBIDE **62** *Olzeko apezpikua*
- Xan IGOS **68** *Gogoeta batzu estatuari eta nazioari buruz  
Henri Laborit-tik itzulia*
- Itxaro BORDA **71** *Mille Millions de dollars  
Manes Erdozainzi-Etxart-en "Gauaren atzekalde"*
- Mikel DUVERT **73** *Txutxak*

# Jon Mirande Alpha sorho

- 1925 1925/II/12. Parisen sortu; burasok zuberotarrak.
- 1942 Filosofiazko bachelier bezala, ikasketak Pariseko Lycée Arago delakoan burutu. Spengler ta Nietzsche orduan irakurri.
- 1943 Bretoina ikasten. 1944. Finatzetako Ministerioan sartzen.
- 1945 Euskara ikasten 1946: frantsesez olerki batzu idazten, lehen eta azken idazkiak hizkuntza hortan.
- 1947 Eukal Ikerketen Biltzarrean idazkari.
- 1948 Euskararen ganako lehen beroaldia Amerikar kantu batzuen itzulpenak egiten eta zuberoceraz abertzale kantuak.
- 1949 Pariseko idazle taldetxoa sortzen, Ibiñagabeitia bizkaitarraren inguruan, Jon Mirande ta Peillen anaia.
- 49-52 "Gernika" aldizkarian idazten pro-saz abertzaletasunari buruz eta lehenbiziko kritika E.A.J.ri egina. Olerkiak.
- 49-62 "Eusko Gogoan" idazten, prosa, ipuñak, saioak. (Parapsikologiaz)
- 50-61 "Egan" en idazten, ipuñak, eta keltiar herriez saioak (Irlandera, Bretoina...); Garai horren azkenean eta denboran euskal gizartearen kritika gogorra abiatzen du (Euskaldun zint-
- 62-64 urteetan "Igela" ren ateratzearekin azken beroaldia.
- 1965 Fuskaraz ez du idazten, bretoinez jarraitzen du.
- 1968 Aita hiltzen zaio eta bigarren gaitzaldia pairatzen du, hamabost eguneetako loaldiak gaizkiago uzten du. Ez du gehiago ezer idazten.
- 68-70 Jon Etxaide adiskide handiarekin batean Etxahunen bertsoak gipuzkoaz, egiten dute, zuberocerari buruzko linguistika oharra Miranderen eskutik. Bizi zeno, haren nobelatxoa *Haur Besoetakoa* agertzen da Lur argitaletxearen emanik, Gabriel Aresti haren adiskide minaren ardurapean.
- 1972 Hirugarren gaitzaldia, bost hilabetez. Bretoñian egoten da. Handik itzultzean eta hobeki iduri duela rik bere burua hiltzen du 1972-eko Abenduaren 25-ean. Urtarrilaren 9 an hilik arkitzen da. Haren olerki bilduma *Orhoituz* 1974. urtean agertzen da, Lur argitaletxean, Andolin Eguzkitzaren ardurapean.

Bizi zagoeno, artikulu ainitz, ipuin gehienak, eta bere nobela *Haur besoetakoa* argitaratu ziren, baina ikusi dugunez haren olerkiak hil ondoren baizik, zentsura apur bat arindu zenean; berdin uste nuen *Jon Miranderen lan hautatuak*, liburua idaztean eta biltzean ez zela gure idazlearen obra "orraztua" izanen, baina Gero argitaldariak bere ber-zentsuraz Jonen politika idazkiak kendurik, 1976. urtean, argitara eman zuen delako liburua. Geroztik Andolin Eguzkitzak, argitara gabe duen bere tesina Jon Mirandetaz idatzi zuen, baita *Saioak* aldizkarian haren testu ezezagun gehiago eman ere. Joxe Azurmendi-k saioa eman zizun *Mirande ta kristautasuna*, Saio sari bat irebazi zuen eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa 1979. urtean agertua. Neronek *Haur besoetakoa*-ren hiztegia ikertuz, gure idazlearen mitoa zein ziren azaldu nuen Deustun eman hitzaldi batean, Hor Dago-etxeak negu hontan argitara behar du.

Aldizkarien gandik omenaldiak izan ditu, Elgar-en Argia-n, baita Anaitasuna-ren zenbaki berezi bat duela urte batzu. Bretoinek ere ohoratu dute Al Liamma, Bretagne réelle, ta La Bretagne à Paris kasetetan. Euskal gobernuak Jon Mirande literatura saria sortu du eta Pariseko gau eskolak Jon Mirande izena hartu.

Aurten hamar urte izanen dira Jon Mirande hil zela, urteburu horren ospatzeko Maiatz-ek zenbaki berezi hau eskaintzen dizue. Denbora berean abenduaren 17tik 24eraino Eibarko hiriak, Gipuzkoako Aldundiak eta Euskadiko Jaur-laritzak, arratseko zazpitan astebete ta eguneroko omenaldia eginen diote. Berek esan didaten gisa "euskararen promozioa egiteko denbora guzietako euskal idazle handienetarik bat ez ahaztutzea komeni zaigulako". Zuberoan ere duela lau urte Atarratzeko euskal astearen karietan Jon Miranderen ohoretan, zuberocerazko artikulu bat idatzi zen. Horiek guztiak ez dira gaizki, baina idazlearen obrak hain zailak dira arkitzen non uste dudan gure aurrengo urrats ta pausoa, olerkien eta nobela laburraren berriz argitaratzea dela, gure gaurko literaturaren hastapenak izanki ez baitira zahartu.



**Oharra:** Argitaratu gabeko olerkiak eta sentzuratutako politika testu bat "Hor Dago"-k ateratzen duen *Xaguxarra* aldizkariaren bigarren alean argitaratu ziren.

Jop Mirande-<sup>n</sup> gelako irudi grabatoa

# Albrecht Dürer-en "Melencolia"

IXOMIN PEILLEN

Parisen, bere sorlekuan, gure idazle handiak luzaro, etxe merke batean izan du egoitza. Haren etxebizitzan sartzean ezkerretik zegoen burasoen lo-gela, erditan paristar sukalde txipia, eskuinean Jon-en lan ta lo-gela, nonbait zortzi metrotakoa; pareta gehienetan liburuak, baina hutsune batean, gelako edergaillu bakarra Albrecht Dürer-en "Melencolia"z berregintza.

Estanpa ospetsu hori gure olerkariaren nortasun miraila izanki, haren oroiz irudia gaindi ibiltzea, eskaintzen dizuet; hola denbora berean, 1514. urtean eginikako grabatu horri, ulerkuntza berria ematera saiatuko naiz. Alegoria horren entelegatzeko, ulertzeko, egileak berak idatziaz baliatu behar dugu:

*Andere bat da, zeinen begien bitartez Saturno munduari beha eta adi dagoen.*

Jon Mirande-k, agian, jakinaren gainean edergaillu hori beretzat hautatu zuen, alde batetik XVI<sup>o</sup> mendeko gizabidezaleentzat Jainko hori artisten sinbolua zela baitzekien, bestaldetik malenkoniatsuena baita. Gure olerkaria bietatik zelakotz, ezin egokiago zitzaion alegoria hori ta gure Olerkariaren obra ez ote da Saturnoren ikuspegia munduaz?

Irudi horren erditan, *aingeru hegaldun* bat harri mailla batean jarria marrazkitua dago, baina kristau adierazpenik eman ez dezaiogun Dürer-ek, aingeru hori lurtar egin du, gerrikoan giltz eskuta, gonaren hatzean diru moltsa: etxekanderea, bere karguaren ikurrekin; gainera itxuraz desbidetu ez gaitzen, aingeruari *androgino* aurpegiera ta esku lodiak eman dizkio, giristino aingeruetan ohi ez direnak. Aingeru hori nor den jakiteko alkimiari ta kabbalari eskatu behar zaiote; hain zuzen Unibertsuaren ta giza ohitura guztien batasuna egitekotan kabbalak, planeta, aingeru ta gogoaren emankizuner artean kidetasunak egin ditu eta hauen artean, kristautasunak ukatzen dituenen artean: *Saturno=Orificiel aingerua=zaintzea*. Ikusten denetz Dürer ondo inizatua izan zen eta urteei kasu eginaz, ageri da Venezia-n eman zituen bi urteen ondotik, sinbolikazko hirur estanpak grabatu zituela.



Ea zer egiten duen aingeru horrek, nere ustez *Orifiel* dena? Andere-gizon horrek asper batean balitz irudi, begiak nonbait galdurik, buru nekatua ezkerreko eskuaz arrimatua, eskuinekotik *konpasairekita* agertzen zaigu. Konpas horrek bereala alkimiaren sinbolikan sartzen gaitu, zeren Saturnoren ikurra baita, denbora berean malenkoniarena, saturno zangomotza pentsalari ta tristea baita. Bestalde Unibertsua zirkuluz egina baita konpasa inguru horien gaindi dabilan pentsamenduaren sinbolua bihurtu da.

Grabatuaren ezker ta goikaldetik, Saturno, *gau-eguzki* hotzaren irudipean lañoen artetik sortzen da, leiñuruak zeruan barreiatuz. Hutsik egin ez dezagun, izar argi horren inguruan iparralde-alba batek, gauaz gaudela segurtatzen digu, eta denbora berean heriotzetik haratago beste bizitza bat badagoela sinbolisatzen eta aitortzen digu; beste bizitza hori argiz eta misterioz beterik izanendelarik.

Gau zero horren aurrean *saguxar* (gau ainhara) batek hegoetako atzaparretan loturik banderola, MELENCOLIA hitzekin hedatua atxikitzen du, lehenik marrazkia nola eta nondik hasiz, irakurria behar den erakutsiaz, bigarrenik alkimia ohitura horietan porrotegin duen ispiritu baten sinbolua. (Euskal sinbolika hortatik oso urrun dabila, zeren Txinan ta Ekialde Urruneko herrialde askotan bezala, gurean Zorionaren ezaugarria baita, saguxarra).

Saturno zero horren pean, *ur zabala* (itsasoa ala aintzira?). Ur horrek malenkonia zeruko bildurgarriak iretsiko ditu, ur eta lur artean iparralde alba (ostadarra dirudi) lokarri gisa dago, ura alkimiaren mintzairan miraila izanki.

Goiko aldean eta erditan, *hiri bat* ur ondoan ageri da eta Dürer-en grabatu askotan lurta bizitzaren sinbolu izan diteke, nahiz "Zalduna, Herioa ta Diabrua" delakoan zeruko Jerusaleme den. Hurbilago *zurubi bat*, zubiak zutik; beren zazpi mailekin *Anabathmon* izeneko mistika iragaitzaren sinbolua, Mithraren misteriotik, Jakobenzubia gaindik, Platonekin eta Kristauekin, gizona bizi lurkoi batetik mistika goihenera igaiten da; mail batetik bestera oztopo handienak garaitu behar dira eta mail bakoitzean nahiz bakea, nahiz edertasuna une apur batean gozatu. Origenes-ek Salomonen kantu ederrenaz idatzi homelietan dio, arimak Verbu-arekin izanen dituen ezteiak ospatzeko igan behar dituen etapak direla.

Goiko aldetik eta eskuinean etxano bat ikusten da ta etxola horren paretean beste gauza-sinboluak dilindan. Lehenik *balantza* bat. Balantza horrek, denek dioten justiziaren ikurrarekin ezto ezer ikusteko nere ustez, zeren irudiegileak bidean jarri gaituen, Saturno aipatuz: balantza, Saturno-Kronos-en sinbolua baita; hain zuzen sinbolikak dion legez, orratza erditan izan behar du, Saturno gau ta egunaren oreka agintzen baitu: halaxe udazkeneko Gauberdintze hori gertatzen denean, Balantzaren Zodiaka ikurpean gaude.





Kantoin berean eskuinago *ondar-ordua* ikusten da bai berinezko anpulatxo doblea ondarrez beterik; harea, ondarra ixurtzeko ateka hertsia, gogoratzen digu denboraren joaitea, eta gure hersturak eta larrialdiak beti izanen ditugula. Anpula batetik bestera pasatze hori zerutarretik lurtarrerakoa eta alderantzizkoa sinbolisatzen ditu.

Eskuinenik eta beste biak bezalaetxanoaren horman zintzilikaturik *ezkila*, kanpaia ikusten da, bere zeihar haga ta erraztun bereziarekin kosmosaren sinbolu ezaguna da, holako zeinua zazpi metalez egina baita, ta inguruan zazpi planeten ispirituak baitabilta: Saturno, Jupiter-Zeus Mars-Ares, Eguzki, Artizar, Merkurio-Hermes ta Ilargi. Azkenik ezkilaren azpian *magia-laukia*, adur-laukia ikusten da; lauki hortan lerro guztiak ta diagonalak batu egiten badi-ra, beti hogeit ta hamalau irakurtzen da. Lauki horrek hamasei gelatxo izanik, Jupiter-en sinbolua da, hots Saturno-Kronos-ek jaten zituen bere haurretaz salbatu zen bakarra, ta hemen alaitasunaren aipamen bakarra. Egia esan malenkoniatsuen medikuntzan ezaugarri da, alai eta beroaldiak, ez zineria ta tristurekin aldizkatzen direla, ta halaxe zen Jon Mirande adiskideen artean, baita bere obran ere (ikus *Behiak*).

Erdiraino jaits gaiten; ezkerretik sutontzia ikusten da, gaifnean alkimisten kazpela berotzen ari. Dударik gabe, Saturnoren alorrean gaudelarik, untzi hortan hurtzen ari dena, beruna, plomua da, jainko ta planeta horren sinbolua. Sugintza horren harri mail berdinean, martillua, *mailluan* abarmentzen da, Herioarena izan ditekena, Sukellos kelten jainkoarena, Mantus latinen jainkoaren izan dena eta Jon Mirande-k idatzi duen gisa

*Heure mailuaz jo ezak etsai oro.*

("Harrizko jainko bati" in *Orhoituz* Kriselu, Bilbao, 1976 69. orrialdean).

*Harrizko poliedro* handia badago mailluaren ondoan; bi dodekaedro alde erakutsiz, hots bi pentagono; delako irudia *sectio aurea* edo *proportio divina*-ren, ikurra lizateke, baina pentagono desberdinek beharbada estetika osorik legeetan ezin ezar ditekela adierazi nahi digu Dürer-ek. Goiko pentagonoan giza burhezur bat hil burhezurra nabaritzen da. Erditan eskuinago *gurpil bat*, hormari arri-muz zutik, erditan zulatua -askorentzat errota-harria, eihera-harria -, nere ustez kosmosaren erroda, jaiotze-sortze, bizitze hiltzeen ingurua sinbolisa lezakeana, baita sekulako aldakortasuna, gizarteen gorabeherak ere bai. As-turu on eta gaitzen gurpilari aintzinatean, fortunaren gurpila zioten.

Gurpil, erroda horren gainean ikusten den aingerutxoa Andere handiaren bikoitza da, hura bezala pentsati, jarria, liburu bat belauetan, egiteko gabeko Eros-a, Afrodite-n mezularia.

Beheko aldean eta ezkerretik, zakurra, *erbi-zakurra* etzana dago. Hezurak ageri ditu; lo dago, baina Saturnorekin zerbait ikusteko du mailluarekin, ondar-orduarekin ikusi dugun bezala Herioaren sinbolua baino gehiago da; nere ustez arima-ekarle, *psikoponpa* dugu, gizona herio ilunpean laguntzen duena eta batzutan hilekin harremanetan jartzen duena. Zakurrak norbait hiltzen denean egiten duen orroaren gatik, beharbada, halaxe sinesten zen: Egiptarrek Anubis, Grekoek Zerbero infernuetan ta beste munduan giza gidari zituzten, baita Hekate infernuko jainkoa zakur baten itxurapean aldatzen omen zen ere. Dürer-en grabatu ospetsuen artean "Zalduna, herioa ta diabrua" deritzaionean bildurrik gabe hiltzera doan zaldunaren ondotik zakurra korrika dabil.

Gehiago dena "San Geronimo bere gelan" beste bi grabatuekin alderatzen bada, hirurak 1513-1514. urteetan eginak, egitura berdina arkitzen da traingulu batean, hirur erpinetan sinbolu berdinekin: goiko-aldean ondar-ordua, denboraren joaitea gogoratzen duena, beheko aldean ezkerretik burhezurra, eta erditsutan zakurra, denek herioa gogora ekartzen dutena, malenkonia gaitzaren azkena bere burua hiltzea baita, gure grabatuan ere egoki dago. Jon Mirande k. urte askotan irudi hori ikusita beharbada haren olerki batean, horren oiarzuna irakur genezake

*zaldun gazte bat, ezpatia  
zorrotik erdi-irtenda.  
Il dala inork ez zakik  
zakurrak t'andreak baizik*

(Bi beleak, IV, *Orhoituz*, Kriselu, Bilbao, 1976, 21. Orr.)

Beste olerki batean ere zakurra agertzen da:

*Zakhur zahar bat errekan  
-nehork ez jakin nondik jinik-  
zakhur bat zoan errekan  
Uretan gaindi, arhin, hilik.  
.....  
Nik soilik, arima baithan  
usnatu nizun hil-usaina  
Nik soilik nire Ekklesian  
dut ohoratzen hil anaia.*

Zakurra errespetu handitan zen Kelta paganoen artean, baina kristautasunak deabruaren eta paganuaren sinbolua egin zuen, ta gure Mirande bretoinzaleak bazekien zer esan nahi zuen *Ki-Koz* esaerak horien hizkuntzan, alegia "zakur-zar".

Beheko aldean ezkerretik zakurraren alboan, *tinta-ontzi erabilkorra* ikus diteke, denek etsipenaren sinboluzat hartua, andereak hor baztertua; nere ustez tresna horrek Albrecht Dürer-en egunerozko kezkekin zerbait ikusteko du, garai hartan arkitektura saio bat idazten hasia zen, baita nola estetika, geometria legeetan sartu ere ikertzen; berak aitortuko du askotan etsitu egin duen arren lan horitan, zerbait idatzi duela, baina bere biziko tristura eduki duela ( Orifiel aingerua, *libura bat belauetan hitsita* ageri da). Holako etsialdiak ezagutu zituen Jon Mirande-k:

*Jai eder neure jauregian  
libura denak hertsia eta  
zuhur izanak gutietsiz.*

(*Nil igitur Mors est, Orhoituz  
Kriselu, Bilbao, 1976, 64 orr.*)

Baita melankoniaren sakonean amilduz:

*Neagar dagit asko,  
gorphutz-, bihotz-minez,  
gauzetako minnez.*

(*Zergatik, ibidem , 45 orr.:*)

Irudiaren behean, zolan, esfera bat, arraultza borobila gizonak munduari ematen dion itxura, *kosmosaren arraultza*; harriz ala zurrez? Ondoan dauden zurgin tresnek zurrezkoa dela, adieraz lezake, bestelan zertarako daude lurrean utzitako arrabota ta esku-zerra? Lurrean daude gauzen artean halere batzu elkarrekin jar genetzazke, pagan-tasun sinbolika hortan kristau lizatekeanak: alegia, *kurrikak* edo trukesak eta *lau iltzeak*, beharbadagorago harri mailan ikusi dugun maillua, Pasioko nekaldien tresnak. Hain zuzen handik hamar urte gure artistak grabatuko duen gurutzifikapenean, Jesu Kristo lau iltzez gurutzifikatua da. Halere, ez dut Dürer-en obran tresna horien beste aipamenik hatzeman, eta ezin dezakegu esan ziurki erditan dagoen zurubia Jesu Kristoren gorpua jaisteko erabilia izan zena, denik.

Beste tresnez berdin esan dezakegu. Dürer-en eguneroko kezkak dituztela salatzen, esate baterako konpasa ta erregela. Badakigu 1525. urtean *Konpasa ta erregela* -rekin neurtzen jakiteko *ikasbidea* argitaratu zuela; beraz irudiak batzuetan bi irakurketa eduki detzazke. Hargin ofiziozko tresnak, langile sinbolu dira oraindik aleman artistaren garaietan, baina handik berrehun urte konpasa, erregela, esfera, poliedroa, Filosofia-harginen, hargin-beltzen sinbolikan sartuko dira, alkimiako ikur ainitzekin batean.

Grabatu hortan ikusten ditugun gauzek hierarkia bat erakusten digute, goikaldean astronomiazkoak, erditan geometriazko batzu eta benetan, zolan, beheko aldean langile tresnak, heriotzarenak tartekatzen direlarik; hori ere ezta ustegabeen zurubiaren sinbolua gogoratzen bazaigu, lurtarretik, abstraktura eta hortik kosmologiara. Ikusten dugunetz grabatzaileak kristau ta pagan sinbolika ederki ezagutzen zituen. Italian 1505. urtean bi urtetarako joanik, garaietan italiarrek birasmatu autore zaharretan, baliman, zuzenki ikasia. Irudiak ematen digun zirrara orokorra: etsipena, Jon Mirande-k idatzi zuen legean

*Zergatik ikasi  
ahaztutzekoz gero  
ikasiak oro?*

*Zergatik ikhusi  
hainbeste lurralde  
hainbat, hainbat jende?*

("Zergatik", *Orhoituz, Kriselu* arg. Bilbao, 1976, 45. orr.)

Orifiel aingeru arranguratsuaren gogamenei irazkin hoberik ote? Gauzen jarrerak, tresna utzienak jakitatearen ezineria erakusten digu eta bi aingeruen jarre-  
rak berriz tristura sakonak ez duela erremediorik; bestalde irudian hor daude Saturnoren alde txar eta erorgarriak: behaztopo ta elbarritasuna (gurpila), denbora joana (ondar-  
ordua), baita bereziki ere malenkoniaren azken burua; heriotza (zakurraren, burhezurraren, ondar-orduaren itxura-  
pean). Saturnoren alde hoberena, beharbada, zurubiaren eskaintza lizateke: zoritxarrei, lurtar buruhausteak batzertuta, mistika bideetan goiti joaitea eskaintzen delarik. Munduaren ukapen hori ez ote zen Aintzinaldietako zuhurren erakaspén handiena, kristautasunak Erdi-Haroan zabalduko duena.

Jon Miranderen euskaldun malenkonia

Gaitz hunek, eritasun honek oinharri gisa psikastenía dauka eta Jon Mirandek eskutitz batean honela adierazi zidan:

*...osasunez ez nengoelako ondo, baina zantzen eritasun gaitz bat jasan dut eta jasaiten dut oraindik. ("psikhastenía" dauka izentzat jakintsuen mordoilloan)*

(1959.8.28. J. Miranderen idazlan hautatuak, Bilbao, 1976)

Malenkonia, gogo ta gorputz jaitsaldia da; hogeitahamar urteren inguruan hasten dena; hain zuzen gure idazlea adin hartan, 1955. urtean hartua izan zen. Holako gaitzetan berri zala beroaldi ta baikortasun uneak bazituen hala nola 1962/1963. urteetan *Igela* tera genuenean, baina 1967. urtean berriz bere buruaz beste egiteraino heldurik lo sendakuntza bat egin zioten, gaizkiago utzi zuenak.

Eritasunaren urrats gordeak, beharbada, goizago hasi ziren baina hastapenean Jonék bere gorabeherak hurremore onarekin hartzen jakin zuen eta hori bereziki *Behiak* izeneko ipuñean agertzen da. Ipuin hori, lehenik Zuberoan eta zuberotarrez idatzi zuen, gero Euzko-gogoan.

Berak dion bezala:

*"Euria ari zen; hegalez zebiltzen beleak ortzean, min zahar ahaz-gaitzen aranak ene gogoan kuatuz.*

Gero behiekin hasten da hizketan eta laburtzeko huna esaldi batzu:


*...Mindun eta apal bait nator, ez asarre izan;  
...Ni, ordea, gizakume bat baizik ez naiz: nekatu naiz lanetan, min dut ene buruan, ene haragian...  
...maitatu dut, min euki dut bihotzean...  
...herriminez bizi nintzen hemendik urrun, eta ikus! herri hau dela ta dut orian min...*

Behiek, sen ta zintzotasunarekin erantzuten diote, baina gero Olerkariak dionean behiak jainkosatu behar direla, beren baretasuna galdu gabe, behiek irri egiten dute.

*Eta heien begietan nabaitzen nuen... farre algarra handi isil bat... Orduan nik ere farre egin nuen behiekin batera. Belar gainean etzan nintzen haien artean, goizeko ekiak, bere euri-odei ohetik jautsirik, argitzen gintuela, belardiak, behiak eta ni.*

("Behiak" in *Miranderen idazlan hautatuak*, Gero, Bilbao, 1976, 126-130 orrialdeetan.)

Idazlearen asken bizitza urteetan, elkar ikusten genuenean sekulako irri partidak genituen, garaian, politika guztietzaz trufatzen baitzen Jon Mirande; ez genekien trufa horrek zeukan samintasunak noraino eramane zuen. Esteta nintzela esaten zidan eta ihardesten nion Arteak behintzat ez duela sngilearengan dezepziorik sortzen; orduan, margolari, eskulturgile, erakusketara joaiten hasi zen, Jupiteren eragipen alai horri Saturnoren etsipena buruzagitzuz joan zitzaion, ordea.



Jon Mirande-ren gelako irudi grabatua: Albrecht Dürer-en "Melencolia"

Aitaren hiltzeak eta hainbeste urteez ezagutu-tako etxe bizitzaren utzi beharrak 1967. urtean beste inarrosaldia eman zioten eta geroztik ez zen sekulan sendatu; malenkoniaren azken muturrera irixtean askok beren burua hil nahi dute ta Jonek 1970. urtean saiatu zuen egitea eta huna 1972. urtean zer idazten zidan, zuberoraz (euskaraz idaztea utzia zeukan)

*Adiskide maitiak. Pharka, othoi, ez bainintzan erran delako ostiralean zien etxera jin eta ez bulin badeiziet geroztik berririk eman.*

*Eri izan nüzü; lehenik ospitale batetan egon nüzü, pertsonalki ezagutzen dudan zain sendakin baten klinikarat. Uste dit lüzaxko heben nizatekela (1972-7-26).*

Ez zen sendatu zeren beste eskutitz batean:

*Agur bat Maule-rik. Huna ethorri nintzan Chateaulin-ko klinika utzi ondoren. Bainan asperturik nago zinez aldi hüntan, Euskal Herriaz. Ez dakit noiz sarthuko naizenez eta norat. Jean Mirande (1972/2/6)*

Handik hilebete t'erdiren buruan bere burua hiltzea kausitzen eta lortzen zuen.

Bere gaitzari ihes egiteko bide bakarra euskara ta abertzaletasuna izan zituen, eta hortan holako gaixoen kasuan bezala, oso beteginzalea, perfekziozalea zen; hori dela bide olerki ezinago ederrak eman dizkigu baina berak, "daimonak" deitzen zituenak berriro itzultzen baziren malenkoniatsuen gehiegikerietan erortzen zen, gorrotoa ta guduka predikatuz eta alderdi batetik bestera erregetiarretatik fazistetara, haiengandik bretoin abertzaletara, garai batean euskal abertzaleekin ere. Denborarekin irudimena, oroimena, oharpena galdurik ezin zen lanera joan, baina txarrean medikuai esan zion bezala: "ezin zuen idatzi".

Naaski Euskal Herrian Europako suizidio kopuru handienetatik bat da, inork sekulan gehiegi ikertu gabe dago; eta güti ala asko ez al gara euskaldun güztiak, malenkoniatsuak. Guretzat ordea irudi horrek Dürer-enak eta Miranderen eskutitzek gure olerkari handiaren obra obeki ulertzeraz eramanen gaituzte gure olerkari handiaren obra hobeki ulertzeraz eramanen gaituzte.



# HITZ.

Hitz, zure eta nere  
kario, erantzun merke  
Bihar zure burua,  
Itzuliko ote didazu  
Haize errota bezala,  
hainbeste haize ditu nahasten.  
Hitz, hitzetan ehortziak,  
H, I, T, Z... eta besteak  
Nik hitz, ez da nere arazoa zuk  
Ez da zurea, gizarte hunena duk  
Ohituraren gizartean lo gaituk.  
Hitz, inoiz nehor ez ahantzi  
Abereen hiztegi, hoin aberasgarri  
Zakurra eleketan, gatuaren hortzetan  
Zenbat hitz haien arrabotzean !  
Hitz eman, gatuak ez sinhetsi  
Gatuak hitz egin, zakurrak ikasi.  
Hitz, errexak, ez ditut ulertzen haundiak  
Nereak, zuenak, nahi dituenak !  
Nahi ez dituenak, bidali komunera  
Urak eramango ditu, haundiekin batera.  
Eta haien uholdetan ni, noa idaztera.

# Gada, amets bat

GAUA, argi gabeko su pindarrak  
Nere begiak, zuri zintzili, ilargian josiak  
Haizearen arnasa, zuhaitzen ostoa eroriak  
bihotzaren horma sendo, itxaropen sentipenak.

GAUA, ixurtzen ditut askotan malakoak  
ihesi zoaz, nere oinak zenbatetan laburrak  
iduri zait, galdua nagoela, uhar hodoietan  
Zu nere bidean zaude, ni naizelarik ametsetan.

GAUA, gure asmoak elgarri juntatuak  
Egunsentiak gaitu, biak goizean urrunduak  
Ameslari sortu nintzen, hoin dira aldakor egunak  
Ekaitzari uko egingo dut, atxemaitean tximistak.

GAUA, ilunabarra aurrera, urdin itxasoak  
Nere belarriak ideki eta, urrun zakur zaunkak  
Zuri berdin zaizu, ilargiari begiratzen diozu  
zure baitan naiz lokartu, ametsak zurekin harkitzu.

**LADIX ARROSAGARAI**  
**JON CAZENAVE**  
**MIKEL HIRIBARREN**

# **TROPIKETAN**

## **(ORROTZAPEN ASMATUAK)**

Tropiketan ez da sasoinik, urtea hedatua da uhain gazien joan jin tinkoetan. Argiaren ezpatak egunaren luzean itzal ferde ilunak sarraskitzen ditu.

Noizean behin, uharteen zainetan, haize bortitzen mutur zorrotzak harrotzen du harearen gorputz efemeroa, ondotik hondartzak hantzen direla larru zaurituaren erara.

Tropiketako goizetan armiarmak sarea zabaltzen du koloreen suzko uztaren biltzeko, lurpeko itsuek lurraren heretze gorriak argira dakarten bitartean.

Aratsari buruz, asko koloretako arrainen haragi minberakorrek ondarra odoleztatzen dute arrainkarien urratsetan.

Xori kalakariak oihan handiaren ahoan lumak galtzerakoan gaua argitzen dute. Ur geldietako apo handien amodiozko kantetan aise nabari delarik urte osoa dela maitatzeko aro.

Hemen, lur borobilaren begi gorrian ez da hiltze luze-rik, ez eta hilobirik. Gauzak oro iduzkian ongi ontu ondoan, airean lehertzen dira, barne hezetsua beroak xurgaturik.

Tropiketan, gorputz hilen indar ondar idorrak haizeak eramaiten ditu itsasoen itzulian. Gero, eguna argitzean lurreratzen dira... urrezko hautsa airean dilindan, hunkigai..



# SUSA 6

Eskuratu berri dugu SUSA literatur noizbehinkariaren 6. zenbakia. Ez digute zorigaitzez inprentako epeek aurkezpen egokiago batetarako astirik uzten.

Erran bakarrik duela 3 urte nonbait han plazaratu zela SUSA Donostiako istudiante literaturzale parrasta baten kasualitatezko elkartzetik eta zabalkunde gehiago merexi duela iparralde hontan.

SUSA-k "oinarririk ez eta helburu zehatzik" ez izanikan ere ba dauka zimenturik eta literatur talde homogeno baten hazirik, baldin eta "teoria eta praktikaren arteko borroka dinamiko" horren oreka finka balezate. Betikoa.

Eta etorriko dira garai hobeak beraiek esaten dutenez, ezen lehen 6 zenbakietan idazle batzuen obren bitrina baino askoz gehiago proposatu baitute :

- azken belaunaldiaren zenbait idazlerekin elkarrizketak, hala nola K. Izaguirre, J.A. Arrieta, B. Atxaga (teoriarik primatzen zuen 5. zenbakian, interesgarrienetakoa baitzen), J.M. Irigoien eta abar. Euskal literaturaz hainbat iritzi, gogoeta bat baino gehiagoren mentura ere.

- kanpoko literaturen zenbait berri itzulpen eta saioen bidez : Benjamin, Kafka, Faulkner... Literatur zale batentzat lehen eta oinarrizko lana nonbait.

- idazle gazte frangoren sorketa lanak, nasaiki agertuak 5. zenbakian salbu. Ezpaita gutti. Azki ere ez aitortzen dutenaz.

Azken SUSA aipatzeko, derragun lehen lauen ildotik doala, erdia kasik sorketa lanek osaturik, beste erdia berriz elkarrizketa, saio eta itzulpenak. Ah bai eta paper eta maketaren hobetzeak goxoago egiten dutela irakurketa bestetan baino.

Tarrapataka bota behakoetatik aipa ditzagun Sapho eta Caribeko literaturaz egin saio irakasgarriak, Joan Mari Irigoienekin atera solasaldia, oraiko denboretako "Argizagia Bera Bezain Ederra" kontu ironikoa, "Alyaro eta Amelia" ipuinaren kutsu fantastikoa eta "Tiro Bat Besterik Ez" izenekoak euskal munduan dakartzan berritasunak bai gaia eta bai narraitibaren aldetik.

Gaineratekoen behatzeko astirik izan ez dugunez geroz, bederak beharko du SUSA 6 erosi : salgai dago ZABAL eta EKI-n. Segur ez zaizula damutuko eta berehala harpidetuko zarela, 500 ptako billeta bat sartuz c/Gal Jauregui, 3-1 ezk., DONOSTIARA bidaliko duzun eskutitzan.

Eian negu min hontan asko garen SUSA-ratzen !

# AXERIAREN

# EZTEIAK

Ba ziren orain hiru aste emaztea leiho aurrean itzaturik zegoela. Azaroak zituen minuta oroen luzean barrena prostraturik egon zen, higitu gabe indiferentea. Dena omia-sainduz hasi zen, orduan, usaiak ez kanbiatzearren, azaroak bere etorria anuntziatu zien egutegirik ez zeukatenei, berak bakarrik moldatzen dakizkien euri uharren medioz. Nehork ez zezakeen erran funtsean zer zeukaten berezirik ilabete honen nigarrek, denek alta ba zekizkiten besteetatik berexten. Lehen euri xortak jendeen artean lerratzen zirelarik gurutzatzen ziren soek ba zuten konplizitate erdi ixildu, erdi aitortu hura. Sentimendu kontraerrankor batzuen nahasketa ere, azaroan jadanik, bakantzetan eh, egunak laburtzen, herioaren xelebrazione uea. Euria. Zaharrenek berek ez zekiketen erraiteko euri honek usain bat bazuenez bere-berea, hil herrietan itzulitako lurraren perfumea zekarrenez eta harekin batera gorputz umiena, ala mota askotako liliek ziotenez errebotean loditasun hura emaiten. Behar bada, bihurgunean zegoenez gero, ba zeukan halako ekilibrio bitxi bat, joandakoaren orroitgarri, datorrenaren aintzin solas.

Horrek zukeen emaztea inkonzienteki leihora garreatu azaroaren lehen goizean. Doi bat berantatua hala ere, ezen, urriaren 31-eko hodeiek ekarri zituzten ur kondensatuak jadanik hasiak bait ziren lurrari buruz murgilka lehen argi goiztiarrarekin. Lehen astea leiho ondoan iragan zuen emazteak euriari so, uharrak ez ziren gelditu, bigarrenean ere ez. Ba ziren orain hiru aste nonbait han ari zirela eta emazteak betiko posizionean ziharduen, izpiritua hutsik. Hastapenean behatzera jin baldin bazen ere, iduri zuen orain goait zela, euria geldi zedin zuela igurikatzen, ala behar bada beste zerbait oraino, honen presentzi hurbila senditzen bezala bait zuen.

Gertatzearen zenaren intuizioneak zukeen memento batez animatu. Azaroaren ogoigarren eguna zatekeen bere obserbazio lekua utzi zuelarik. Sukaldean bost bat urrats busti ibilirik frigorifiko gaineko karneta ttipia hartu zuen, orrialdea bilatu eta ondotik irakurtu :

"URRIAREN 11a : goizetik arrats denbora txarra, euri, haize ta ortzi. Hiru onak irian haatik ateri. Oren erdi batetakoak bakarrik eta berriz euri, haize ta ortzi".

Karneta berriz pausatu zuen frigorifiko gainean eta beste bost bat urrats busti ibilirik sukaldean zehar, lehenagoko lekuan eman zituen oinak, leiho ondoan. Berriz ere bere soa nonbait gelditu zen euri ttantten artean.

Prebisionea beraz xuxena zen : urteko hamekagarren egunean ezagutu aro hura berekoa zen hamekagarren ilabetea. Azaroa. Hiru aste horietan hain erregulariki ari izan zen jauts ahala euria non neke bait zen noiz hasi zen orroitzea, hasierarik ukan zuenez ere sekulan. Beti ordenu bera, beti erritmo soinu berak, euri tantarik ez besteak baino lodiagoa, arinagoa. Denak biritxiak ziren, formez bistan da, bainan batez ere jausteko manerez, lur edo leihoaren kontra lehertzekoez. Emazteak, azkenean, inobilak zirela pentsatzeraino, euri ttantta bera zela milaka aldiz parreko lantegiko ximenean lehertzen.

Hiru astez urak ez zuen idorrik utzi, itsasoa mendi kaskoetaraino zabaldu zen, bistak oro lanoztatuz. Umia dene-tan nagusi, zuhaitzak eta larruak hantuak ziren urez. Erreka gorde batek emaztea iragaiten zuen beharri batetik bestera, gero, etxe azpira edo gainera zihoan mugimendu zikliko eten-gabe batean. Harri-hezurretan haren oihartzuna entzuten zen luzaz kurri. Hotsen ordenuraino bestelakatu zuen euriak, gi-belean iragaiten zen sufrezko trenaren burrunba aintzineko balkoiko ate irekitik sartzen zen etxean, lokomotiba karri-kan berean iragaiten ari bailitzan.

Hain segur ere beste gauza asko alda zezakeen euriak, denbora gutti barne muebleek ostoa eman zitzatekeen eta emazteek arrain-andreak erdi. Guttik egin zuen emaztearen larrua, jadanik xuri-perdekoiturik, ez bait zen ezkataz esta-li bainan, karneta ttipian idatzi bezala, ilabetearen hirue-tarik bigarreanean eguzkia atera zen, xuxen ez bait zekien emazteak ez deusetik ala bere orroitzapen bustietatik.

Memento batez euria eta eguzkia batera ari izan ziren. Minuta hortan berean norbait hortik iragan balitz kontras-tak joa gerta zitekeen, harriturik ez zukeen ulertuko nolaz une berean ba zitekeen euri-eguzkirik. Emazteak ere ez zuen ulertu, eguzkia atera ordutik beretik ez zelako gehiago gi-zaki pentsatzaile bat. Izaitz beste landare bat, hiru aste luze horietan erroak hartu zituen sukalde urez ito honen zolan.

Orain, lurra urezko tindu liranjez pigmentatzen zuen gertakari hontan parte hartzen zuen naturalki, inmobila bal-din bazen ere bere osotasunean, partikulaka zuen bizitzen : bere begiek distiratzten zuten etxeen birinek bezala, adar-ostoa kraskatzen zitzaizkion aberatsez, mueble hauen gisan, aspalditik oihanetik ebakirik ere, ikara pera sendi zutena korapilorik ttipiengan, zangoak loditzen zitzaizkion plaze-rrez, eta, burua doi bat apalduz argi lurtsua ezpainetara-tzekoan, bere bularrak hantzen behatzen zituen pozaz, atorra tinkatzen ari, titi punta gogortuetatik belar-kilikak bat-batean lora zekizkion esperantzetan.

Eguzkia emaztearengandik zihoan amilka, euriak berriz zuhaitzetatik gora erortzen jarraikitzen zuen kanpoan, idu-riz etxe barnean, hain segur ere emaztearen gorputzean, ba-so-zangoen luzeran, buruaren izkin orotan ba zebiltzaten ur ttanttak, itsuak bailiran behaztopak azken unean ebitatuz eta berriz abiatuz lasterka beste norabait. Emazteak begiak zabaltzen zituenean, orduan, bat-batean, direkziona guzietara zihoazen eskapi euri-arrainak, norbaitek beldurturik beza-la, berdin elgar joz, kasik guzietan beren ihesa jabalduz hezur baten kontra errebotean sartuz geroz, ala aurpegiraino iritsi ondotik, eguzkia zurrutaka bait zihoan sudur-matel urrekaretan behera, haren tragatzeko bezala emazteak errit-mikoki irekitzen zuen ahorraino.

Naturaren mozkorraldi inkontrolatu honetan eguzki erre-ka jauts ahala ari zen euri dir-diretan. Bikoiztasunaren ore-ka zaharra lur jota, beste harmonia batek zituen gauzak ani-matzen. Dena erotzen zen eguzki eta euriak erakutsi maneran, zuhaitzak eta teilatuak zabaltzen ziren argiz, urez eta kolo-rez arraildu nahiz.

Eguzkiaren horizontala euriaren bertikalarekin joitean sortu zirimolak dena gain behera emana izan zen. Lur gaineko gailuak oro sartu ziren mugimenduan, itzulika, jauzika, ur bilka ta argi botaka edo alderantziz. Zentzua gal-arazteraino. Preseski ez zelako gehiago gizakia izan behar, baizik eta, emaztea bezain gauzen muinean berean murgildurik, Axeriaren Ezteiak erraiten zioten berde-liranjeko leherpen honek, gauzen ordenua irauliz, ekar zezakeen lukurioaren senditzeko, halaber betetasunaren, xinplifikatzearen.

Memento baten buruan, emaztea kasik ohartu gabe, eguzki perpendikularrak teilatu bat ezarri zion euriari, beste nora-bait abia zedin ixurtzera : azaroaren 20a zen eta eguzkiak metodikoki torratzen zituen urez itoak, ixiltasuna barreatu ahalaz hiru asteko errekaren oihartzunaren borraratzeko, emazteak jadanik arrakausitu zuela bere gizakitasuna, hain segur astroak sorturiko irriño batean, aho hegiak luzatu zitzaizkiolarik.

Kontent zen naturaleza lasaitua ikusteaz, dena airean eztiki flotatzen ari kurioski arindurik, lantegi, zuhaitz eta karriken lerroak finkatuagotuz zihoazela makadametik idortzeak askatu lano epelen artean.

Holaxet hasi zen bigarren igurikaldia. Hastapenean batere ez zen desesperagarria, haize hegoa altxatu zen eta hiru egunez iragan emaztearen gainean, beti leiho ondoan ziharduena eguzkiaren distiren purifikazionean. Ez zen higitu, haize hego linburkorak zuhaitzei azken ostoa joanen zizkienean euria berriz jinen zela ba zekielako. "Hura" berriz gerta zedin zuen itxaroten, ez zekien zer izan zen, hitzik ez zuen kausitzen haren kondatzeko eta, azkenean, asmatu zuela uste izan zuen euria aspalditik erortzen hasia zela berriro, sekulan gelditzerik ezagutu ez bailuan, emaztearen bista ozkatzen zuen azaroko euri lodia, erritmo-manera berean idorra ahantz-araziz, lokomotibak karrikara erakarrariz.

Desmasia frangorekin jin zen berriz euria, laborariek barazuzak xehaturik zeuzkaten landareak, hirian, auzotegi zaharreko etxe guziak lehen estaiaraino urez itorik, dena usteltzen hasi zen. Bainan desmasia somagaitzena umitasuna zen, nehork kasurik eman gabe denetan sartu zena, murru, haragi eta izpirituetan.

Aktibitate guziak gelditzen zituen pittaka. Hor zegoen luzarorako oraino, ikus ezinezko uhaste iraunkorra, kiskalaldi azkar bat beharko bait zen haren haizeatzeko, bainan berriz jinen ziren uharrak eta horrela eguzkia eta euria txandatuko ziren lurraren gainean, emazteak leiho ondoan hilkor, urtez urte igurikatuko zituela Axeriaren Ezteiak. Alferrik : bat bertzearen ondotik, luzaz, umitasunak itxaropena ustelduko zion, idorrek orroitzapena irinduko, bere semeak, garbigelan jostetan ari bait zen orain lavabo urez betea amaz arrunt ahantzirik, haren hautsetan ezkaratza pasa ondotik, leiho ondoan lili multzo bat pausa zezan arte, kanpoan eguzkia eta euria batera ariko ziren batez.

Euria

Euria, bustia  
Zilarrezko zerua  
Disdiran zuhaitza  
Xorien Z'ren dantza  
Oihanera bakea  
Lanoa, ixiltasuna  
Ttanttoa.

Goroldian

Maite zaitut maite  
Oihu latza  
Karraxi goxoa  
Esperantza galdua  
Bide gabeko oihana.

Gure gorputz  
eta gogoak  
"nahiaren  
eta ezinaren  
burruka toki".

Gorputz lotuak  
Gogo estekatuak  
Aho mutuak  
Esku geldiak.

Hurbildu nahian  
eta ezinean  
gera pasatzen  
elgarren  
ondoan.

Mari AMESTOY 1971 EURIA 1980 GOROLDIAN Mari AMESTOY 1982.ko Maiatza

"Batzutan jeuts hadi Hire errege-alkitik  
 "Eta haugi kidekatzerat gure atsegin eta oñazetan ;  
 "Gorda hadi itxura orotan, gozo orotan, maitasunean eta  
 "Ene ariman - eta hor, kanta zan ! oi ene Maitaria,  
 " Ene Maitea, ene Maiteena !

"Lerraka zohaz itzalez itzal, oi Iheslari  
 "Zure gorputzgabeke hemenkia dohala bere ondotik utziz  
 "Argi-zirrista bat".

Rabin Dranat Tagore ("Iheslari".)

# ARTOAK

"Basa-Sagharre" ezagutuko lukeenak askiko luke bere bizian munduan maita ditaizken ederti guzien asmatzeko eta maitatzeko.

Bainan bere edergarrietan lehena du: guttik dutela ezagutzen... edo ne-hork. Baizik berak. Birjina andere bakuna, Mari Gauekoaren egongia. Gakoturik dago bethiereko, hango potxa ñabar beroen bihotza bezala. Zorigaitz zuri bethiko, irakurle, gau-gako hori harrapatu beharrez abiatzen balinbazira ! Zure barneko bakea sekulakotz galduko zinduke eta erromes nigar-egile higatuko zintezke, zure urteak herrestan... Jasta zazu bada "ikusgarri" bekan bezala eskaintzen dautzuten oiharzuna, usaina... Aztiak ezin diro eman hitz-mugatuek eman dirotena baino haratago. Bestela, zaldizko ilhunak bere lana egin liriokelarrakena den bezala.

Agian zuri ere ager bekizu "Iheslaria"ren Suzko igitaria zure gau ñabar ortzikarazkoetan...

"Aita emadak arto  
 "Emadak GAKO emanen dauiat arto  
 "Zer GAKO  
 "Erregeren gako  
 "Errege emadak gako  
 "Emadak luma izanen duk gako  
 "Zer luma  
 "BELE luma  
 "BELEA emadak luma  
 "Emadak hertze izanen duk luma  
 "Zer hertze  
 "Aratxe-hertze  
 "Aratxe emadak hertze  
 "Emadak esne izanen duk hertze  
 "Zer esne  
 "Behi-esne  
 "Behia emadak esne  
 "Emadak belhar izanen duk esne  
 "Zer belhar  
 "Mendi-belhar  
 "Mendia emadak belhar  
 "Emadak euri izanen duk belhar  
 "Zer euri  
 "ODEI-euri  
 "ODEI emadak euri..."

(Basa-Sagharre.)

Hango larre izkinetan eta oihan-hegaletan basa sagartzeak baziren. Toki bakotxean bat bakarrik, tente. Berdin legardoi baten erdian, iratze-malda partarrean. Larrazkenetan han, hemen, toki bitxietan gertatzen zen sagar bat edo beste lurtean... "Sorginek botaita!". Sagartzetarik nahiko urrun... Ez ginituen sekulan jaten. Etziren hunki behar! Sagar jaten artzekotz behar zen jan sagarra sagartzearen pean. Besterik ez!

Mendiz inguraturik da dena. Urkulu ganga gorena Orbaizetan; Erruzate bigarren ganga Ahezkoako zedarritan; Darte, Iturranburu, Zuhafeta, Muñhoño, Ziritu. Zazpi ziren haundiak. Gero bazituzten "umeak" beherago: oro matela, kopta, lepo, lepondo, besape eta besondo, bai ta ere azpi, ixter eta belaun koxkor.

Zonbat erreka? Zorroztarriko erreka, Ixtaakako Erreka, Ote-Xarreko erreka, Behobiko erreka, Lasturreko erreka, eta Xixkainekoa, Ugarrekkoa, Eskolakoa...

Iturriak? Ezin konda: Lakoko iturria, Jastein-Turria, Xamorrokoko iturria, Olaberriko iturria, Muundaizeko iturria, Matxardeineko iturria, Lisetako iturriak, Xirrixtako iturria...

Bazter orotarik ur-kantu eta ur-nigar, ur-elhots eta ur-othoitz. Iruzkia berantzen zen arrastiritan: beste munduetan ilundu ondoan, iruzkia ezin lehiatuz etzaterat Basa-Sagharren egoiten zen bere "begitarteari" begira gure erreka eta iturrietan. Egunak mugarik etzuen, eta gaua halaber hasiz geroz bizi batentzat abiatzen zen amentsetan. Aireak han ezin neurtuzko barnatasuna bazuen, eta behakoa itsas urdin muga-gabeen ibil zitaikeen. Itsas-haraindiko mendiak ezin baitziren hunki, begiez bakarrik ziren asmatzen eta beren mantelinen giblean aurpegi urrunak zauzkaten, andere birjinak!

Negu minean, egun urdinetan, karroñ eta izotzek pentze oihanak geldiz zauzkatelarik, eta zeruan apalatza sabela hutsik eta begia zorrotz inguruka zabilenean iphar-aire gorrian, arto-alorretarat lur-aldan artzen ginen: larrelur berri ekartzen landarat. Auzorateko biderditan gune bat bazen lur harri-gabe gozoz zaukana pezoñ gora bat, arribe lurrezko bat. Han lurra aitzurtu eta katau ttipiez tira alorretat. Lehen mehats eta malkarretarat, lerraka handik beheiti johan lurraren ordaintzeko. Belatzak karankaz Harri-Kotorretan, mirua huxtuz heremu hormatuen gainetik...

Landako "lur-ustel" botagietan, asunak "berbullatzen" hastean: Apirila. Saukari ostatzak abiatzean eta sahatsak lore-pelusak galtzean, harribixi loreek pentzek elurtzean, muga-altxatzen hasten ginen. Alor-zolan aitak bi-hiru ildo urratzen zituen. Urteko lehen ildoak. Lur erabiliaren eta abereen izerdien usainak nahasten ziren airean: lan-urrina! Pentzetik axurien marrakak eta ardi joareak. Bi behi pare, bi katau ttipi. Palatraka lurra katauetarat altxa eta tira goiti alor goihenerat. Urte orozko lana. Udalan eta lur-apaintzen ariz beheiti eraman lurra berriz goiti ekar. Mendian lurra, zuhaurekin begiratu behar duzu, jauntziak bezala edo xahakoa bezala. Higikor da ardi-saldoa bezala. Artzainkatu behar duzu. Bestela otsoak... Odola behar zako ere ahal bezain usu larre-lur berriz. Artaldean marroak bezala. (Aitak Sunbilla-tik jin arazten zituen marro berriak). Auzoko larretik lur ar berria.

Kozkotaria-enbor joiten, tar-tarra-tar-tara... haritzteitik...

Alor bazterrean sasua soñeko berriz jauzten hasten ziren. Oihanak mendi beheretik goiti adelatzen. Gehezteian gerezitzeak espos-jauntzitan. Behibetako andere xuria heldu zen Basa-Sagharreko zerurat eta Indart-aldeko maldan amulak loratzen... Elhorri xuriak lili Gañeko-Bordaitako bide bazterrean, eta Orremaldan haize-lili aintz koloretakoak usainka elhorri pean. Oihu, dei, xixtu, kantu, joare eta marraka: Basa-Sagharreko errepublika guzia kanpoetan ari zen. Xori-xoxo xaramelak bazter guzietarik. Kukuak loria pikatuz, ollarrak orenak joz. Odeiak argal goiti johaki eta heien itzalak lasterka alorretan. Arranoak inguruka Iturranburuko parrean. Urkulu-gañen elurrak dirdiraka.

Alor-zolan sagardoi. Har ñiñika gorratzak abiatzen sagartzeari, Maiatza. Alorrak hungarrikatzen ziren: abelohi (iteiak) eta neguko samatsak "puloka" hedatzen. Gero bat alor beheretik hasten zen hungarri barreiartzen eta beste hiru lagun bi behi parez iraulden. "Hetzgaitzak" ondoan, anaia zaharrena itots-emaile. Behi zaharrak laukan aintzineko, haur ttipi lanean hasi berria itots-emaile. Aita golde-zain.

Ollo, ollasko eta ollanda, ollar eta zita ildo berrian lasterka izta-zain kakolak makurtuz zizarika, hegadak xaflatuz zizarrien ihestean. Zerriak musurka luhuntz erroka - "Be! bee!! ots. Hea, denek batean. Tira! au, guzuzen batian..."

Bestaldeko mendian beste etxetako alorretan berdin. Otar-maldatik astoak putarrostiko eta arramantziaka. Maiatza! Behingoan etzela makil eta akulu heiendako.

Arhe eta basa arhe igaran eta igaran. Behiak izerdi "mihiak kanpuan". Miga gazteen hezteko lana zen. Mutiko azkarrak behar ginen hortako. Zer ka-lapitak ! Arhe hortzetan lur tarruka gorri, migen aho hegitan hagin xuri.

Noizbait zurezko arto-ereitekoa atheratzen zen. Art bihi ederra ixur-tzen ereituntzirat, ilar pikor behexekin, berdin ere kuia azi zombait. Behi zaharrak hortarako. Alor goihenetik beheiti lerroak xuxen ! Malda gotorra zen gunetan, gibelerat goiti jiteko alor bazterretik ibiltzen ginen ereite-koa eskuz airean atxikiz (azirik ez galtzeko).

Horiek oro nahiko ederki zohatzen aroa lagun balinbaginduen. Bainan euria sartzen bazen artetik ? Atx ! Egun batzu han egon behar beha etsi-etsi. Eta gero lur apaitzen berriz haste. Tirrit ! Uliak kexu orduan.

Bethree, noizbait maiatz erditsutako artoak ereinak ziren ahalaz. Ga-nerra trixte zen hutsik, azken artoak saski haundi-haundi batean - edo zu-hanan hobe - saguek ez hunkitzeko. Arto hori beiratzzen zen artzaifari bor-turat talo-gaia eremaiteko. Ollোক beharrik kanpoan harrapatzen hazkurri. Zerriak sorho berritan ahan. Amodio sasoinen kantu ainitz eta gari guti ! Hola da moda bethi : otsailean otsoek hurubi eta gerri-betegailu haize gorri. Maiatzean botzen pinpirin intzaurtze eta sagar-ondoeri, etxekoek esperantxa janari eta matel hezurak xorrotx ageri. Gerriak mehe ta begiak haundi nexka mutil oro ziren aments maitari. Gure mundua olerkari, oi haize bilaka bana-di !

"Eurìa behar gindikexi uai !"

Euriaren beha ... Ortzondoak xuhail, heguaire ! Alorretan lurra xuri, mendiak berde. Iratze-maldak "ahoz-jateko" koloretan. Pagoak "Haran-Ederreko" nabaraino ostaturik. Elurrak hurturik bortuetan, bainan eluhosoak oraino Mi-nasaron eta Irupilen distiran iruskirat.

"Iruski-sartzia "odei-morroketa" eurìa'ixiu iluna gabe !!!"

Arrastiri beroa. Ortzantza ! ximixtak ! Aitari arpegia jabaltzen zitza-kon. Ama lasterka hedagiarat oihalen biltzerat. Lehen zorta beroak zirt-zart herrautsean birikatzean, zerriak kurrink eta troxt.

Gehezi-petan behera. Ollোক organ perat, latsa-harri perat atherbeka : burua gora, buztana beheiti, hegalak tinki, bazauden, jauntxkila frantsesak zeremonietan iduri.

Eurìa "pekoaz-gainka" zurrustan. Bortaañetik aita so zakua bizkarrean. Iñharak erauntsipean inguruka korralean "ttuitt, ttuitt, ttuitt..." aita-ren arpegia kasik hunkiz. Aita bazohan euri turrustaren pean arteiko borta-añekoaren idekitzerat: iñharek arteiko zoladuran baitzituzten kabiak... Mari Gauekoa ortzaldetan zabilan bizi emaiten. Eurìa amilka zerutik behera. Bashurak xurrutan uhel-uhela korralean gaindi begi haundi batzu kliskatuz. Lurra erakitan. Zaldizko zuritan uharrak Xixkaineko erreken parrez haran luxeari gora zoin-lehenka elgar bultzatuz. Zuhaitzak dena dena jestu ta elhe iduri jendeak ostatuan. Ihurzuri ta karraskak :

"Zeruko ganerrian arto-joitzen ari'txu !"

Etxe ta bordaren artean zaldizkoak eslaika elgar joz, horma-harriak Zo-rionezko nigarrez. Ortzantza punpeka Basa-Sagharreko erreka-menditan, jende-ak etxean bestairi, mintzo goraki, aizkora atalartzean ahoz ortziari, zainda-ri. Ganda pizturik ama leihotik leihorriaren benedikatzzen eskuz elheak marra-tuz ortz haitzari...

Bazohan erauntsia Xuberoarat : eurìa eztitzen hasten. Baigorri aldeko zerua argitzen zen eta Orreagako xokotik arrastiriko argi urdina atheratzen.

Athertu-eta egoiten ginen beha ortzadarrak nungo iturrian edaten zuen : "Ixtaakako errekan !" Batzutan Olaberriko iturrian. Askotan Ote-Xarreko erre-kan. "Biga badiela !" Zonbeit aldiz izaiten ziren lau !

Ortzadarra iruzkiak jaten hasten zuelarik iluna hurran zen. Xoxoek, abo-tsak ikuz-berri, arrastiriko othoitzak emaiten zituzten eta Arrosagaraiko al-detik hasten zen klerona (dei-adarra). Udan eurìa egiten duen guziez dei-adarra arrastirian... Gero Pagaltzetarik beste bat : tronpeta (adarra)airea: "Zazpi urte baditu uraren gañian girela..."

Gaur oraino Mikele menditik neure idatztokirat euri xorten-artetik heldu zautalarik adar dolamena... amel-harri bat egiten zaut zintzurrean : Ortzadar-aren notak..."



## ENAUT ETXAMENDI

Lanbro arinak altxatzen ziren Zirritu zolatik eta Dartemaldako aldetik, beste batzu heien gibelean Behobiko zokotik... mendi-oihan nabarren aurpegiak doi-doia itzaliz bazohatzen goiti zirri-farrasta legunetan urratuz. Adarraren doñua orai Bidartaldetik : nota luze meheak Zuhafetako gau urdinez gaindi. Ilunpean Ana-Mari nigarrez ixilik. Otteek dardarrikarazten zuten leihorri guzia, apoak huxtuz eztiki apirileko leizar-xirulak iduri, errekek hasperenka haran xola orotarik. Basa-Sagharre heremu-organa mila doñu-joile jartzen zen gau bar-na sekulako baten... (Geroztik Hego-Europa zoragarrian ikusi eta entzunak, ala Magrebeko bortu gorriak, edo ta Sahel-eko zotal-zelai eta brosta izigarriak, berdin Eskandinabeko itsaso eta ugarte goiz-ortzondoak, nola Kalifornia Nevada ta Arizonako leihorri ospetsuak... oro zaizkit espantuak eta orhoitzapen juankorrek. Basa-Sagharren, gure beharriek orduan entzun musika notak berriz ezin atzemanez badohazkit biziko gau bustienak. Mari Gaueko ! Hire karkalla ber-deek nola zaukuten egiten gure amentsen ohako !).

Goizalderat mendi hegiak aixtuaren aho-aitza bezain xorrotx, Otxabagi alde-tik iruzkiaren leiñurua. Aita, ama arto-alorrean soka lurrerat. Xori xaramelan eta ollar-kukurukuen artetik "artua sortu dela !!!"

Lehen behakoan lur beltzarana huts-hutsik baizik etzen ikusten, baina un-tsa finkatu-eta begia : doi-doia lerroen marrak nabartzen ziren. Osto-hatz ñi-miñiñoak !

Behibetako Andere Xuria zeruan...

Aitzurrak arotz-teitik jin berriak xorrotxirik apailatzen gintuen. Gider xahar eta berri marruketaz poliki xintuketaturik ezartzen. Kontra-xiri eta uztailarruz tinkaturik. Bakotxak bere gustukoa oxkarratzen ezagutzeko.

Goiz batez aitzurrak dantzan hasten ziren : jorrocketak ! Oro herrun-kan, lerro-motxetarik alor hegitik hasten jorran. Gizon, emazte, mutiko eta nexka, ilar pikorrek sakelan huts-gunetan ereiteko. Aitzurrak harriz-koletan kantuz, jendeak elhaka. Bestaldeko menditik irrintzinak. Mutilak mutileri eskarnioka : "besoik ez anketan !"

Bepazterraz auzokoak gelditurik (hats-hartzeko) ikusten zirelarik : "ahuntzak azetan !" eta besteek : "indarrik ez gal uzkerretan !" Atxikak "hodi" to ! tritzo unts' emana.

Aitzurraren azta eguerdiko ? eta ahurrak ? eta ukaraiak ? eta errai-ñak ? Zenbat harri kozkorren punpeak bildurik gogor besoetan ! Zenbat u-gurtze arto ondoko belarren kentzeko. Arto gehixe zen gunetan bekantzen ginduen. Haurrek egiten heietaz "zaldi-buztan".

Ekaina han harat zohala artoa haunditzen ari zen. Orai asto gaizo-aren aldi berotzeko. Adio Maiatza... Lepokoa ezar eta tira behin "karra-karia". Gero "palotea", ondostatzekoa. Zer hatsangak eta izerdi hagunak besagibeletan. Besta orok beren lanak. Haatik lan orok beren bestak !

Artoa goiti, ilarra berari inguruka amodiotan lore xuri-gorriak idekiz ihintz malkotan. Erle, erlastin eta bizardun lore kilikan. Laster leka xehe legunak agertzen ziren dilindan. Arto pean ere heldu tarrapatan zaingorri, egur-belar, haran, xahatx, ollozango eta basabiper karraskan... Bare, bare-tza, karakol eta har leka jaterat...

Primadera zohienean zen orduan, Bas'ihiziak bestan sasua, oihan, hesi, brosta, geheztei eta sagardoietarik.

Euri burrustila gizenak orczantzetan. Mendian ez da idortetik ! Bainan ostoak ezpatatzen hastean artoari uztail ondarrean, gukulu eztia zangarra barnean gora heldu denean, hegoa hor mendier behera heldu balinbazen... ? ! Ai ei ! Ama saindua ! Maizenik euri gozo baten ondok ateratzen da bero bat gaitza, bazter busti eta aire hezeak itoan datxizkana egun guzian. Ollak hegalak laxaturik eta mokoa idekirik hats-bahiturik daude gehezi-petan. Baratz-ean tomate biperrak ostoak trenputxarturik, ahagoak berak dira agurka ari ir-turrari.

Arhantzaldeko hegian iruzkiak urrezko ohantze. Aita boneta belaunean alartzean izerdi idortzen arratstirian. Hegoa far far abiatzen da pereka ezti batzu eskainiz han-hemenka dena iratze usain eta mendi-hats. Berekilan zernahi soñu : behi-menditik kulunka gorriak, "Gañeko-Larretik" bildotx xintxila xuriak, eta batzutan aments baten ixkina juankorra bezala ardien joare urdinak bortu-tik...

## ARTOAK

"Hegua ! fal-fal ! pizten dixi gizonain bihotza !" Aitak. Zeruan "izar-marrak". Orbaizetako mendiek dituzte sukarrak. Ottiak dai-dai ttirritan, eta bestaldeko mendian norbait basatik kantana. Gau mentsa ! Ama heidu da ezkaratzerat, eta "oi ei ! hegua hunek artua elikexi "deboillikatu" behar !" Aita ixilik. Haurrak kalapitan (ez da marka huna !).

Goizalderat etxea inharrosten zuen hegoaren burrunbak. Leihoak zirt zart, barrukiko atheak zabalik.

Haizea urrikirik gabe lasterka iratze maldan naika-naikatuz mendia, belarra pentzetan barratxoa barratxoari uhainka eskapi ihes-iheska oihana nahiz atzeman... Sasu brostak moxkor, zuhaitzak edanak kantuak nahasiz, hildi-maldoka elgarren soñu hegiatarat eroriz beso arnotsuak... Inguru minguru, harat uzkal, hunat bihurdi artoari ; eskuak amoretsu dauzka hegoak dantzaz murtxerotu-ta, alorrari zaiak altxaka eta ixter-biluzten !!!

Eguna bazohan hola . Mentsa : kanpo guzia ihautkerian, jendeak ixilik. Biharamunean "best'ondo" : arto altxatzen oro. Etzen astirik gaudu behar ! Arto eroria pollikiño eskuz goiti eta aztalaz ondoan lurra tinka. Etsitzeko lana. Ilarrez kargatu arto "ernariak" lurtean... Gehixe makurtuak etzirenak uzten gintuen berak xutitzen baitziren. Zangarrak xanka bat egiten ziotela. Egun latzu iragan behar ikuspegi trixtearekin alorrean. Bainan gero, emeki-emeki pollitzen zen artadia. Gukulak atheratzen. Leihorri guzia horailtzen zenean gukulu liliz, eta ezti-urriñez betetzen Basa-Sagharre oro (gukuluek ezti-urriña baitute !); bizarra gorritzen hasten zitzakolarik artamari, gukulu mozten hasten ginen... Raxk, raxk eta "xaldi". Lau ostoz friu-frau gerria ingura xaldiari eta brix buru zangar artean. Jestu "lakrikunak" ! Etziren hobeki "xildratzen" dantzako espartinak !

Askal-ondo, sukaldea gurbildurik, gasna gorriturik, ama tauller-aintzinekkoa aztindurik bazohan artoperat leka biltzerat, eguerdiko saldagaika. Batzutan arto ilardun zombaiten pean ollo-kafia... altxotra lekaren gainian primaderako ollanden arrultze berriak sukalderat. Izerdia gir-gir foltzutan eta zai bustirik besapetan ama bazabilan kantuz etxe barne eta ukulutan.

Uda bazohan hola. Artotik pentzerat eta berdin ogitarat. Mutu-arotan mahastirat edo lutsagarrerat. Arrastiri oro, bat mendirat. Gauak labur, iruzki luze. Euri-ondo batez "gukulu-bideak" egiten gintuen. Hogo bat lerroko zafla utz eta lerro-arte bat zabal : artoa bultza bazter, zangoz lurtean erroak lagunduz.

"Abendoan elur, agorrilean bero, hola da urte-oro". Bai, bainan euri ere! Euri eta euri. "Noiz behar tun gukula horiek sartu ?"

Noizbait, berdin igande batez, berdin ere buruilleko bestetan, hego-aire batez, gukulu sartzen hasten ginen. Xaldiak bil besatraka, eta gukula bide-tarat. Leratxunak han beta eta aiba ! sabairat. Auzoko zombait jiten zen hola-kotan berdin. Gu ere juaiten auzoetarat.

Artoak duen usain horrek oro elgarretarat bilarazten baigintuen. Leratxuntra gukuluek frangotan azta axkarra bazuen (ez untsa idortia...). Keba ! "heguak ahinduko tik ba sabai gainian !" Alainan belar-metaren gainerat altxatzen gintuen sokez "xirrikaz" lagunduz. Han iruzkiak tellak berotuz eta haize hegoak lana bururatzekotan.

A ! hegoa ! ezin maita eta ezin hastia. Buruilleko egun arrosotan pizten zelarik "hego-xuria" Iratitik behera ! Sabaiko ate-leihoak idekirik ezar-eta zer loria ! Emak emak hegoa erhoa ! gukulak idortzen zituen, belhar-sorhoak arintzen. Landan ilarrak zohi-arazten, artoari bihia larriarazten. Arbi matel gorriak inharrosten, gaztaiña sokalak idek-arazten, iratzeak gorraitarazten.

Artoari burua ia loditurik, bizarra gorribeltzen zitzakolarik, sagardoiek sagarrak horailtzen ziren, biligarroak mahasti ingurutarat hurrantzen, eta uzkinazoak ahan xuritan kasallan ziren ibiltzen. Azkona errecondotik arto-landan sartzen gauaz eta baratzeka arto zangoak hauts krask hortzez eta burutza gurdoak jaukatuak zituen ezartzen. Sua arratsetan egiten ginduen, ihizi ziztriñ horren ohoitzeke, alor bazterrean. Halere helexak egiten zituen bethi. Orduan ziren gure herriko bestak. Oi arto alorren kolorea ! nolako soñua egiten zuten ostoeke hegoan !

Zerriak ezkurreen asetzen zirelarik eta urtzoak abiatzen, Urria zen. Iratze-maldarat gizonak, ilar-biltzerat emazte eta nexkak. Oriuneko oihan-etik ihizlarien tiroak. Goiz-alderat artadia ahapetik elhaka hegoan hasten zelarik, salako leihoak xixtu ezti bat xiritan egitean, aita jeikitzen zen goizik ihizirat juaiteko. Haren mendiko oskien azantza ezkaratzetik haute-maiten ginduen oherat... Xoraturik gu, arratsean zonbat urtzo atherako ote zuen mahainerat...

Alor ixkina bat "barrastatzen" ginduen aratxendako : artoari ostoak kentzen. Han artoa laster zohitzen zen. Ollondako.. Eta talo berrien egiteko ! oro baiginen talo bero gurdoen ahoratzeaz nahituak. Lehen sas-kitra artaburuen pollita !

Bainan etzen aisekixe hortaratzen. Hain ziren zinak eta minak arto zaitzen. Etxiatarik olloak piko-miko "kilimiskaka" jauzika artaburu-etarat... "markisten" baitzuten alorra. Beste burutik bele, uzkinazo eta pikak, arto buruak haskatu eta matel-beltzaturik ezartzen baitzituzten. "Kukuak" ezartzen gintuen oihan-hegalean. Bai, berdin zen apoari buztana bilatu ! Eta urdeak ? hoiek debruak. Hesia zila eta jasta arto berria. "Palak" ezartzen gindezkeien. Uste duzu hortan geldi zela ? Zebaa ! Behiak ? Alta "urri-bazka" gizenetan ziren... bainan artoaren usaina ! "Napurra" bat aski zen : adarrak sar hesian eta bultza ! Horiek horiek xehakitzen zutela alorra. Behi-zain egon behar. Gaztaiña ostoz egiten ginduen "hostail-aterbea" behi-zain egoiteko. Atekaren ondoan ... eta jo harmonika. Oi nota ortzadarrizko hek... nun dira ?

Kuia buru haundiak agertzen ziren alorrean artoari ostoak "garrigaiten" zitzazkolarik. Lehen izotzak...

Noizbait heldu zen delako azaroko arratsalde iruzki hegozkoa : orgeri katau-sahetsak ezar eta "orgetxe" kilan alorreratzen ginena. Auzoetarik ere norbait izaiten zen jirik. Krisak krask arto buruak saskirat : "erreguko" saskiak beta eta orgetxerat huts. Orgetxa betexe zelarik "marharak" artoz betetzen ziren : "sakak". Sakak orgetxearen gairerat eta jo etxerat.

Irrintzina, kantu, xixtu, garima ta oihu. Hegoa irriz denen mentsgarri. Behiak kopetakoen lits-hegitarik begi zorrotzak erakutsiz : "muturrekoz" ahoak estekaturik baitzituzten eta arto-urrin eta musika hortan pikorrik ezin jan ! hauk lastima !

Orgetxeak arteian husten gintuen. Oi larrazken hetako goizalde gorriak ! Hego-xuria intzireka hegatzetan, huntzak oraino hurubiaka ari zirelarik gehezteian. Behi xilintxak korralea, Sause (auzoa) jadanik jina arto-biltzerat. Gizonen mintzoak hegoan nahasten ziren, eta gatusa sabaiko aldetik nar-ñauka amodio eskale... enakien sekulan amentsa ala egun-argizkoa zen.

Ostoak farrastan haizeak ukulu xokorat bultzatzen zituen, eta zerri-makiñan azken euriak utzi tilistan arto-bizar eta iratze porroskak inguruka... Askako turrusta ere fandagotan hegoan. Bortutik joare dolamenak noiztenka nabari amodio trixteen orhoitzapena iduri.

Antxuak ilea harro-harroa inguruka larrean, eta migak putiuka ildaxorien artean pentzetan. Hegoarekin emazteek biloak nahasiak izaiten zituzten eta gizonak boneta kasko gibelerat igortzen zuten edan-eta bezala... Behien buztar-estalgia eta oro bestan izaiten ziren. Oi arto-biltzeak !

Mizpirak huntzen diren aroan eta azkonak harpe-zokoan xahoz ohantze ozena biltzean, anarrainak ertzaroan goiti heldu direlarik eta uraderak umeak egitean, mendiak zotaltzen dira. Basa-Sagharre guzian. Iratzeak arbaturik ezarri direlarik irasailletan eta elur berriak Urkulu xuritu du-elarik, aitak atzarra hiltzen zuen artoxuritzeke !

Jendeen galditerat auzoetarat igortzen gintuzten artoxuritzetako. Oi bihotz-pilpirak ! Etxe batean ezti egiten zuten... Bestean aldiz nextak baziren ... oraino orhoit niz nolako urtzo-liliak baziren xendra bazterrean eta ilarrearen lili urdinez... Mendi hartako potxa nabarrak zoin pollitak ! Eta hango jendeen irria ? Geroztik nihun nehoiz ez dut halako irri pollitik jastatu. Hau bizia ! Hitz hau idaztean galtzen zaut bihotza. Berdin litzaket hiltzea ez banu behar jarraiki gudua. (Gutarteko Judas hoieri hemen diotet grazia, Homero zaharrak ziona : "heriotzearen beldurrik ez duenez beldur zaite denaz"). "Hiltzearen axolarik ez duenez, beldur izan zaite denaz".

Azkenean, horra hor delako gaua. Azaroan goizik ilhantzen du. Mahain luzea altxaturik astotan zagon ezkaratzean. Sukaldean ama eta izeba eltze haundi batzuen inguruan su-bazkatzen. Sua gar-gar lorietan eta tripakiak "dupiña lurrezkoan" kalapitan. Eskaler eta saletan sagar lerinduen hatsa ezko-urrinarekin mahas : zoladurak ezkoz argitu-berri baitzituzten nexkek.

Borda-kantoneko seheillan lehen jendeak saskiak buruan. Zakurra dai dai. Jendeak mintzo ukuluan alaigin eta irriz. Nexka mintzoak nabari... Sabai, ganer eta barruki dardarikatzen ziren bozkariz. Korralean samats lodi ote freskoz eginik, ezkaratz xokoko sotoan arno berri, barrikak oraino hagunka ari.

Lerroan jartzen ginen arteian arto-metari buruz, bakotxak bere tokia hautatuz, artanda gorria izanen zeneko ! Saskiak arto-metaren gainean, jendeak zango-sagarretan jarririk. "Mutila" aitzurrotx zain arto idekitzeko, aita sagar-arno emaile.

Horra GAU-ANDREA.

Aitzurrotx eta kakoa baitezpadakoa zen... Gau hartako tresna bakarra.

Sagar-arnoz aldiz, aita lehenik baso laurden erdi bat xilipixtatu eta lurrerat botatzen zuen : arto-metarat. Gero dener emaiten edaterat. Lehenik Sauseri.

Jendea elhaka eta deika geroago eta gorago. Noizbait hasten zen bat kantuz. Gero bestea. Bi abots, hiru, lau... Airearen hurratsak, xaramelaren daldarak, amodiozko pertsuek... larruan latztura bat egiten zaukuten : abotsak bustitzen ziren, nexken betespal ederrek matel-koskoetan itzal arin, eta mutikoen bekañ xorrotxak argi-kontrarat ikaratzen...

Ezpelezko xiri legunak larruzko eraztunekin erhitan dantzan artama idekitzen. Arto-buruak airez-aire tipi-tapa saskietarat. Xurikinak guhaun gibelerat. Emeki emeki xurikinak metatuz jar-alki beroak egiten gintuen. Gaua johanago eta hotza saminago, xurikinez baginduen bizkarrari gora o-hantze eta solasak ere zabiltzan beroago, bat besteari ere hurranago.

Kantuaren eta gorputzen beroak, artama-bizarren usainak eta arta-buruak koloreak HURTZEN gintuen oro batean, eta bakotxari orduan bihotzeko "gaueka"-begiak zabaltzen hasten zitzaion. (Gauekak gauaz ikusten baitu...).

Bakotxa besten larruan sartzen zen eta oro bakotxean. Begiz eta egunaz ezin ikusizko izaki guzia IKUSTEN ginduen : Arpegi bakotxaren, izen bakotxaren, gorputz bakotxaren, abots bakotxaren gibeleran beste orduz ageri ez diren izakiak. Eta moha diren mendi, hego, erreka, azkon, iratze, iruzki, ilargi, ortzantz, izar, ihizi, bele, marnuka eta diren guziak HURTZEN ortzadarrezko altzo zeruko athean. Andere GAU-BIRJINAK tinto hartan idekitzen baitzaukun gauza-gordeen gakoa, ortzadarrezkoa. Emaztekiak ziren gizonki, eta gizonak emazteki bezala. Notak kolore, eta gorputzak soiñu, koloreak sentzu eta sentsuak izar.

Barneko begi uhargi haundiak geroago eta zabalago : ortzharitzaren hegal arinetaraino izaki BAT ginen Betiereko GAUEKO Anderearen altzoan. Gure etxelarrak dirdiraka ikusten gintuen dantzan ezpelxiritan eta gurekilan xaramelan.

Andere Goihenaren urrezko gerrikoa denaren kako. Kako xoragarria, gure ortzi-begi urrunkaria idekitzen zaukuna.

Aitzurrotxa arto-metan tiraka. Sagar-arnoa argirat basotan pindarka, eta jendeak elgar hunkitzeaz ez lotsa !

Haritztezik gauekak dei.

"Arto gorri ! potta kurri !"

Artalde xurienean ere axuri beltz bakar zonbait sortzen baita, arto xurien ere gertatzen zen artanda beltz zonbait, "gorribeltza" hots. Eskutik eskurat iragaiten ginduen potta emanez elgarri eta artanda beltxari. Irrintziak. Nexkek garrasi : atx ! hor izanen zen norbait "kilimiskalari" ! Eta "Ze mentsa hizan !".

"Saskiak altxa !" Mutikoen erreguko saskiak bizkarrerat, nexkek lagun-duz goititzen. Itzalean zimikoak libro... nexken aldi orai !

Ganerrean sagar-meta haundi bat izaiten zen bethi, tipula, baratxuri-bilurren pean, intzaur, lurtsagar eta ogi-meten aldean. Mutikoak sagar jaten gibelerakoan. "Errak hi to ! baño eni ekartzen ahal haan ba naski !". Oi ! ahalgea... Segur ondoko saski-altxan biga ere bazitueta nexkak.

Xurikinezko ohantzean denak berriz jarri-ta kanpoko hotza ahazten zen. Zaiñen eta erraiñen bihotzkaldiak jabali zirelarik, berriz lasai goxo batean elgarren bilo-usainak ezti-eztia usma zirela-eta, ezpel xiriz artama bipiltzen erhi eta ukarai oro bizar gorri ari ginela, bi gizon-abots hor hasten ziren gure goxozko itsas uhainetan arraunketa.

"Airetun krikritun landaretan landaretan  
"Apeetxeko'Ellandek e-remain du Etxepar-ko Mai  
"Astuain kakoletan kakoletan !

Bigarren lerro hori libroa, erran gabe doha.

Eta jo beretik. Xuri-beltzak entzun behar bakotxak. Denek beren laka hartze zuten. Oaixtiko zimiko eta "kilimiskak" ere ez aski itzalkatuak... Debruak !

Edo ere bazen beste hau :

"Esku xuritan esku xuritan  
"Zoin den eder arrosa  
"Juanaño horrek Juanaño horrek  
"Maite'omen du Migel baliosa..."

Hango irriak. Gauak etzuen bururik, ez eta astiak neurririk.

Arto-meta beheiti, xurikin-meta goiti. Erreguak konda. Holako etxean hoinbeste, gure etxean hunenbeste !

Noizbait aitak erraiten zuen gelditzeko. Maizenik arto-meta etzen dena xuritu baina ttipitua. "Auhaiteat Juan gitxu. Uai guhauk gahaitzeko gisan dixiu".

Bainan gaua etzen bururatua !

Uzten ginduen barruki beroa : bakotxa ganik urruntzen erhi eder dantzariak, bilo zoragarri artama mantarrez girgilaturikakoak... Artoaren maite-tasun hatsa !

Ukuluhan barna, samats gurian oiñak ohe zuritan baino pozago zabilizan. Bat besteari artama-mantar kentzen.

Ezkaratzean ardi-moxteko mahain luzea jauntzi xuritan, untziz mukurru, botoilak irriz argigorrikara, tripa-salda ketan ! Alki luzetan jendea elhe, irri eta hortzak xuri. Mahats-arno berriaren garratxa ! Sausek irrintzina, tripakiak etortzean sukaldetik. Jan, jan, eta jan. Edan ere bai !

Foltsuak berotzen ziren eta oiñu, karkalla, dei eta orkatx klixketen artetik harmonika bat. Gasna zuria erdi jan orduko mahain luzearen inguruan kalapita ! Gazten artean zaharrak jauzika. Arnoa orai ta berriz.

Koxek akordeona atera eta oi garrasiak ! Mahaina bazter, funila ezkaratz erdian ezar eta Sause baso-dantzetan, berak ere airea kantatzen zuela. Piko artetik arno berritik xahako, ezpain hegaletan behera arno-haguna argi gorriat dirdiratuz. Koxek harro musika, espalakoñaz hurratsak pikatuz, Sause gerriko luzearen muturrez besoa inguratuz punpeka funil-inguruan, lits beltzez argiaren inguruan sorginak haizatuz, orthutsik, erhiak klaskatuz. Azken jauzian zanka-motx samin bat eta xahako ! Oro eskuzartaka eta bibaka. Edan arno, akordeona erho eta fandango. Kliskiti-klaskata erhiak xalaparta, besoek argia iresiz eta zangoek ezkaratza dangatuz, gorputzak zabilizan airean murtxerozko gauean ganertra arto pean...

Jendea gelditzen zenean hatshanturik arno edateko, aitak amari :

"Graziana nola zen Oseba Gilentok eiherazaiñer eman kantu hua ?"

Eta ama alki luzearen erdian jarririk hasten zen

"Don Andres eta Xabadin  
"Jaun-andre onak Garazin  
"Senhar-emazte higatu ziren eihera batekin  
"Gauak labur loa arin  
"Harat Juan eta hunat jin  
"Herri guzian hedatu zuten zombait zaku irin"

Migel lotzen zen basatik amaren lagun. Zer xaramelak !

Noizbait batek emaiten zuen :

"Partitzeko tenoria huna nun den jina  
"Urrikaltzeko baita kasu hortan dena  
"Izar baten uztiaik..."


Sausek : "egia haundia Mari haundia !"

Azken aho xafarrak basotik. Sausek hastean bezala bururatzeke baso xolako laurden erdi edaria atalartzerat botatzen zuen, eta oro bazohatzen. Gaua gauezkoena baita... argiak pizturik argi-untzi petrolazkoetan eta irrintzinak botaz etxearen bi eskualdetako bidez, multxotan juaiten ziren. Xixkaineko harripeko ireluak biderat ez ateratzeko... "Hu-u-u ! Irelu-u-u !" Holakorik ez omen litaike oihugin behar gauaz, bainan arno berriaren hatsak...

Etxeko xamindei gangan gaueka xuria begi eder uhargiak ortzondo kolorez, so zagon gau izotz dirdiratsuari, eta Orreagako aldetik artizarra argitan kliskaka gure erreinu nabarrari.

Guazen harren ene gogoa ! ibildari, bortuen uspel-aldeko artzain-bidez gaindi, gure itzala darraikigula erroitzetako potxen kozkorrez haraindi. Tirrakako harpe-athekan, juanak zaizkigunen lanhoari agurketak dezaizkogun egin.

Guazen ene gogoa ! Orhoit hiza ? heremu xuri hura ? Zaldun beltzaren labrokarik nehoiz hautemaiten etzen hura... Oi ! Amandre urre-orrageduna ! ugarrez ikuz ezadazkin begiak eta neraman itzalik gabeko gorputza nuen Herrialde xuri hartarat.



SUSA literatur aldizkaria.  
c/ Gral. Jauregui, 3. 1.º. ezk.  
DONOSTIA

HARPIDETZA

IZENDEITURAK

Helbidea

Herria

Probintzia

ORDAINKETA: harpidetza txartel honekin batera 500 peztako billete bat sar ezazu sobre barruan eta listo.

Formal formal ibili nahi genuke hemendik aurrera, aldizkaria ateratzen besterik ez bada ere. Epeak bete nahi genituzke lau bat eta akaso bost SUSA kaleratuz datorren urtean. Gurekin fiatzen bazerate, tira, aurrera. Fiagaitzak baldin bazarete ordea, ez duzue erremediorik

SUSA

# Espainiako Erregeari eskainiak

Attabalen soinu beroak,  
bandera arinen furfura,  
jendearen murmuroak,  
baina  
toreroa sartzean  
entzieroan urguluz jantzia,  
Kastillako urrez  
eta  
odolaren gorritz  
jantzia  
ixiltasuna.

Azkenean, etsaja libratuko dute,  
bizitzaren borroka berriz hasiko da  
sekulako alegi bat iduri.  
Alegia.

Zezena plaz erdian dago,  
beltz eta errege:  
burua apalik,  
adarrak zitaldun,  
aintzineko besoez lurrari joka,  
sudur ziloetarik errautsean pufaka,  
Kastilla zaharreko  
oparotasun joanaren  
jainkoeri  
ezkaintza gisa  
prest  
odola galtzeko.

Bere kapa arrosa haizeaz hanturi  
entzieroaren ondarre pizuan  
torero klikkadunak  
( jendea ole-ka )  
heriotzaren dantza,  
gizon gosearen  
eta  
abere asearen  
arteko leizea betetzek  
dantza

obratuko du,  
( jendea ole-ka )  
tua espainetaraziko,  
begia itzularaziko,  
eta azal etsituan  
( jendea ole-ka )  
izerdia perlaraziko  
dio  
zezen beltz eta erregeari.

Orduan,  
irabazleak datoz orduan,  
zaldien gainean  
pika puntutsez  
abere sakrifikatua bukatzeko.

Emazte zetatsuak abanikoekin,  
trenputxartzen dira  
odola jariten dakustenean,  
baina toreroak  
zezenaren bi beharriak  
eskuan atxikiko dituenean  
"biba" oihuka ariko dira  
mokanes perfumatuak  
kopetan emanez.

Aldi honetan ere,  
gizonak irabazi du:  
hemen  
heriotza jabaltzen da  
urguluz jantzia,  
Kastillako urrez  
eta  
odolaren gorritz.

Attabalen soinu beroak,  
sokak eta kobreak,  
huts handi baten gainean  
ixurtzen da  
zezen beltz eta erregearen  
odola  
Kastillako erresuman.

# Gaxuxa KAKOLI-ren obraz

Euskal literatura, itxuran aberats agertu arren, egian aski pobrea dela iduri du. Ez nuke euskal literatura maitagarri hau kritikatu nahi, baina bortxatua naiz, arras motela eta saindua izan dela aitortzea.

Hona, nik neronek, nere bilakuntza ospetsuetan zehar paper interesgarri batzu atzeman ditut, herriko etxe abandonatu baten ganerrear. Pena nuen: etxea ur bazterrean zagonez, dokumentu bakun horiek bustiaren eta umitasunaren atzaparretan eroriak ziren. Eta, nik neronek, salbatu ez banitu, segur betikotzat galduko zirela.

Lehenik, hasteko, presenta dezadan Gaxuxa KAKOLI pulposa. Zeren, literaturzale lagunok nerekin ados zaretela uste dut, norbaiten bizitza ezagutzen ez badugu, ez dugu aise konprenitzen ahal idazlearen obra nasaia. Badakizu mamia...

Gaxuxa KAKOLI 1792eko uztailaren 14ean sortu zen, Sortekobordan. Nere herrian, etxe hori Amikuze oihanari hurbil hurbila da, eta plazatik biziki urrun. Horrek zerbait esplik dezake! Zazpi urtetan komunione ttikia konplitu zuen, eta hamabietan handia. Denbora berean, mendiak kurritzen zituen urtxintxen gibeletik. Geroxago, herriko bizangodun gazte eta freskoen atzetik ibiliko zen, kasik manera berdinean. Baina utz dezagun, poeta mintzatzera:

*Mendi galdu haien atzetik  
Loreak zimel dauden baratzetik  
hekarren  
hegoa  
hekarren*

*hegoa*

Ohartzen gara, hitz hauek tristezi asko dakartela: seduktore hoberenak ere, angustiz beteak dira. Manex auzo xahar baten ganik ikasi nuen, "iraultzaren alaba" deitzen ziotela. Arrazoinekin! Urrunago ikusiko dituzue beste poemak.

Alabaina Gaxuxa etzen eskondu, eta neska natural bat ukan zuen pasaian ziren buhame beltzaran batetarik. Bistan dena, harek obra egin eta eskapatu zela. Ordu hartarik goiti, lasterkak utzirik, alabaren hezten pasatu zuen bizitzeko gelditzen zitzaion denbora luzea.

Laborantzan ari izan zen kasik sortzetik hiltzeraino, gure Gaxuxa. Fama handia bazuen: etxean zuen arnorik hoberena, arto buru lodiena, eta behi esnedunena. Jendeek erraten zuten parerik ez zuela idi pare baten aintzinean, udalen artzeko. Goizean, ihintza hotzean belarra zagon lekuan, arratsean, ildo ireki ketsuak zeuden. Zer phesta zizariantzat!

Ehun eta bi urtetan eman zuen azken hatsa. Horrek 1894garren urteraino eramaiten gaitu beraz. Haren ehorzketetan jendeak milaka etorri ziren, bereziki gizon xahar kuxkurtuak. Dudarik gabe haren maitaleak edo ohaideak izan ziren guziak. Apezak gaitzeko predikua egin zuen, eskutan daukat textoa, Gaxuxaren bertutea laudatuz. Egia erran, Gaxuxa gaztea zelarik beste erretor bat zutela herrian.



Bere alabak kopiatu zituen amaren obrak kaier batean; eta nik kaier hura dut atzeman. Segur segurki denbora iragankorraren zintzurak asko iretsi dituela...

Eta orain ondotik datozkizue, Gaxuxa KAKOLiren talenduaren alde mi-resgarriak. Zueri jujatzea!

Hiri zahar honen hormetan  
preso gelditu ginen, metan,  
etxe bidea galduaz penetan  
ateak hetsiak ziren denetan.

Arabiako haizeak, belar zoroak  
freskatzen zituen  
hik eskuaz nere oinazeak  
jabaldu hituen.

hiri zahar honek  
ateko gizonak  
munduko gauz onek

irria  
negarra  
gutizia  
beharra  
bizia

gal arazi zizkiguten

haize orroak  
belar zoroak  
isil arazten dituen eran

(Hiri hau zein zen ez dut jakin ahal. Ordea, uztail baten 7koa denez, pentsa dezakegu Irunea dela. Baina zoazi jakitera han ranparrik badagonez.)

Kasu  
ni otsoa nauzu:  
eman ondoan musu  
usu hain usu  
gose handia baitut  
gordin gordinik  
iretsiko zaitut.

usu hain usu  
kasu !

hion: zakil  
zion: makil  
hion: bular  
zion: axular

hion eta zion  
gu bion zorion  
zorion

( Textoak pixka bat aldatu ditut, euskara batuan emateko. Segur naiz, alfer-regi zinatekela Amikuzeko edo nere herriko mintzairaren ulertzen hasteko eta irakurtzeko )

erradazu mutil  
maitatzen nauzula  
ez nadin inutil  
erradazu mutil  
gaur nahi duzula.

egidazu maite  
ibilaldi hura  
arren etor zaitte  
egidazu maite  
iturriko ura.

emadazu bero  
 mihisen partean  
 horrela gauero  
 emadazu bero  
 arrosen artean..

( Hona zati delizius bat; poetaren sentimenduak hitz gutitan agertzen zizki-  
 gu, eta ederrago baizik ezda, naski. Obra honek urtearen edo egunaren xehe-  
 tasunik ez dakar. Zorigaitzez, ez dezaket ezer zehatzagorik azal.)

Zoroak bere buruari  
 "hots, egizak hila  
 egizak hila  
 badituk mila "

zoroak berea hartuz  
 egiten du zalu  
 xoxo kantarian sartuz

airea jakin balu  
 " egizak hila " zionak...

( texto honetan, nik ez dut deusik konprenitzen.....)

jakin banu  
 aintzinetik  
 ate honen hausteak  
 min emanen zidatala,  
 segur  
 Mariaren gisan  
 ez nintzen  
 sartuko  
 eta  
 ez nuen sartzera utziko.

Barnean ordea  
 hara honaraka  
 berotasun zilegia,  
 atea hautsi eta  
 su borrobil hauen  
 inguruan eskuak ibiliz  
 bihotz nekatsuen

pausatzea,  
 atsedena  
 barnean ordea.

ahal banu  
 ( eta Mariak jakin balu )  
 ate hori aldi oroz hauts nezake  
 loreen desloratzea gustazen zaion batekin.

( Hona azken zati bat: poeman dagon Perutxo hori ezaguna omen zen Amikuzeko eskualdeetan. Baina ez dakigu zein herritakoa zen, edo herrikoa berekoa bazen zein etxetakoa. )

Perutxok arroltzeak  
ederrak baditu:  
oilo beltzak berdinak  
egiten balitu  
tanke haren uzkerak  
litzazke kalitu.

Berak berarekin  
ditu erabiltzen  
plazagainko atsoak  
dirade isiltzen:  
Perutxok neskatilak  
oro ditu biltzen..

Diote borrobila  
kuskuan huts dela  
hortik dator neskatxek  
ez bada ustela,  
arroltzeak moletan  
maite dituztela !

Hemen duzue, XIXgarren mendeko poeta ezezagun baten mundu sensuala, eta goxoa. Gaxuxa KAKOLIK ez zuen nihongo kasetetan idatzi, eta horregatik daiteke hain gordea egon ; kasik ahantzi batugu...Baina justizia egin dezaiogun..

Jasta itzazue, Gaxuxa KAKOLIREN poemak, kantariak kanta eta besteek bihotzez prezia. Nik behintzat, ohorez beteko dut haren gogoa, bi arrazoinengatik. Lehenik, emazte idazlea izan zelako, gauz araroa euskal herrian, eta bigarrenik nere herria bezalako herri arkaiko batean bere ideien eta gostuen arabera bizi zelakoan..

Datorren MAIATZEN zenbaki batean, segur meneko dituztan dokumentuak ( textoak eta poemak ) agerraraziko ditut..Laster arte orduan....

# euskal herriaren edripena

eder da  
euskal herriaren euripean,  
busti eta disdiratsu;  
ura hosto legorretan  
urre eta zilar  
kantaka lerratzen da  
euskal herriaren  
euripean.  
hor gaude.

helburutik ezeko bide hutsetan  
gabilitza ilunabar umietan  
euskal herriko kaletan  
bizkaian edo nafarroan,  
patxaran basoak edanez kuraia hartzeko  
euri ttorttak, zigarretak eta ogitartekoak  
erdizka partekatuz  
euskal herriaren  
hor gaude  
euripean.

uda batetako lagun beroak  
eta maitasun joanak  
ele zuhurrez aipatzeko,  
patizerien aintzinean pasatzean  
sartzeko eta zerbait Chantillydun  
militatuz iresteko prest,  
ostatuen ke pizu eta malinetan  
itotzeko, mundua asmatzeko  
euskal herriaren  
hor gaude  
euripean.

ahantzi nahi dugu  
beharrezkoak ez garela,  
zainetan buru gibelatik  
sua bezala erretzen gaituen  
heriotzerako gutizi nagia...

euskal herriaren  
hor gaude  
euripean  
kafe azkarregiek aho zokoan  
uzten duten gustu beltzean,  
eta Caporal tabakoaren usain  
segitzaleen lainoan galdua  
adiskidantza baino gehiagoko  
zorotasun debaldezko batean.  
hor gaude  
euripean  
euskal herriaren.

euskal idazle aspergarriek  
ez ote dituzte nehoiz  
maitasunezko kantu  
amultsuki landuak  
zure bihotz handiari  
hitz kokinez zuzenduko,  
goizetan, arratsetan  
kafe beltza edatean  
kearen borrobiletan  
zeru sakon lasaier  
amets egin dezazun...

JO EZAN, JO...  
Maya-ri eskainiak,  
1982.ko abenduan.  
XX.garren mendeko poeta klandestinoak.

jo ezan, jo...

euskal idazle aspergarrien  
burutazio nekeak  
askatze eta fedea  
konpokartean jotzen dituzu  
jo... jo... jo... behatz trebeak,  
goizetan, arratsetan  
kafe beltza mahainean  
eta  
zigarreta sutan  
eskuan galdua...

Itxaro Borda

"Arkaitz ta sasi besterik ez zan  
itsas-egi muritzera  
etorri ziren gure aitonak  
bizitzetxea autatzera."

ORIXE

# Eden

MAITE  
BESTEAK BARATZE PERDE-GORRIXKETAN  
PAUSATZEN DIRENEAN  
GUK PARABISUTIK KANPCAN IBILIZ  
OINAK ERHAUTS GEZEZ BETEAK BADITUGU,  
ZER AXOLA ?

HEMENGO  
ONDAR IDORREAN  
HARRI GAZIKU

IRATS HORIXKA

BELAR MOTZ

UR SAMINEN ARTEAN

DA GURE BARATZEA.

OGIBI TA PALMONDOAK  
DEBEKATUAK BAZAUZKU,  
GUREAK  
LARRE UBELA  
SASI BELTXARANAK  
BASA IGALIEN MAMI BIXIA !

HEMEN  
GURE AHOETAN  
BASARANDREN GOZOA ATXIKIZ  
ONDAR LATZEAN ETZANDAK  
MAITE  
ITURRI FRESKOA  
BILATUKO DUGU.




# Dezimaketa

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi... Hamarretarik bat, itsura hautatua, hiltzera kondenatua, gaineratiko bederatziak lagunaren tiroz eraitera. Hala ziren ordenak. Bi soldadok hamargarrena besoetarik hartu eta herrunkatik atera zuten. Aitzindaria berriz kondatzen hasi zen. Piarresok begiak zuzen aurrean iltzaturik zeduzkan, baitzekien, kondaketa horren aitzinatzeke gutizia bizi, menderagaitza, ez bazuen estekan atxekitzen, hara, ezkerretara, eginen zuen lehen mugimenduan, harenak egin zukeela.

Gorputza hotzak bainoago beldurrak zurrundurik sendi zuen. Zurrupitaka jaisten zen euri hormatua, xortaka, emeki-emeki, begitaratean beheiti zerion, ezpainetaraten zitziolarik areagotzen baitzion oraino, aho-mihitan nabari zuen gostu karats zurmindua. Barneak alha zitzaizkion etxean izan zen azken aldian, bere erabakiari segitzeko aski bertute ez ukanik. Sarako bazterrak agertu zitzaizkion begien aitzinera, eta haiekin nahasteka, elkarren gainka, lagunen gorputz hil xehakatuak, asalto bano bezain absurdo haien ondotikako guda eremu milaka hil hotzez josiak, gerla erregelak hautsiak izan ziren arratsalde hartan ezagutu alemanen begitarteak, amarena ere, eta aitarena, etxea.

Hiru hilabete lehenago egon zen Iriartean. Mendixka baten maldan eraiki etxe handia zen, Lapurdin anitz ikusten diren horietarik; aitzindegia arraitsua, gisuz zuritua eta zur luze mehez gain behera gorriaz marraztatua; azpian, sabel ireki bat bezala, lorio zabala. Gibelean, larriun ageri zen, egun hartan, goiz erditsuan hara heltzean, lainoek kasik osorik iretsirik baitzedukaten. Ez zuen iduri, hainbeste hilabete gerla zela



kausa etxekeenganik urrun egonik, eta orduan lehen aldiz itzuliz, iguriki zitekeen bezala, bozkarioak gaindi egiten zuela haren baitan. Aita gizon alto azkarra izaganatik, tipiskoa zen Piarres, eta mehe, itxuraz nola izatez franko ahula, zain eta gemen gutikoa bestalde, soa tristeziatz eta etsipenez betatzen zizkioten begi gris busti batzurrekin. Ile beltzarana kalot urdinaren azpian gorderik, are zorrotzago ematen zuen betile usuen azpitik erortzen zitzaion sudur luze meharrak. Matel hezurrek bi koxkor egiten zizkioten, begiak, barnago sartuz, goibeltzenago baizik ez zizkiotenak; ezpain zerratu saihestarik beheiti zihozkioei aldiz, kontrastez bezala, halako bortitz aire bat zemaieten, hala nola batzutan norbaiten potretetan puntu, xehetasun zenbait hunkiz, haren itxura guztia aldaratzen baita.

Urrats pausatuz jin zen etxeraino, Donibane Lohitzuneko tren geltokian atzeman lagun batek, zerri baten xerka Garakotxenera ari zenak, Sarako plazaraino ekarri ondoan. Handik oren erdi baten bidearen egiteko oren bat luzea eman zuen, ahalka izan balitz bezala soldado jantzitan etxekean aitzinean agertzeko. Hain segur, aurreko negutik urte horretakora hango bazterrek ganbiamendu guti ezagun zuten; Piarresen aurpegiak berriz gizonarentzat urte guztiek berdina kondatzen ez zutela zerakutsan. Hogeita zortzi urte zituen noiz eta ere, hamaika hilabete lehenago, gerlarako deia jaso baitzuen. Aitzinago, gerla hasi zelarik, deputatuaren laguntzari esker, eta etxaldean gizonak behar zirelako eskudantziatz baliatuz, piska bat gibel arazi ahal izan zuten egun hura, baina laster estakuru hori, eta asmatu beste gisa bereko batzu, ez ziren aski izan. Piarresen orduan mugaz haraindira pasatuz ihes egin zezakeela pentsatu zuen; bera

ondoko zela-eta horrek etxeari on baino makur gehiago ekarriko ziolakoan, aitak ez zion onetsi haatik, eta semeak ez zuen eskapurik izan. Egia erran, gogotik joan ez bazen, ez zitzaion hala ere hainbeste gostatu, satisfos izan baitzen gisa batez, orok aipu zuten gerla hori zuzen zer zen jakiteaz; beharbada, zenbaiti trufa eta ele gaiztoak sartaraziko ere zizkien medaila edo fama zerbait bildurik han? Funtsean, biziak ez bazion ordu arte fagore berezirik eskaini, ez-behar usaiaz kanpokorik ere ez, hori jada handi baitzen hura bezalako laborari seme batentzat, zeinek oraino, apaizek baino gehiago amak hala erakutsirik, zorrigaitzak, Jainkoak lur honetakoei igorri zigorrada merezitzat baitzeduzkan.

Gerlan iragan azken lau sasoinak arras bestelegatu ez bazuten ere, marka agerikoak utzi zizkioten kanpoz bezainbat barnez. Joan aitzin zen baino gazteago egiten zuen bere haur bisaiia zimurkatzen hasi zitzaion, ber denboran zituen segurtamen gehienek kordokaldi bat ecerra jasaten zutelarik.

Bidean, 1917eko urtarril hartako eguzki zuriak perekatzen zituen hango bazterrei so egon zitzairen bizpahiru alditan, flash-ka heldu zitzaizkiola burura, hiru egun lehenago utzi beste toki haietako burrunba, sarraski irudiak, odol isurtzeak. Harago, lainoen artetik ageri ziren mendi kasko elurrez-tatuei gain jartzen zitzaizkien, satsutzen eta lohitzen zituztelarik, zorneztatzen.

Hamaika orenak irian zatekeen Iriartean sartu zelarik. Inor ez zuen ikusi korralean eta ama izan zen ohartu zitzaiona, borta pusatu eta urrats bat aitzinago bere puskak lurrean pausatuturik gelditu zenean. Supazterrean zegoen, bitan plegaturik, laratzean bertza dilingan eman beharrez indarka ari. Ile urdindua motto batetan garondoan kurubilkatua, urteen joateak eta akidurak matatu zioten aurpegia eskuinera itzuli zuen norbait sartu zela konturatu zelarik. "Hi Piarres?", galdatu zion harriduraz. Segundu luze batzu, elkarri beha egon zitzaizkion, elerik ezin eginez. Piarres hurbildu zitzaion eta besoetan elkar hartu zuten, poxiño bat hozki eta herrenbelki ordean, ez baitziren jestu horiek etxeo ohituretan. Besarkatze isilaren nolabait hausteko, amak gose zenetz galdegin zion: "Xingar eta arraultze erreko haut".

Piarresi ez zitzaion hitzik jalgitzen. Bere neguko so in gaineko pizu, belauenez beherago jaisten zitzaiona, kendu ondoan, kadira bizkarrean eman zuen. Leher egina zen, hiru egunez lo guti eginik, tren ez ibilirik. "Aita egur pikatzeraz gana dudarik gabe?", galdatu zuen zerbait errateagatik. "Ez, ez. Goizean goizik ihizira partitu duk, Hargaineko Martinekin. Xuriko ere haiekin gana duk, bertzenaz abertituko nindian ba, etortzen hintzela. Badakik, ez hindugun batere igurikitzen". Eta solas haria ez moztearren segitu zuen: "Bidaia ongi egin duka?".

Ez ama, ez semea, ez ziren gerlaz mintzatzera ausartatzen. Piarresi Baionarainoko itzulia eginik sartzen zela iduritzen zitzaion. Etxeko gauzak ez ziren batere aldatu; armario zaharra aitatzik Harretxeneko Jamatiten osabari egin arazi ziona, hor zen, haritzez egin mahain handia ere haren aitzinean, biek aspaldi hasi ele isileko elkar hizketa segitzen balute beala, mundua zapartatzera zihoan denboran orobatasun geldienaren lekuko.

"Luzea, luzea...", ihardetsi zuen Piarresetik, ahapetik mintzo bailitzan.

Aita arratsari buruz sartu zelarik lo zen Piarres. Pausatik jaikitzean ukan zuen aitarekin, han sutokietan, hainbeste



aldiz bere artean errepikatu zuen solasaldia. Ezkaratzean ziren, aita dailuaren mehatzen ari, semea haren ondoan aizkol gider hautsiaren konpontzen. Piarresek indar bat egin zuen, zintzurra gagoturik bezala zedukon gorapiloa bortxaz jauzaraziz, lehen hitzen kanporatzeko:

" Ez naiz hara itzuliko. Ez dakizu zuk zer den hangoa. Ezin sinetsia duzu gizonaren abrekeria...."

Aita isilik zegoen, mailuz kaskaka, dailu lanpustua -ren, jo-burdinari kontra zanpa eta zanpa, zuzentzen. Adinarekin, hari ere, eskuak, begitartea bera, kamustu zitzaizkion.

" Funditua duk arras hau. Ez dakiat ez dutan bertze bat erosi beharko."

Galdez zegoen Piarres bere baitan, aitak aditu ote zuen. Joka aritzetik geldituz, dailu mutistuari grimasa bat eginez so egiten zion. Piarresek isilguneaz baliatuz segitu zuen:

" Espainiatik laguntza zerbait helarazten ahalko zaituztet benturaz."

Aitak idor-idorra: " Ez haiz ganen. Nork har lezake ondotik etxea ?". Eta mailua harturik, joka hasi zen berriro.

Piarresek bazekien zer aterako zion aitak. Lau seme alabetarik bakarra zen etxean geldi zitekeena. Hirugarrena zen, baina anaia gehiena, bihotzak huts eginik, supituki hil zen hiru urte lehenago, arreba zaharrena, haurretan bigarrena, Zugarramurdin jada ezkondua zelarik. Beste arreba berriz, aitzineko urtean serortu zitzaion. Biga bostetan itzulika erabili zuen arrazoinamendu hau, gerlako arroil-erreketan, egunak eta egunak, kanoi hotsen artetik, gerlaren zentzugabekeriaz jabetuz, handik nola atera gogoeta ari zela : gisa guztiez hil zitekeen han, are hutsago gelditu baitzen etxea orduan ... Ez zen aitarekin eztabaidaka aritzerik ordean. Hark zihoala manatzen zion, gaineratiko Jainkoaren eskuetan utzirik.

Aizkora altxatu eta egur baten erdira jo zuen. Aita bere lanari jarraiki zitzaion.

Hiru hilabete iraganik, horietaz orotaz oroit zen orain Piarres. Erreximenduko gizon guztiak goizeko bost orenetan lerroka eman arazi zituzten. Preso hartuak izan balira bezala, beste soldado anitz inguruan ezarriak zituzten, armak haieri buruz altxatuak. Martxoko goiz ilunean, euria burrustan ari zuelarik, aitzindariak, dena iestu, dena oihu, hara hona zebiltzan, mari-oneta fantastiko batzu iduri.

Damuaren horzkidura. Beldur antsiaren karraskadura. Gorputz tink ukabil egina, barnetik dena ikara sendi zuen Piarresek. Odola uhaldika zebilkion, hezurak kiritzen zitzaizkion, zainak jauztekatzen, hesteak iraukatzen Pis beroaren izterretan behera isurtzeak, ausiki bat, ezti lasaigarria, pereka bezain gozoa, egin zion, bere baitaratu zuena.

Bat, bi, hiru...Hurbiltzen ziren. Oraingoan jakinen zuen. Ezetz erran zion amari oihukatzen entzun zion eskariari : ez zuen otoitz eginen. Bidegabekeria zeritzan lagun eretzean, hil ala biziko zozketa horretan azpi jokotan ari izateari. Zazpi, zortzi...beldurrak nagusiturik, Jainkoari deika hasi zitzaion uko zegiolarik horrela, bi segundu lehenago gizontasunez hartu nahi ukan zuen deliberoari. Bederatzi, hamar. Aitzindariari zer-razkion bi soldadoek ezkerreko laguna hartu zuen. Beste bi etorri ziren eta kondaketa berriz hasi zen..Bat, bi...

Begiak oihal batez tapaturik, haienganik dotzena bat urratsetan, pazet bati estekatua, han zen orain fusilatu behar zuten laguna. Eskuak dardaraz arma altxatu zuen Piarresek. Oilar gaxetaren zapaltzean aita bera tirokatzen zuela iruditu zitzaion.

# aita

Arbola baten azpian, jarririk egunkariaren irakurtzen ari naiz, noiz eta haur boz batek erraten baitu:

- "Baloinean jostatzera heldu zara ?". Mutiko tikia da, zazpi urte inguru, aurpegi sinpatikoa, ile hori, kizkurak.

- "Ez diat gogo handirik", diotsot, piska bat ezbaian egon ondoan.

- "Domaia da !"

Bizkarra ematen dit eta emeki baloia zangoz pusatuz, urruntzen da. Haren proposamenak piska bat harritu nau. Gaixo mutikoa, iduri du enoatzer dela. Ez da engoitik jende handirik tenore honetan oihanean, inor ere ez baitu i-kusten inguruan, arimarik ez.

Egunaren akabantza da. Gauaren freskura senditzen hasten da. Egunkaria-  
ren irakurketa bururatuxea dut, noiz eta boz berak erraten baitu:

- "Gose naiz"

Mutiko tikia eneganik metro batetan dago, zango ezkerre baloianaren gainean pausatua.

- "Hire gurasoen xerka joan behar huke", diot. Begietan behatzen nau. Bat- batean irri karkailaz hasten da.

- "Zer gertatzen zaik ?"

Haren irria doi bat nardagarri egiten zait. Egunkaria plegatzen dut, altxatzen naiz, blusoineko zerradura goititzen.

- "Bainioak ! Agur."

Hala ere dudatan nago joan ala ez joan. Ez dezaket alabaina hor bakarrik utz.

- "Ez haiza aitamen xerka joaten ? Amarekin jina haiz hona ?"

- "Baina, aita, elkarrekin etorriak gara !"

So egiten diot mementu bat, elerik ezin eginez. Ez du gehiago irri egiten. Begiak inozentki enegana pausaturik dauzka. Ahalik eta goxokien mintzatuz, galde hau egiten diot:

- "Eni didak aita erraten ?"

Antza denaz, interes guti du harentzat ene galdeak.

- "Bagoaz ? , dio, hotz naiz."

- "Nora deabru nahi duk joan gaitezen ?"

- "Etxera !"

Abantzu oihuz mintzatu da, ene egon moldeak sumintzen balu bezala.

- "Beha ezak hona mutikoa. Ez hadila asalda, bestenez ni ere haser-  
ratuko nauk. Prest nauk aitamengana segitzeko, baina non diren erran behar  
didak. Hire adinean, ez haiz hihaur jin, dudarik gabe, oihanera ? Erradak,  
bada, norekin etorri haizen."

- "Zurekin, aita !"

Ero ote da mutiko hau ? Adin horretan ero izan daitekea ? Joku zerbait ote da orduan ? Zer joku, ordean ? Esplikabide ximplea behar du honek: oihanean galdu da, eta beste inor ez baitzen, enegana jin da.

- "Goazen hortik, diot. Beharbada norbait atzamanen diagu."

Ene gibeletik ibiltzen da, ez aski fite dudarik gabè, zeren noiz behinka lasterka aditzen baitu.

- "Benturaz hemendik hurbil bizi haiz. Hihaur jina haiza oihanera?"

Baloia beso ezkerrearen azpian atxekitzen du, esku eskuinean arbol adarska bat dauka.

- "Zerbait ihardets ezak !"

- "Aita, hotz naiz."

Iduritzen zait besoetan har nezan nahi lukeela. Blusoina kentzen dut, eta sor-  
baldetan ezartzen diot.

- "Ez diroat konpreni, zergatik aita erraten didaan, diotsot, ez na-  
uk hire aita. Hogei etabi urte ditiat. Hogei eta bi urtetan ez naitekek hi  
bezalako mutiko handi baten aita izan, ulertzen duk ?"

Berriz abiatzen gara. Inor ere ez dakusat. Zer eginen dut haur horrekin? Gu-  
rasoak etxeratu bide dira. Polizia ere abisatua dukete.

- "Non bizi haiz ? Karrikaren izena ezagutzen duka ?"

-" Rue Moreau", diost, doi-doia entzun daitekeen boz batekin. Balinbada ez da tronpatzen. Moreau, iduri luke karrika izena dela.

-" Ongi. Taxi bat hartuko diagu".

Azkenean bide gudroinez tatu batetara heltzen gara.

-" Aski diagu orain beha egotea", diot. "Akitua haiz ?"

Buruarekin baietz erraten du. Bidez beste aldean xaradiak segitzen baitu, hara so dago. Zer eginen dut etxera sartu eta ? Arraultze-moleta, eta gero ohera. Laneko gogo aski baldin badut, literatur ikaskizunak arrapasatuko ditut. Irratia entzunen dut. Gostuan egonen naiz ohean. Bide bazterretako gauargiak piztu dira.

-" Nola duk izena ?", galdatzen dut.

Haren baitan zerbait gertatzen ari dela senditzen dut, ezpainak piska bat dardaratzen zaizkio; horra, enegana lehiakara heldu da, baloia lurrera erori da, bere bi eskuez azkarki tinkatzen nau, beharbada nigarrez ari da ? Ileak perekatzen dizkiot.

-" Ez didak heure izena erran nahi ?"

-" Baina, aita, badakizu !"

Bai, nigarrez dago. Taxi bat, azkenean, gelditzen da. Baloia biltzen dut, mutiko tikiak eskutik hartzen, eta autoraino lasterkatzen gara.

-" Rue Moreau ", diot.

Batere ez dela edo ezagutzen ez duela erraten badit ? Ez du deusik erraten, autoa abiatzen da, hobeki jartzen naiz aulkian, lasaiago senditzen naiz. Ipar aldera jo du, Saint Mandé-ra buruz, gero perefierikoa hartzen dugu, eta iparrerantz segitzen. *Porte des Lilas*-en periferikotik jalgitzen gara, enparantzari itzulua ematen diogu, eta Parisera sartzen. Mutikoa leihotik kanpora so dago; galdatu nahi nioke: " Ezagutzen duk ?", baina ez dut deusik erraten. Eskuinetara jo dugu, karrikaren izenaren irakurtzera saiitzen naiz... Moreau karrika da !

-" Non da hire etxea?"

-" Han, ibil zentzu debekatua den tokian."

-" Ibil zentzu debekatua den tokian geldituko zara", diotsot txo - ferrari.

-" Entzun dut", erraten du.

Bastiza modernoa da, dorre bat baino piska bat tikiago. Ez nintzatekeen harritu, poliz auto bat aurkitu bagenu karrikan, txakurrak etxeko atarian, gizon bat pijama soinean beharbada. Inor ez da.

-" Zein estaiatan da ?", galdatzen dut.

-" Bosgarrenean."

Hemen berean uzten banu ? Bera igaten uzten banu ? Ez dut gehiago zer eginik hemen, ez dut haren gurasoen ikusteko gogo mikorik, ez zer gertatu den kondatzeko denbora galtzeko enbeiarik. Ixtorio horrek askitto iraun duela iruditzen zait, etxera sartu nahi naiz. Akitua senditzen naiz, ene ahalez goragoko indar bat egin ukan banu bezala, ene borondatea baino areagokoa ere. Neure burua engainatzera utzi ukan banu bezala.

Neure burua mutikoari behatzetik begiratzen dut. Ezin jasanezkoa zait haren presentzia. Eskua gogotik bihurtuko nioke. Igangailuko atea irekitzen dira:

-" Izan gaitzen", diot.

Jada igogailuan da. Nik dut beti baloia atxekitzen. Bosgarrenerako botoina zapaltzen dut. Bihotza zalapartaka ari zait.

Helduak gara. Mutikoa tarrapatuta aterantz doa, txirrinaren jotzeko zango puntetan altxatzen da.

Emazteki batek irekitzen du. Gaueko atorra briolet lili zurizatua du soinean. Ile kiribilatua. Begitarte polita. Berrogoi bat urte beharbada. Haurrari musu arin bat ematen dio.

-" Goseak zareketé", dio soilik.

Iduri du ez zaidala ohartu. Atea irekirik utzirik, mutikoa darraiola, aparta-  
enduaren barnera sartzen da. Hor egoten naiz, saloin zoko bat ikusten dut, kutxa zahar bat, tapis xuri bat. Beha egoten naiz instant bat, eta gero, burua atetik pasatuz, dei egiten dut:

-" Otoi, anderea!"

Heldu da.

- "Joan behar dut, anderea... Eskerrak bederen ematen ahal zenizkidan !"

Irri eragingarri zaiola iduri luke.

- "Zergatik eskerrak ?"

- "Ohartarazten dizut, deusek ere ez ninduela zure haurraren ekartzera obligatzen! Dakizula, badut beste egitekorik."

- "Otoi, utzak komedia hori !"

- "Zer komedia, anderea ? Baina zer komedia ?"

- "Ez ezazala oihurik egin, auzoek adituko gaitte "

- "Berdin zait. Eta nola zatzaizkit eni toka mintzatzen ?"

- "Aski, Xan, otoi, aski"

Urrats dudakor beldurtiz eneganantz aitzinatzen da.

- "Ene izena ezagutzen duzu ?"

- "Bistan dena, Xan"

Beharbada, amaren lagun bat da, aspaldi-aspaldi ikusi ez dudana lagun bat? Idē-ia hau jiten zait: haurra sistematikoki oihanean uzten du, eta aldi guztiez, etxera ekartzen dion gizona alegia ezagutzen egiten du. Nondik asmatua du ene izena ?

- "Ez al gara hobeki izanen barnean eleka aritzeko ?"

Berdin deus galtzekorik ez dut hari jarraikiz. Ene izena nola igarri duen jakin nahi nuke. Sartzen gara.

- "Jartzen ahal haiz", dio.

- "Zergatik toka ari zatzaizkit ?"

- "Ez diat uste sekula eztabada ari izan hatzaidan, ez eta lehen aldiz elkar ezagutu dugunean."

- "Segur haiza jada elkar ezagutu dugula ?"

Horra orain irriz hasten baita, oxtion haurra bezala, irri sarkor osorik i-harrausten duen bat. Burutik badu, ez daiteke bestela, eta haurra ere burutik maingu duke.

- "Segur nauk, bai. Segur baino segurago !"

- "Ero zara, burutik eginik zaude!"

- "No erraten ahal didak ! Hamabost urte ezkondurik egon ondoan, hika mintza gaitzek, dudarik gabe!"

Gure solasaldia jostagarri zaiola iduri luke. Bere umorea eta irriberatasuna ene baitan ere piztea erdietsi du.

- "Hamabost urte badu ezkonduak garella ?", diot. "Luzexko duken, benturaz ?"

- "Luzea duk, bai."

- "Eta oro har, elkar ongi aditzen dugua ?"

- "Hein batetan. Ez duk sekula kalapita gogorrik gure artean, hori erran nahi baduk. Hi, heure aldetik bizi haiz, ni neuretik. Ez diagu gauza handirik partikatzen."

- "Zer didan zuzen erreportxatzen ?"

- "Familiako bizian ez parte hartzea. Patrick-ez okupatzea gertatzen zaialarik, bost minuturen buruan zainen gainean haiz. Ezdeuskeria bategatik erasiatzen duk: jostailuak barnebidetan altxatu gabe utzi dituelakoan, dutxulua ongi hetsi ez duelakoan, arropak aski fite jantzi ez dituelakoan. Bakean utzi hintzagun nahi huke. Kasik sekula ez diagu hiruek elgarrekin jantzen.

- "Agian, haur bat baizik ez dinagu..."

- "Bai"

Zigarreta bat piztu du. Haren begitartea berriz seriostu da. Franko akitua iduritzen zait.

- "Noizpait ezkontzen banaiz", diot, "dion bezalakoa izanen naiz beharbada. Baina ez dut batere gogorrik mementuko, ez dut haurrik izateko gutziarik, ez eta haien altxatzeko lanean aritzera obligatua izateko enbeiarik!"

Ez dut balio ene izena nondik ezagutzen duen berriro galda diezaiodan. Ezkonduak garenaz gero, normala dela erranen baitit ! Izena itsura bota du, eta igarri. Izen aski komuna da. Benturaz haren senarra ere, haren haurraren aita, Xan deitzen da. Liburutegiko atal baten gainean, berrogei-berrogei eta bost urteko gizon kasko soil baten argazkia dakusat. Hura da benturaz haren senarra. Utzia duke, beste emazteki batekin joana dateke; beharbada, besterik gabe, bera bakarrik bizitzeko joana da. Horrek bide dio honi zentzua galarazi. Topatzen dituen gizon guztiak senartzat dauzka, Xan deitzen ditu, toka mintzatzten zaie. Argazkiko gizonak aurpegi aski arrunta du, betaurrekorik gabekoa, bizar gabea. Jende askoren egitea du. Haren adinean nik ere haren antza ukanen dut beharbada. Ile galtzen hasia naiz jadanik. Gaixo emaztekoa... Ez naiz erratera benturatzen, egun batez ezkontzen banaiz, ene adineko neska batekin eginen naizela, ez berrogei urteko emazteki batekin.

- "Alo", diot, "daukat aski irau duela joku horrek. Etxera sartuko naiz."

- "Eta non duk etxebizitza ?"

- "Place d'Italie-ren ondoan bizi naiz, sehi ganbara batetan... Fakultatetik ez sobera urrun."

Ohearen gainean jarririk egon da. Ohartuki obserbatzen nau.

- "Zer izen du karrikak ? ", erraten du.

Zergatik egiten dit galde hau ? Matelak sutan ditut, azterketa pasatzen ari banintz bezala. Nonbait ene baitan, ene baitako zolan, ate bat danbaz hetsi da.

- "Zergatik galde hori ? ", diot.

- "Hola... Ez haiz hartaz oroitzen ?"

Ongi ikusten dut bizi naizen karrika, eliza kantoinean, *Aux as du Volant* osatu taberna, garajea... Arbolak badirena ? Bai, badira, ezker aldetik. Golpez izena gogoratzen zait:

- "Rue Solferino", diot

- "Ezagutu hindudalarik hor bizi hintzen", erraten du. "Ganbaraz pisika bat oroit nauk. Paretetan paper liliztatua bazuan, ez al da hala ? Ohe tiki-tikia zuan."

- "Han bizi naiz oraino, Andèrea", diot. "Hona giltzak".

Gakoak erakusten dizkiot. Eskua dardaraz ari zait, itsuski.

- "Hemengo giltzak dituk", dio.

- "Non da bainugela ? ", diot.

- "Gaixo Xan..."

- "Non da bainugela ?"

Ene galdea bitxi kausitzen du.

- "Barnebidean, lehen atea", erraten du azkenean, boz unatu batez.

Barnebidera oldartzen naiz. Atea irekitzen dut. Komutatorea itsu mando-koa xerkatzen dut. Atzematen.

Ikuzkonketaren gainean miraila bada. Ene buruari behatzen diot... Horren nintzen beldur : argazkiko tipoa da.

AITA

VASSILIS ALEXAKIS-etik itzulpena

BENAT OIHARZABAL

Mila bederatzirehun eta hirurogeitemertziko Gabonetako gauean bururatua.

# Añarrosa

AÑARROSAK ESTALTZEN ZUEN OIHALARI ZIMURRAK KENDUKO ZIZKION ETA HANKAK GORDETZEKO AZPIKO BAZTERRA BEHEKATUKO ZION, IRRIÑO GOZO BATEKIN, MUSU IXILA EZPAINEZ IGORRIKO ZIDAN ETA ATEA ALTXATUKO ZUEN.

"JESU KRISTO SALTZEN ARI ZARA ! ODOLTZE HORI GURE ETA ELIZAREN KALTETAN IZANEN DUZU !"

HOGEI XINGLA HARTUKO ZUTEN,  
BATZUTAN IZANEN ZIREN OHOINTZAK, OHATZE EGITE BAKANAK ERE..ASKOTAN ALDIZ, EMATZE BATEK MATHIASEN MANUZ JANTZI BEHARRAK IZANEN ZIREN MANTAR-ZAIAK AHAZTUKO ZITUEN..GIZONEK ERE OIHAL URDINEZKO GALTZAK JAUNTZI BEHARKO ZITUZTEN,BAINAN KARMELDARRAK ZUHURKI BEGIAK HERTSIKO ZITUEN, GIZONAK LARRU HUTS IBILIKO ZIRELA ETA.

Manex ELIXONDOren  
 kondaira honen  
 emaitza egin zigun  
 gure aita maite horri

## I. Ega Tefe

Nekez aurpegi horretatik nire begiak urrun nit-  
 zakeen...Haatik, meza zikin hark nik so egitekoa bazuen :  
 zurezko aldare bat, lur hutsean ezarria, bilgien hegi—he-  
 gian motz-motz, lau ezko; oroz gainetik, Kristo bat, zein-  
 nen odol margoa bipiltzen baitzen.

Berriz ere, oihal xuriaren azpian makurtutako aur-  
 pegi horretara joaten ziren nire begiak...

Boz mehez apezak salmoak kantatzen zituelarik ;  
 ezkerrean, koroa mugatzen zuen zur gorrizko zerrailuaren  
 kontra finkatuz, atorra zikin eta galtz morroskoz estalita-  
 ko Indiano batek inarroska organo bateko biradera itzulika-  
 tzen zuen..

Bainan Añarrosaren orrazearen bila nindoan. Or-  
 ganoak emeki hots iraunkor batzu sudurretik botatzen zitu-  
 en eta berehala akordeak zirimolutzen; edo hots mehe darda-  
 rikatu akitu bakar bat, zeinek holako organoek hazilaren  
 arrats lainotsuetan kantatzen zuten Europako karrikak or-  
 roitarazten baitzizkidan; bihotza orduan hertsatzen zitzaidan.  
 Indianoak, gogoia erautzirik, lurra harrapuluxkatzen zuen, oin  
 hutsekin.

Lehen aldikotz ikusten nuen neska xarnegua, bai-  
 nan seda beltzezko gona zabaletan - denak xori-lili - zur-  
 rundutako hiriko andreek baino gehiago unkitzen ninduen .  
 Haiek bezala, Añarrosak meatilla estalgi luzea zuen, zeinen  
 zati bat buruaren gainean itzulitakoa kapusail ordain bait  
 zegoen. Gerria aldiz mehatxa zuen, baita esku beltz-hori  
 luzeen mehetasuna hunkigarria ere. Miranha indiana baten  
 alaba zela banekien; guztiz, São João do Príncipe-raino mi-  
 sioneari segituko zitzaiola eta hilabete iraunkor batzutaz  
 elgarrekin biziko ginela.

Nire eskuinean, Manolok niri so egin zidan, eta  
 irri-karkaraka hasi zen. Nik berriz apez goibelari: jende-  
 ketara besoak luzaturik bere kasulako gurutze histua ager-  
 rarazten zuen. Eliza honetako argi soberakinak; bizkarzur-  
 ren artetikako pixa-koloreko lastoaren azpian, ozentasunik  
 gabeko liturgia kantuen eta erdi-itzalik ez bazter-argirik  
 gabeko ohidurazko keinuen ihakinezkotsu idorkeriak laidot-  
 zen ninduten.

...BEREHALA INDIANOAK LEHERTZERAINO BELAUNKA EDO  
LOTAN IBILKI IKUSIKO ZIREN. KARPALDERUNTZ HERRI-  
XKA ONDOTIK IBILIKO NINTZELARIK, JOSE HIPAKA AUR-  
KEZTUKO NUEN, ETXOLA BATEN ZOLAN.

" FUSILAK! -ERABAKIKO ZUEN GUISCARTEK- FUSILAK !  
BEHARBADA IKUSGARRI GAITZAGOA, BAINAN HIL DEZA -  
KETELA IKUSI BEHAR DUTE INDIANO "

"EGIAZ, JEAN, FEDEDUN KARGUA AHANTZUA DI-  
ATE XURIEK.  
POPULU ZAHARROK FUNDITU ETA GAIXTATU DI-  
TIA TE. GATILUTARA BAT TAFIA TRUK, INDI-  
ANO BATZU HERRESTAKARI IKUSTEN DITUDANE-  
AN, EDO JABEAREN ZOROKERIA AZPITIK ES -  
KARNIATZEN DUTELA, EDO XINGLETAN NIGAR-  
REZ, MIN EGITEN ZAIDAK, JEAN, HERSTURA  
LOTZEN ERE...  
HOLAKORIK EZ ZUEN JESUSEK NAHI. KABAL  
GEZURTI BELDURTIOK EZ."



Bestalde, fededun saldo bitxia zegoen: nire aurrean, alki latzetan jarririk, Ega-Teffe-ko kardugun nagusiak, bai poliziako maiora ara bat bezala urdin-hori, bai armadako buruzagia urre-berde, bai miliziako agintaria zilar-berdezko galoindun, bai bakezko juja, bai bere ordaria bai eskola-emaile konkorra, burjesak ere bai: lau lerro purtzukatutako blusa xuri, oliba-kolorezko lepo-gibel, ile kizkurtu, gaineko arraza eta larru hautatuaren agertze.

Abantailatuotan nengoen. Nire ondoan, Manolok, Espagnol jostakinak, bere itxurra ederra, txaleko ubel-urdina eta mairu-zapiengatik dohatsuak irriño bat zegien. Behin ere ez zuen so egiten bere eskuinera, nun Raoul Guiscart zegoen zut-zuta jarririk, frantses armadako "voltigeurs" direlako kapitain jauntzi batetan. Manolo eta bioi "Normand" kokots-musin, "à l'imperiale" sudurpekodun, ezpain-peko bilo-multzodun hori higuigarri zitzaigun..

Gure atzean, zurezko portalez harainditaraino lur beltzean belaunikatutako Indiano ile-legundun ostea zegoen.

Eliza honetan, ez zen dena zikina, leihoetarika-ko hiru zero lodi urdin-urdinezko zati zabalak, urre-er-rautsezko iguzki adar luzea, emazteen meatillen girgileria organoaren xotinak eta apezaren boz mehea zonbaitetan gainditzen zituzten elizerditik zehar ainara sabel horidunen ttiuntak, hegaldakatzepinpoilakgatik.

Alabainan, Añarrosaren orraze beltzaranaren bila nindoan....

Bat-batean, ikusi nuen Prai Jose predikalki-ordain zen zurezko kaxari buruz zihoala. Indiano-xarnegua hau ere; aurpegia biribil eta ezti; begiak zabalegi, baldokietara luzatuak; beti harrিতua itxuraz. Organoa ixilik zegoen, oihal zimurtu hotsak gelditzen ari ziren, eta azkenean maila zinkuri-mindulinetan behaztopatzen zen fraide gaztearen urratsak entzun ziren. Azkeneko, bisian-bis agertu zitzaigun, begiak hutsak, tipustapaska begizpalak zituela, jende zelatariari osoki emana zitzaiola. Zureria aztaparkatzen zuten haren eskuak ikustean, min hartzen nuen. Bere ezpainak bizpahiru aldiz bihurtu ziren, eta guregana makurtu zen:

" Senideok, azken aldikotz mintzatzen natzaizueke, eta zuen zuzenki agurtzeko, ez dizkizuet maitasunezko hitzak baizik esango.

Senide xuriok, zuoi jabeltzen natzazue, Jesu Kristo geure Jaun odoltsu eta gozo horren itxura ekarri didazuenoi ! Ez dizuet izan nahi neure errokideen boza baizik, emaitza mirengarri honentzako esker hoberenekoa baizik..."

Gaixo Jose maitea !

Zure ezin agortuzko karitatetikako hitz zintzoak ziren haik. Bainan, hogeitau urte geroxago, berriz lau lerro lepo-gibel asebate haik ikusten dizkizut neure orduko okanahia berriz ere nireganatzen dizut. Armadako buruzagiari lepozainak kanporatu zaizkio, bakezko jujak buruz baia ematen dizu, eta, nire aurreko burjes batek alkiaren gainean ipurdi mingarria lerraratzen duelarik, errient konkorra, matrailak eme-emeki mugituz, bere haundi-nahia ausnartzen ari duzu.

Alabainan, zeure lotsa eta pairakuntza erraite-

"ONA DA GIZON XURION JAINKOA. HAREN APE-  
ZARI MINTZATU ZAIO. HOBEN GUTIEN DUTENEI  
BARKA ZIEZAIEN MANATU DIO. BI GUDARI HA-  
UK BAKARRIK HILEN DIRA. BESTEAK LIBRO!"

"NAHI AHAL DUZU, SENHOR ELIXONDO....  
NAHI BADUZU....  
HEMENDIK HURBIL DAGOEN AINTZIRA BATETA-  
TARAINO ELKARREKIN JOAN BAGINTEZ ZORION-  
TSUA NINTEKE...."

"BESTEAK BEZALA EZ HENGOELA BANEKIEN...  
BAI, MANEX MAITEA, LEHEN BAIT LEHEN JO-  
AN GAITEZEN!!!"

ZUMALAKARREGIK IRRIPAR EGINEN ZIDALA IDURITUKO  
ZITZ AidAN.

ko bihotza laister izanen duzu zuk, eta aldare-bazterretik begiratzen ari zaizun Prai Mathiasen bekainak zimurtuko dizkizu.

"Oren batzuren buruan, abiatuko gara, amodiozko gate horri erraztun eratzikitzeko....."

Hori konparaziona, Jose ! Xarneguren errebeskeriaren fama izanen duke!

Jaungoikoa lagun, berriz ere Gurutzea São João do principe-n altxatuko dugu, bainan ez dut ongi hel gaitezen Hari galdegin nahi, Hark baizik ez baitaki geroko arrazoinen eta Bere eskuinean gauzkanon berri. Otoitz ordean elkarrekin dezagun hasarre-gorroto zernahi mota gure bihotzetik bazter dezan, baita gogortasun-arrangura zernahi molde ere.

"Egia esan, Jaunak bidalitakoen sarraskitzeak eta Gurutze Sainduaren errotik egiteaz oso-osoki hobendun izan ziren Indiano haik !

Bainan beldur naiz ez ote dituzkegu hilketaz hilak, mendekioz harrokeria, hasarrez sentimendu gabekeria ordainduko ?

"Senideok, erruki zakizkiete, ez baitakite zer egiten duten ! Zuek aldiz, Kristauak zaretekeela, Jaungoikoaren aurrean zeuen gain hartuko dituzue zeuek egindakoak!..."

Joseren boza, bat-batean azkartu-eta, elizan zehar ozenduz geroz, azken hitzekin hautsia zen. Haren eskuak, airea tinkatuz geroz, emeki berriz zurezko aldamuratzen ziren. Nire aurreko lau xuriak daldaraka ari: Armadako buruzagiak mehatxatzeko gisan, kokotsa aintzinatzen zuen, erriente gorputzaren xutitzen entseatzen zen, oliba-kolorezko lepogibelak urdintzen ziren. Ez nion Prai Mathiasen begiratu nahi, bainan Añarrosen orrazearen bila nindoan: zainak airean seda zimurtzen ari ziren andereen gibelean, Xarneguen lerroetan, kopeta beheiti, oraino apalki zegoen.

Oraindik ere entzun zen Joseren boza, erlatsa -goxe, isiltasun bat-batean sakonduan etsituki bakarrik:

"Ni nago zertako ote gurekin harmadun batzu ? Apezek baizik ez bailukete maitasunezko mezua zabaltzen ibili beharko, esku huts urrikaridun apez mila bidez kolpagarriek...."

Bat-batean, Joseren begi goibelak nire bila ikusi nituen, eta haren ezpainak barkamendu galdegiteko irriño bat egi ten ari, harmadun batzuok ez baikinena nihaur, Manolo, Guiscart eta dotzena erdi bat brasildar soldado besterik ! Berehala Joseri irriñoa itzuli nion. Gero, ahanztua nuen Indiano osteari begiratzeko gibelaintzin itzultzen nintzelarik, João, Prai Mathiasen itzaleko xarnegu gure gudaldikidearen begi hasarreen aurka jo nuen. Hementxe zegoen, nire gibel-gibelean, eta haren herra-mesprexuek oraidino sentitu ez izateak harritzen ninduen.

"Jaunen Jauna, martirioa galdatzen dizut ! Estira eta heriotzea eman otoi iezazkidazu, ezen ez ..."

Hiru ehun buru, orduan, Prai Mathiasen boz ozenak lehertu berri zuen zokora makurtu zen:

JAUNTZI ARINA KENDUKO INIOLARIK, EZ NUEN HAREN  
AURPEGIA IKUSIKO, BIZKARREZ ARGIRA IZANEN BAIT-  
ZEN.  
PAPO XUMEAK IZANEN ZITUEN ARGITSU, TONTORREN IN-  
GURUAN.  
SABELEKO EREMU EZTIA DISTIRANT IZANEN ZITZAION  
XOKO DOI-DOI ITZALTSURAINO.  
IZTER GAINEAN ARGIAK URKA ARINA MARREZTUKO ZION.  
NEURE ESKUAREN PEAN PISKA BAT FIRFIRA EGINEN ZU-  
EN LARRU SAMURREZKO BIDE LUZEAN SARTZEN ARIKO  
NINTZEN.  
HOSTO USAIN HURA IZANEN ZUEN.  
NEURE LEPO-GIBELEAN HAREN BESOAREN TINKATZEA ETA  
HAREN HATS ALDIZKA BAHITUA ALA BAKETUA ERE IZA -  
NEN NITUEN.  
LUZAZ BEGIZPALEK ATXIKIA ETA AZKENEAN BILDUA, HA-  
REN BEGIETAKO ARGI ILUNA ERE IZANEN NUEN.

"ZER DUN ? "

"EZ ZITZ Aidan  
KONPRENI-ERREX...  
SORGIN NAGUSIAK  
BURUZAGI XURIA  
IKUSI NAHI DUELA  
USTE DIAT....."

" Senideok, aski dukegu Jaungoikoak kausitzea eman diezagun otoitz egitea. Harek manatu ziguna egingo dugu guk. Ez dugu geure harrotasunari Haren nahikundeari baino jarraiki nahiago. Zuen otoitzek lagun gaitzate lanjer-egunetan zehar. Jaungoikoak Bere konfiantza eta laguntza gorde badiezazkigu parrochia berri bat eta eliza berri bat laister poz-pezik emango dizkiogu. Amen."

Jose orduan jar-alkitik jausten ari zen, bizkarra makur, zu rezko mailetan behaztopatzen .

Añarrosari berriz ere so egin nuen: Burua lehen aldikotz altxatua zuen eta kurutzeko kaperara joaten zen fraide gazteari tristeki begiratzen zion.

Elizatik ateratzean, Eguzkik Amazonetako gauza atxikitzen dien argi liskatsua eta aintzira beltz lodia, basalt-harri bat bezain dir-dir eta geldi-geldia atxeman nituen.

Oilo beltz batzuk zangopilatzen zuten belar gorrixkazko enparantzaren erdian, zut-zutik zegoen odol-kolore gurutze haundia.

Portu ondotik, ara urdin-gorri bat garrasika lasterkatzen zuen zakur batek.

Nire gibelean, lasto edo teilatu hirurogei etxe horikailen lerro ikur-makurraz haraindian oihan muskerra, husgunerik gabekoa, iparraldean eta hegoaldean aintziraren hegietaraino zabaltzen zen.

Kasik ixilik, oin hutsek belarrean xirrixt, Indianoak elizatik urruntzen ziren.

Jauntto kalakarietatik berezi nintzen, Añarrosa iragaiten ikusi nahi nuelako.

Harritua izan nintzen haren orrazea ikustean:hamaika urte honetan nire gogo-ametsetan atxikia nuen haurkide baten itxura zitzaidan. Euskal Herri urrun hartan egon Margaita hartaz ez nekien deusik, amets harkor eta etsimendu buhada batzu izan ezik.

Gostaia gusta, Añarrosa bisian-bis ikusi nahi nuen, atxemana izan nintzen: eitea osoki galdu zitzaidan, goibeldura apur bat baizik ere; Atxemana nintzen, lasaitua ere bai. Zenbait urrats urrunago, haren orrazeak bihotz-zimikoa bihurtu zidan. Irri-karkaraka nire beha zegoen Manolorengana joan nintzen.

Zer egin dugu gero, gudaldia abiatu aintzineko orduetan ? Ez dakit gehiago. Handik hogeitertietan, nire orroitzapenetatik ordu batzu, egun zenbait, galdu egin zaizkit.

Elgarrekilako bazkaria gogoratzen zait: karkaila eta oihi kartsu batzu hala-hala berezi nitzakeen burrunba bihurtu ziren nire inguruko solasak. Hausberoz, kafe eta kakao-ondo lansalekuz mintzatzen zen. Ezkerrean, burjes lodi gantzadun garsoil batek, begiak dir-dir, Raoul Guiscarti adierazten zion zonbatetaraino aberatsa zen Mura indianoek bikari-erretoreen hiltzearen aintzineko São João do Príncipe. Hiru urte geroxago, Prai Mathias buru, hura beregiten entseatuko ginen. Prai Jose, lau indiano mintzakeren berri bazekiena, Santa Maria de Belen do Para-ko apezgaitegian ederti sainduak eta farmazia ikasi zituen mediku eta itzultzaile genuen .

Lan egiteko, baita herrixka...populukatzeko ere bi pare indiano hiritar, João, Prai Mathiasen "tapuya", Añarrosa eta azkenik, beste neska bat, Rufina, Mura xarnegu ezin ederragoa omen zena gurekin erematen genituen.

"FUSILAK !"  
ERABAKIKO ZUEN GUISCARTEK.,  
"FUSILAK ! BEHARBADA IKUSGARRI  
GAITZAGOA, BAINAN HIL DEZAKETE LA  
IKUSI BEHAR DUTE INDIANOEK."

"RUFINA ! PUTA LIKITS! ITZUL ! "  
OIHUKATUKO ZUEN MATHIASEK. ORDUAN, GUISCARTEK:  
"EZ! ASKI ! BI EGUNEN PRESO-GELA ,  
JAN GABE, NAHI BADUZU  
JAN GABE, NAHI BADUZU."

KONFITEOR ONDOAN, KREDOARI LOTUKO ZITZAION PRAI  
MATHIAS. PATER NOSTER BAT ERRAITEN ABIATUKO ZE-  
LARIK, JOAOK HILGO ZITUEN.

Raoul Guiscart nor zen ? Asmatu ahal izan nuenaren arabera, Estatu Batuetarako frantses ordezkari talde militar batetan izanez gero, liskar-lapurkeria-bortxatxe batzuren ondotik ihes egin zuen...Gero, bizpairu urtez trafikatu Estatu Batuen eta Mexikoren arteko mugan, azkenean Brasilen hondartu, Estatu Batuek Kaliforniaz jabetu eta... Frantses armadatik ihes joaile horrek bere kapitain-jauntzia irabazia ala ebatsia ote izan zuen Jainkoak daki!

Buruz-buru egin izan genuen Belen-en, goberna - doreak, larru xurizko gizon menturatsuz goseak, laister engaiatu gintuen.

Ni neu, Manex Elixondo, Baionako Euskalduna, (ar basoak Giputz, Nafar, Lapurtar ) gazte-gaztetan armategi batetan aprendiz izanik, Zumalakarregiren karlistentzat arma-kontrabandan ariz geroztik, Frantzia-Españaiko polizetatik urrundu beharra izan nuen. Herritik doazen Euskaldun guztiek bezala, Montevideora jo izan nuen, nun dohain ez irabazi askorik gabe, ilekia, larruak, zer - nahi azkenean saltzen ari izan bainintzen. Urte gehiegi honetan, Ameriketan gaindi ibiltzen nintzen. Manolok nihork ez zekien deus.

Etzan-aldia joanda, tapuyek puskak eramanez, ur beltzaren hegian, Indiano ostea jadanik gure zai zegoen buztin gorritzko bazterrean bildu ginen. Ega-Teffe-ko erre-toreak, goizean meza eman zuenak, salmo batzu kantatu zituen eta berriz ere entzun nuen horradino pirritarazi zen biraderadun organoa. Bainan, aire geldigeldi horretan, neuririk gabeko zeru haren azpian, hotsak soinu-untzi batenak bezain mehe, garratx bihurtzen ziren. Aintzinean nuen Rufina, zeinen gerri malgua, bular nasaia eta ezpain lodiak ez bainituen kinka txarrik gabe miresten.

Oroz gainetik zegoen Añarroza. Haren aurpegian, kirrikatzen eta biltzen ninduen itxura iker nezakeen. Bisian-bis ere bai, han aurkitzen nuen miragarri, hiskor; begispalak altxatzen zituenean, begiak zabaltxo, kasik ninkorik gabe beltz-beltzak zituela.

Gu eramateko hiru egariteak orduan benedikatzten ari zen apezka. Enbor bakar batetan moldatutako untzi luze barnekorrak ziren. Jadanik zeuden arraukariak, soinak gorrixka eta galtzak oihal urdinezko; baita untzi-zaina, giblean, aterbe izanen genuen palma xirikordatuzko pabillunaren gain-gainetik.

Armadako buruzagia hegi bazter puntaraino aintzinate eta, geldirik, ixilik zegoen. Nik aldiz, behin eta berriz tipust-tapast itzultzen nintzen, Añarrosaren begiek berehala ihes egiten zidatela ikusteko.

Mutiko joko hori atsegingarri zitzaidan, bai; ez nituen batere usnatzen helduko zitzaizkigun egun izigarriak. Azkenean, benedikatu gintuen apezka, eta untzian sartu ginen.

Armadako buruzagiak eskuina gogor altxatu zuen. Ur beltza zartarazi zuen hemezortzi arraba; Iguzkiz urtzen zuen herri horiari luzeki so egin nion, gero inguruko oiha neko harresi muskerrari.

JARRAIKITZEKO...

Bihurgune bat, M herriatik ateratzean, normala. Ontsa ezagutzea hobe dukana, parrekoaren jo egiteko arrisku zozo bat baitik. Gainera, gauaz ene otoko argi txarrek doi doia erakusten dien bat. Kondatzen deatan hau gauaz pasatu zukan. Alabainan, beti gaua diat lana trenkatu orduko. Bai, berdin udan ere...Bistan duk. Ene oto tresna txar hunek beti bezala argiak makur eta oker ditik. Altabada erosi nuelarik ba zian orainartekoek baino molde planttakoño bat.

Beti bezala, arastiri hortako orduak partida ditiat lanetik ateratzean. Beste egun bat joan zaukula. Beste bat eta nagok hea ene akidurak dautan ene baitan sar arazten sineste ttipiek egun ttipiak daramaztela. Bego, gauaren amentza anartean enetako baita.

Aaaa !! Dirdiran, hurbil hurbilak, bi gauza ene argi mehatsen puntan. Bat batean, izigarriko bultzada bat ene baitan senditzen diat. Ezker aldeko bi puntu horik, gatu begi batzu dituk. Gatu bat bide bazterrean lehertua. Beste hainbeste bezala. Ez duk halere beste zombait bezala itsuski lehertua. Badakikan bezala badituk batzu xehakatuak, odol, hertze, buru fuiu eta denak nahas mahas barreaturik.

Hunek kaska soil bat hartua likek. Bihurgune txar huntan herrian den sargune hau harriskugarria baita, gatuentzat ere. Itzuli motz bat. Usalarekin hargatik fiurikan pasatzen ahal dukana. Ni baino lehentxago norbait pasatua zukek, arras berriki lehertua iduri baitik gatu horrek. Gatu xuri eta beltza, ilea dirdiran, gatu pollita.

Eta hor geldi geldirik zukan. Ez egun batez P hirlan ikusi nuen gatu hura bezala. Bide bazterretik nindabilian eta oto arrasta batekin kaska bat entzun nian. Eta gatu bat orroaz ari tripatik ur xurruta bat bezala zariolalarik piziten balu bezala eta lurrean zukan, bere burua itzul inguruka, gorputz guzia ikara basa batek joa. Oroit nauk harriturik egon ninduala eta, gatuaren itxura gogoan itzaturik, joan ninduala urratsa luzatuz eta itzuli gabe. Agonian utzi nian gatuak geroztik bi gogoeta egin arazi zizkiatan.

Eta bi argi horiek ...Bi begiek eni buruz bota gezi horiek gogoan alan jartzen nie. Bat bateko holako gertakariak burua pizten zaitaie .. eta bat batean karkulan nagok nolaz holako dirdira duten. Norbaitek errana zautak noizbait gatuen begiek beren baitarik argitzen dutela, bainan ez diat hori sekulan segurtatu ahal izan, liburu batean edo bestela. Erranen dautak ene otoko argiek argitu dituztela, ba, bainan zoin pe-

kronika aberezalea 1

indietako

exarpa

xuri



treilak dituztan balio dik ikustea. Gero, argi konzentratze bat begiek egiten dutela hain segur hala zukek. Funtsean, kanika forma bat die lehen, ene haur denborako bide bazterretako ageri emaitetan bezala. Ba zukan preseski ene etxeko ondoan halako hiruko bat zeta batekin ; bihurguneak erakusteko eta zeta horren eremuan kanika batzu ezarriak zituan. Gauaz, argitzen zitean oto bakanen argian, gu miretsiz. Horko gatuaren begiek bezala. Ba, seguraz ere, begiek duten ninikaren kanika esferikoak hori ekar lezakek : mirail efetu bat. Esferoen geometria laketak erakusten duen isladatazko legea.

Efetu beldurgarri bat zukan : gauaren erdian, bizi hil batek botatu dei bat bezala ! Oroit nauk, gau batez ... oo aspaldi duk. Izan ninduan mendi xoko batetako etxe batetara joaitenko ahalarekin. Aste bat lagun batekin, eta zer astea ! Urriko euriak, jauts ahala, gelditu gabe ari izan zituan aste guzia, eta zer haizea ! Halako bakartasun batean ninduan ezagutzen ez nuen etxe horren barnean. Zerbaiten bila ninditakeian orduan ene ezin biziaren baldintzak kanbiatu nahiz. Eguneroko gataska, lan eta neke bideetarik urrunduz...beste lilluraketa bat. Bai, zinez, bazter urrunak zituan, mendi mazelatean, G herriaren auzoan. Sekulako gaztain ondoz inguraturik etxe bakartiar bat zukan. Ba zitian auzoan etxe huts abandonatu batzu. Urteak eta urteak gaztainak nehork ez zituela biltzen. Eta ere mahasti sasituak ! alimaleko sasiakin bainan hala ere mahats molkoz beteak. Laparren erdian, haien biltzea zer atsegina... Oroit nauk ere orduko sendipen batzuetaz, hala nola iduri zitzatan mahats biltze horrek bazuela hautu peningarri baten itxura bezala. Batzu baizik ez bainintuen biltzen ahal. Eta ondo bildu bakar haieri bizia emaiten nielako usterkeria bat bezala nian. Leku horien heriotzaren kontra ez nuela deus egiten ahal, jestu bat baizik, ene ahale ez deusa erakusten ziatan jestu mugatu bat ...

Gau batez, jeiki ninduan, haize eta euri zirimolek atzar arazirik. Sukaldera joaitenko, etxe guzia trebesatu behar zukan. Hango etxeak ez dituk bat ere hemengoak bezalakoak. Iduri die herrixka bat. Ba, zinez, lau bost etxe bat besteari lotuak balire bezala. Lehenagoko egoitzen eta bizi moldeen araberakoak, dudarik gabe. Leku pataratsuak dituk eta hortako ere, behar bada, eremu zabaleko etxerik ez die egiten ahal. Itsumandoka beraz abiatu ninduan, gauaren erdian, zeren eta barne batetik bestera joaitenko argiaren pizteko botoinak xekatu behar nintian. Gainera, leku horri ez ninduan oraino trebatua. Funtsean, hala nuk, denboraaunitz behar diat leku baten ontsa

beltz

bat

bezala

ezagutzeko. Gauza horrek beti harritu nik zeren eta zombait, aldiz, berehala bazterrak beren baitaratzten ditie... Beraz, ibilki ninduan loz ere erdi itsumandoka sukaldeari buruz. Gainera, gauak, bakartasunak eta denboraren marrumak, ene baitan, halako ximiko bat sor arazten zitean.

Sukaldera heldu eta, ur xorta bat ekar arazten diat errobinetean eta oroit nuk baso bat ezkerreko eskuarekin hartua nuela. Gogoetan ari nindukan nola joan zen egunean ura nekez heldu zela errobineta hortarik... Burua altxatzen diat berinari buruz. Aaaa !! Dirdiran, hurbil hurbilak, bat batean, bi argi. Bi argi gauean, berinaren gibelean euri uharrek urtu berinek haundituak bezala. Oihu bat bota nuela oroit nuk. Aaaa !! Bizidunik izan zitekela ere pentsemak ez nuela usterik eta izigarriko punpakoa ene bihotzak egin zikeian.

Aaaa !! Bi begi horiek, bide bazterrean etzanik ! Gauaren erditik horiek ere. Urrungo beldur bati deika iduri. Gaua, beldurra, heriotza, denak hor bat batean. Berritz.

Bihurgunea laburra baita, bi begi horiek laster gibelean ditiat.

Bainan buruan, hor ditiat, bi itze distirant horiek.

Gero diat pentsatzen gatu lehertuak bide bazterrean uzten dituztenak arras gogorki jorratzen ditzutala. Zer egin behar nian ? Gibelerat egin, jautsi, behatu hila zenez ? Hala izanez, auzoko etxera ekarri ? Bederen bide bazterretik kendu ? Ez diat holakorik egin. Hor utzi diat. Akitua nintzelako estakuru lizun bat ene buruan pasa araziz. Eta gatu hori, duela oren bat, norbaitek perekatua zukeela...

Biharamun goiza. Ahantzixia nian. Halako beldur batekin bihurgune hartara heltzen nuk. Nola ikusiko diat ? Han dea beti ? Hor duk, Perekatua zuketzen gaixo gatu hori hor duk, saltsa beltz eta gorri bat iduri duela. Doi doia baizik ez zioiat behatzen ahal. Bainan gogoan fotoa atxikia diat. Orai ere erran nezakek nolakoa zen : ageri zian buru lehertua eta sabel zartaturik hertze ta haragi xehakatuak... Aldi huntan ere ez zian hain aspaldi eginā. Ni pasatu baino lehentxago. Masakrearen ondo ondotik pasatzen nuk.

Gaixo gatua, ez dik halako pereka gogorik sortzen orai. Heriotzaren arpegi izigarria baizik ez dik. Orai hasten ahalko dituk jaten bai ulitxak, uli beltzak, garratoinak eta beste, lana errextua die.

Norbaitek hortik kenduko dua ?

Aratsa. Ahal bezain laster pasatzen nuk, ez diat ikusi nahi. Min diat. Gaixo gatua.

Biharamun goiza. Bat baino gehiago gainerik pasatu zaizkiok. Odol gorri hura beltzatu zakok. Forma zerbaite ageri duk hala ere. Nehork ez dik hortik kendu gorputz xintxifikatua.

Johan zituzkan egunak eta egunak eta beti hor ikusten nian. Egun batetik bestera lehertuago, janago. Axal xuri eta beltz bat baizik kasik ez zuan ageri. Eta, gainerik, beti, goiz eta arats otoak eta kamiunak. Norbaitek orduan baizik ez balu ikusi, zer zen ez zian erraiten ahalko. Zinkinkeria bat balitz bezala.

Euriak eta eguzkiak ere beren obra egiten zitean. Hunek xuri, besteak idor eta erre. Harrek eta besteek ginarri, muina eta barneko guziak janak zizkateian. Hezurak errota azkarrek puruskatuak.

Egon duk luzaz hor. Nik ere ahanzten nian batzuetan zer zen hori. Gertatu zatak ere pentsatzea egun batez, lehen maite nian norbaiten indietako exarpa xuri beltz bat zukala.

#### EGUTEGI HUTSA

utzi eta egunen zerrendak  
oroitzeak ile xuriak ditu

hor ziren gau guziak  
belar epel eta irriak  
etsipenaren euriak ere

eta zuk  
goizeko lehen izpiak ere  
ez dituzu ikusi

egunak  
batzuetan kondatzen ditut

83/115<sup>a</sup>

# Sua

Aita gizon.  
Ama hotz.

Alkar maitasuna  
laztanez egina;

Hotza erditu zen,  
zu sortu.

Sua jaio zinen.

Zira,  
lapur,  
hiltzaile,  
oker,  
eta neguak  
egin zaitu ederra.

Ez dezu  
ispilu beharrik.  
Maite zaitut dantzan  
nere eskuetako harritan.

# Gizonen baratzean

Ixiltasuna beharda  
gizonaren baratzean,  
goizean goiz somadezain  
barurik; errotako ura.

Uraren soinuak  
ikusiko du  
maitasunaren eskuak  
biziaren ogia onatzen.

# Pota

Herriz herri  
ari naiz  
zoriona saltzen.

Hankak ditut  
harripeak bezala,  
eta eskuentzat bularrak.

Batzutan bihotza  
lokatzaz betetzen zait,  
eta nere ibilkerak  
nahiak agertarazten ditu.

Aski luzea naiz  
begietan ikusteko,  
eta aski laburra  
irainak biltzeko.

Garia erein dutenentzako  
sedak kentzen ditut,  
eta ogia erosteko  
estaltu osorik.

Ni naiz amodio  
debekatuaren ohea,  
eta ardoaz nahastutako orhoipena.

# Gizona

Gizonaren erditik  
sortzen da  
eman nahia.

Egiz,  
oso,  
sakon,  
bero,  
onregatik gizonen  
zinitzen dut.

Naiz eta erditik  
kanporako bidean,  
egia gezurtu,  
osoa zatitu,  
sakona arindu,  
eta beroa epeldu.

# Eztia

Negarrez ari zen  
eztia goiz baten.

Ezin dut izan semerik,  
bizi naiz alperrik.

Besteak gozatu,  
hortara naute makurtu.

Lehen nintzan lore gaztetan,  
orain ahoz aho penetan.

# Zigor

# Otsoa eta hora

OTSOA ETA HORA  
JEAN LOUIS DAVANT

Otsailan oihanetik jalgi zen otsoa  
Gosez amikaturik. Ote zen osoa ?  
Nolaz herratu zen ja gure herriraino ?  
Horren ezin xuritutuz ari naiz oraino.

Errebidean zuen ibilki topatu  
Zakur haundi gizen bat. Eta hor zer egin ?  
Ausiki batez nirok urka plazerekin  
Ahuldurik ez banintz. Behar diat zentzatu.

Agur, jaun eder, agur ! Zure kara ona  
Miresten dut. Neronek zure zoriona  
Jasta niro gogotik, eskola nezazu.

To, nik bezala egik, ez duk ez nekezu  
Nagusia zerbitza, haren peko izan  
Beti gantzutuko hau tresna onen gisan.

Baina herexa hori zer duzu golkoan ?  
Nehoz ez nuke nahi sokarik lepoan.  
Urinez ito baino, hobe mehe bizi.

Oihanean otsoa ihizin dabila  
Aldiz hora estekan dago erdi hila.  
Zakur hainitz badugu eta otso gitxi.

Jean de La Fontaine-ren aroan gisala  
Zangoak lau zituzten, orain ez bezala.

J. L. Davant

Donibane-Garaziko haur txar bat nintzalarik, ene ama-  
txiren etxetik intzuten ahal nintien, goiz-arrats tirahala  
kantuz, bi dendari mutxurdin, debru zaharra mihian zutenak.  
Lapurtarrek ziren, eta beren euskara ederrak errekesta han-  
dia zien Garaztarren artian. Haurren katiximak, meza libu-  
riak, eta kantikak oro, etzirena lapurtarrez ixkiatiak ?  
Jaun Erretorak ere, bere predikalkitik etzena lapurtarrez  
ari igande guzietz ?

Beraz, nahi edo ez, ikasi nien emazte horien ahotik  
hemen aipatuko dutan kantu bat. Bainan ez nien uste biziki  
zaharra zela, beharbada mendez-mende herriko kantariak be-  
rritzen baitzuten lehengo euskararen itxura, bakoitxak bere  
aldetik. Egun ahatik, iduritzen zaut, olerkiaren eta musi-  
karen arabera, hamabost edo hamasei mendeko usain bat badio-  
la :

1-. Haste-hastetik, kantu hortan agertzen baita Mont-  
pellier-ko Uniberzitiaren fama handia, Salamanka-koa bezan  
ontsa ezagutia baitzen lehen. Badakigu, bestiak-beste, han-  
go medikien eskola mundu guzian aipatia zela. Eta Frantzian,  
hamasei garren mendeko idazle bat, François Rabelais, etze-  
na preseski hantik ateratu mediku ?

2-. Kantu hunek ezagutarazten baitauku fraide ahalge  
gabeko bat, arrunt lizunkeriarri emana. Ez dea hori ere, Erdi-  
Mendeko marka bat ? Frantzian segurik, denbora hortako idazki  
zonbaitetan, badira naski delako "moines paillards" batzu,  
eta nornahiri irriak lotarazten dituztenak.

3-. Bertsu horietan, antzerki jostagarri zaharretan be-  
zala, jende gaixtoek biltzen baitute azkenian sekulako za-  
fraldi bat makil ukaldika. Berdin ez direa bururatzen Fran-  
tsesek deitzen dituzten "farces moyenâgeuses" horiek ?

Zorigaitzez, ez niz aski jakintsun kantu hunen musika  
hemen eratzkitzeko.

1

Fraide txar batek jakin zuen  
Etxekandre bat gaizki zela,  
Haren senarra hor ez baitzen..

Kyrie, kyrie,  
Haren senarra hor ez baitzen..  
A la mezon,  
Kyrie, eleison !

2

Agur Madama ! Hunat jinik,  
Ikasi dut eri zarela,  
Bai eta ganbaran bakarrik...

Kyrie, kyrie,  
Bai eta ganbaran bakarrik,  
A la mezon,  
Kyrie, eleison !

3

Senarra dizit Montpellier-ren,  
Ene sendatzeko urketa,  
Ez baitzaut sekulan itzultzen...

Kyrie, kyrie,  
Ez baitzaut sekulan itzultzen..  
A la mezon,  
Kyrie, eleison !

4

Ez baduzu Jauna zurekin,  
Oi Andere maitagarria,  
Nik artatuko zaitut berdin...

Kyrie, kyrie,  
Nik artatuko zaitut berdin..  
A la mezon,  
Kyrie, eleison !

5

Gaizo senarra, Montpellier-tik  
Heldu zen arrunt leherrina,  
Sendagailuak ekarririk...

Kyrie, kyrie,  
Sendagailuak ekarririk,  
A la mezon,  
Kyrie, eleison !

6

Haren beha zagon bidean  
Etxeko mutil azkarrena.  
Zer da berri gure herrian ?..

Kyrie, kyrie,  
Zer da berri gure herrian,  
A la mezon,  
Kyrie, eleison !

montpellier-ko sendagailuak

7

Etxekandrea, gau guziez,  
 Fraide batekin ohatzen da,  
 Zuretzat otoitzak eginez...  
 Kyrie, kyrie,  
 Zuretzat otoitzak eginez,  
 A la mezon,  
 Kyrie, eleison !

8

Harritzen naiz !.. Ez dut sinesten  
 Fraideak sendatu duela,  
 Hor nintzalarik eri baitzen...  
 Kyrie, kyrie,  
 Hor nintzalarik eri baitzen,  
 A la mezon,  
 Kyrie, eleison !

9

Beraz, etxekoen ixilik,  
 Ikusiko duzu ganbara,  
 Saksi handi hunen barnetik...  
 Kyrie, kyrie,  
 Saksi handi hunen barnetik,  
 A la mezon,  
 Kyrie, eleison !

10

Nausia sartu zen saskian,  
 Bere mutilak ekar leza.  
 Ereman zuen bizkarrian...  
 Kyrie, kyrie,  
 Ereman zuen bizkarrian,  
 A la mezon,  
 Kyrie, eleison !

11

Xixto huntan dautzut ekartzen  
 Xoriño bat ixil-ixila.  
 Hasten balinbada kantatzen...  
 Kyrie, kyrie,  
 Hasten balinbada kantatzen,  
 A la mezon,  
 Kyrie, eleison !

12

Emaztea ohean zagon,  
 Fraidearekilan etzana.  
 Xoria kantuz hasi zakon...  
 Kyrie, kyrie,  
 Xoria kantuz hasi zakon,  
 A la mezon,  
 Kyrie, eleison !

13

Hortan, saskitik ateratuz,  
 Nausiak makil ukaldika,  
 Fraide ta andrea zanpatuz...  
 Kyrie, kyrie,  
 Fraide ta andrea zanpatuz,  
 A la mezon,  
 Kyrie, eleison !

14

Nor da nausi etxe batean ?  
 Iduri du senarra dela,  
 Izanikan ere saskian...  
 Kyrie, kyrie,  
 Izanikan ere saskian,  
 A la mezon,  
 kyrie, eleison !

Borroka edo ez, Frantses idazlek, anitz ixtorio irri-egingarrietan, erakusten dauzkute gizagaizo batzu, erranez "cocu, battu et content" direla. Kantu huntan ahatik, ikasi dugu Euskaldun Jaun bat bederen ez dela segurki kontent "cocu" bilakatzen delarik !..

Bainan, bada beste argibide bat jakiteko nuntik heldu ziren mota hortako bertsu zombait. Badakigu gure arbasoek jostatzen zirela ezin gehio, eskandala bat gertatzen zelarik herri batian. Berehala, gazte guziak debrjak hartiak ziren, besta jostagarri bat behar zutela egin, hala nola : toberak, tutak, eta galarrotzak... Hantik laster, igande eder batez, denak agertzen ziren herriko plazan, jantzariekin bai eta bertsulariekin, erakutsi nahiz zer pentsatzen zuten "afera" hortaz. Azkenian, bixtan da besta bururatzen zela irrietan ... edo aharretan ! Beraz, nik uste dut hemen aipatu dutan kantu hori, hola sortu zela lehen, ohidura zaharreri esker.

Geroztik, ez dut sekulan intzun kantu hori, ez eta ere leitu liburietan. Beraz, beti nago zer debru izan behar zen delako "Fraide txar" hua. Iduritzen zaut Frantximenta edo Kas-koina zela, "Agur Madama"... horren gatik, eta bereziki kanta-riak errepikatzen baititu ele bitxi horiek lelo nausagarri bat bezala : "A la mezon"... edo "A la maison"... Hala izanik, hemen ere ez dea ageri Frantses hizkuntzak etziela errekesta handirik gure aintzinekoen artian ? Ez baita atzo sortia Euskararen eta Erdararen borroka !



Txipi ARBELBIDE

1681-1981:300 urte hil zela Olze apezpikua. 300 urte hil zela Baionako azken apezpiku Euskalduna. Urte muga hori ixil ixila pasatzera utzi behar ote dugu ? Huna bederen zenbait lerroz izan den apezpiku Euskaldun hori.

Jean D'Olze, Iholdin sortu zen, 1600 irian, Olzoko salan. Ama, Ixabel Etxauz, Baigorriarra zuen, Bertrand Etxauz, Baionako apezpiku izan ondoan, Tours-eko apezpiku nagusi izan zenaren arreba.

Adinean han harat joana eta, Baigorriar apezpikuak laguntzat hartu zuen Boulogne-eko apezpikua. Apezpiku bat behar zen beraz hiri huntan; bere ilobarentzat ardietsi zuen apezpikutegi hori, 1632ko agorrilaren 8an. Jean d'Olzek hogoi eta dotzena bat urte zituen, arras gaztea, eta ez zukeen parrochia batetako lanaren ezagutza haundirik, ordu arte bere osaba apezpikuaren sekretario egona zenaz gain.

Etxauz apezpikua, Louis XIII frantziako erregearen omonieretarik bat zen; beraz haren adixkidetarik. Iloba ere bai: ondoko egunetan Boulogne baino diosesa aberatsago bat izanen zuela hitzeman zion. Erregea hil zen, bainan erregearen amak atxiki zuen semearen hitza eta Agde-eko apezpikutegia eman zion, 1643ko maiatzaren 24an.

Euskaldun guzrien gisa, gure Iholdiarrak herrimina zaukan bihotzean. Nahiz Baiona ez zen hurbiltzekorik ere Agde bezain lur gizona, Baionako apezpiku hori Fouquet deitzen zen, Fouquet "intendant" famatuaren anaia. Bien arteko tratua, ekainaren 2lean egin zuten, eta Baionako apezpiku, ofizialki izendatzen zuen letra, Erromatik jin zen agorrilaren 23ean. Olzek hameka urte hartan ez zuen bere familia ikusia.

### *Apezpikuaren familia*

Hiru anaia bazituen. Bat Andoni, Armendaritze jauregiko alabarekin ezkondua. Bigarrena Jean, Iholdi Elizabelarrerat ezkondua. Hirugarrena, hau ere Jean Ortzaizeko erretora.

Bost arreba zituen: Kattalin, Ixturitze Sataritzera ezkondua Ixabel, Iholdi Elizabelarrerat ezkondua, bigarren Kattalin bat, Urketa Suhiko jaunarekin ezkondua, Mayi Donostirin, eta Juana, de Lambertzen alarguntsa, Ortzaize Harizmendian bizi zena.

1643ko agorrilaren 23an izen da datua, 1644eko martxoaren 17an baizik ez zen sartu Baionan. Zer ari izan zen 7 hilabetez, ez dakigu: Boulogne-etik sar zitaken lasterrago, oinez ere !

Baionako kontseiluak deliberatu zuen, hiriko mugatik 8 kilometretan joaitea, apezpiku berriaren bidera. Bainan heiek bideari lotu aintzin, Olzo hor zen jadanik, San Izpiritun, gaur pasatzeko. Proosinoa uste baino laburragoa izan zuen beraz, nahiz Baionako karriketari itzuli haundiak eginarazi ziozkaten, ospe haunditan egiten ziotela beren ongi etorria: kontseilua jauntzi gorri berezitan emanik, tapiza, fotuila, mintzaldi eta beste, ez zen deusen eskasik.

### *Orduko giroa*

Nun sartzen zen konprenitzeko, huna lehenik orduko gertakari batzu.

1607: SAINT CYRAN Baionako kalonje egina da. Apez hori zitaken Frantzia guziko jansenista famatuena eta jansenisten gogolaria.

JANSENIUS, jansenisten buruzagiarekin, Baionan egon zen, 1611etik 1616arte. Jansenius bi urtez Baionako kolegioaren buru izan zen. Arte hortan adixkide anitz egin zuen Baionan, bai eta ere dizipulu.



# APEZPIKUA

1645eko biltzarre batean, alde huntako 11 apezpikuk onhartu zuten komunioneaz idatzia zuen liburua, usu komuniatzeko ez ginela gai, esplikatzeko baitzuen. Gaurko egunean ere ondorioak hor ditugu. Harek eta hari jarraitzen ziren Euskaldun apezpek dute hemengo girixtinoen gogotan sar-arazi Jainkoaren amodioan baino, Jainkoaren beldurrean duten sineste haundiagoa: erlisione bortitza. Haren hortizkeria urrunago ere zoan: erlisioneko egia ttipienaren alde, bere biziaren emaitera prest izan behar zela, ezpata eskuan, zion.

SAINT CYRAN, Richelieu kardinale minixtroaren adixkide mina izanik, haren etsai errabiatua bilakatu zen. Parisetik urruntzeko, kardinaleak Baionako apezpiku izendatu zuen 1637ean, Bainan Saint Cyranek eza eman zion, Parisen gelditzeko; eta preso ezarri zuen Vincennes - eko jauregian 1638eko maiatzean, Richelieu minixtroak.

## Sorginak

1609ean jin zen Bordeletik, LANCRE juje famatua, Lapurdi alde horren "garbitzera", baizik eta sorginkerietan ari zirela: bös-pas sei ehun jende erre zituen bizirik, horietan zenbait apez. Gehiago ere eginen zituen Etxauz apezpikuak ez balu geldiarazi.

## Euskal literatura

Euskal literatura XVIIgarren mendean sortua, Benat Etxeparekin, mende huntan azkartuko da eta emanen du bere idazle aipatuena AXULAR Sarakoa: 1643ean jalgiko du GERO liburu famatua. JOANNES ETXEBERRI ZIBURUKOA eta beste apez batzuekin eginen dute " Sarako eskola".

Horietarik kanpo ere izanen dira beste idazlari famatu batzu: BENAT GAZTELUZAHAR Ziburutar jesuita, SYLVAIN POUVREAU, geroxago aipatuko duguna.

Ziberoak berriz eman ditu Joannes TARTAS Arueko erretora eta bereziki Eñaut OIHENART lege gizona, bere bi liburuekin: "Atsotizak" eta " Notitia utriusque Vasconiae "

## politika

XVIIgarren mendearen hastapenean hil zen Henri IV, protestanteekin bakea egin ondoan. Haren ondotik jin zen Louis XIII, Richelieu eta Mazarin kardinalekin. Gero Louis XIV; horien denboran Euskal Herriak asko sofritu zuen.

Lapurdin sartu ziren Español armadak, 1636ean, eta urte bat egon Hendaia, Urruña, Ziburu eta Donibanen makur haundiak egiten zituztela. Frantzia eta Espainiaren arteko gerla bururatuko da "Ile des Faisans " ugartearen sinatu zuten bakearekin " Traité des Pyrénées" eta LOUIS XIV-en ezkontzarekin Donibane Lohitzunen.

Bi errege horiekin ditugu gure libertateak galduko. Ziberotarrek oldartuko dira MATALAZ apezarekin Irutiko kondeak nahi izan baitzuten kasik Ziberoko errege jarri Ziberotarren biltzarraren podore guziak beretzat hartuz. (8/11/1661)

AINTZILAKO ur'gaziak nahi izan baitzituzten " nazionalizatu ". Garaztarrak oldartu ziren. Biga urkatu zituzten eta beste biga galere-tara igorri (1685). Handik bi urteren buruan, Nafarroko korteeke dei eginik (Pauekoek), Aintzildaneri itzuli zituzten, Nafarroko Legeen arabera ez baitzitazkeen urak bahi.

Lapurdin berriz " Sabel xuri eta Sabel gorrien arteko gerla ", Louis XIV.ek bere sudurra sarturik Lapurdiko biltzarrean. ( 1657 )

Eliza:

Eliza aldetik Ipar Euskal Herria hiru parte egina da : Lapurdi eta Baxe-Nabarreko parterik haundiena BAIONARODIRA, Amikuze eta Oztibarre AKIZEKO eta Ziberoa berriz OLORUZKO.

Horra beraz nun biziko den gure apezpikua, 38 urtez.

Nahaskeria k:

Ainitz nahigabe izanen ditu apezpikuak diosesa berrian.

Goiago aipatu dugun bezala, Lapurdin, sabel xuri eta sabel gorrien arteko gerla ikusiko du. Apezpiku gisa entseatuko da, girixtinohorien artean bakea egitera. Egia erraiteko, gerla hori gelditu bazen ez da apezpikuaren urratsetarik heldu, Mazarin kardinala zen mintzatu bere gisan; 140 mila liberako prozedura eman zioten pagatzera eta garrazki mehatxatu zituen ez baziren gelditzen. Auzia zuzenki trenkatu zuen? Hori besterik da.

Bainan apezpikuak, apezak ere izan zituen partida. 1653ean, kalonje bat hilik, nahi izan zuen bere iloba bat izendatu haren ordain. Hayet, katedraleko erretorak beretzat nahi zuen leku hori, kalonjekoari zoakon kargu bat zukan apez batentzat. Apezpikuari gaitzitu zitzaion. Erretorak bere lana bere bi bikarioen gain aiseko uzten zuela ohartu. Hori bi bikarioak deitu zituen; geroztik bi apezek ez zuten erretoraren lanik egin nahi izan. Auzitan ibili ziren. Tribunalak erretorari galdatu zion bere lana egitea " suspens a divinis " izan nahi ez bazuen, hori baita apez batek izaiten ahal duen gaitziturik haundiena.

Bigarren aldia zuen auzitan zela bere katedraleko erretorarekin, lehen aldian 1646ean. Aldi huntan ere auzia apezpikuaren onetan bururatu zen.

Bestaldi batez kalonjeak ziren gaitzituak, apezpikuak proosino bat manatu zuelakotz, kalonjerik gabe.

Hiriarekin:

Hiriarekin ere izan zuen eztaba frango. Saint Cyran famatuaren anaia kalonjea hil zelarik, apezpiku eta kalonjek ( akortean oraikotik) haren ordain hautatu zuten Pierre Detcheverry Euskalduna. Baionako hiriak ez zuen hautu hori onhartu nahi, baizik eta hamabi kalonjetarik zazpi Euskaldunak zirela jadanik, eta beste bat gehiago inez sobera zela.

Jesuitak jinarazi nahi izan zituen Baionara, aintzineko beste ainitz apezpikuen gisa. Aldi oroz hiria kontra jarri zen. Orain sekulan baino gehiago : Baionako buruzagiak jansenistak ziren; Jesuitak berriz jansenisten kontrakoak.

Gure apezpikua, Euskaldun guzien gisa erdi kontrabandista baitzen, beste nolazbait jokatu zen: Santizpirituko kartierra, uraren uraren bestaldea ez baitzen Baionako, ordu heletan, hara jinarazi zituen 1656an, oraiko gararen lekuan zen etxe batetara.

Baionesak bi parte jarri ziren, batzu apez horien alde, besteak kontra. Kalapitan hasi ziren, joka eta azkenekotz kolpatu andana bat izan zen eta zenbait hil ! Eta bakea gatik, jesuitak joaitera bortxatuak izan ziren.

Mugaz bestaldeko ontasunak

Baionako apezpikuaren eskuko ziren, mugaz bestaldeko herriak Donosti arte eta Baztan aldea, 1566 arte. Urte hortan, Iruñako eta Kalahorrako apezpikuari emanak izan ziren, Frantzia protestantak nagusitzen ari zirela, eta gisa hortan protestanten menetik eskapatuko zirela herri horiek. Bainan elizaren ontasunak Baionako apezpikuaren meneko gelditu ziren Lana hegoaldentzat, saria iparraldeko, ez zezaken luzaz iraun. 1631an, ontasunen mozkinak berentzat atxiki zituzten; Baionari emaiteko orde.

Bainan Orriako frailek ere bazituzten ontasun haundiak mugaz alde huntan eta Frantzia guzian ( Lekuine, Urdiñarbe, Bidarrai, Eiheralarre eta beste ). Baionako apezpikuak Pariseko Parlamentuaren ganik ardietsi zuen, ontasun horien bahitzeko baimena. Sekulako auziak izan zituzten elgarrekin, eta ohi den bezala, ontasunetan haundienak holaxetjan. Azkenean onez onean akomeatu ziren. Bainan lanak izan zituzten: 1665 etik eta 1715 arte, iraun zuten antolamenduek, urte horietarik hamabost, Olzen denboran.

Zeremonia haundi

1650ean, Dartagnan famatuaren haurra bataiatu zuen katedralean: Louis Bayonne eman zion izena: ikus ditaken bezala, Bayonne izen hori ez da saildu baten izena. Iduri luke beraz, gaur, Irati, Garazi, eta gisa hortako izen batzu emaitan, lehengo moda xahar batetara itzultzen direla aita ama batzu.

Bainan elizkizun ospetsuenak, Louis XIV Frantziako erregearen ezteiak izan ziren. Ainitz urtez elgarren kontra gerlan ari izan ondoan, Frantziak eta Espainiak bakea sinatu zuten Hendaiako mugan, "Ile des faisans" ugartearen, Mazarin kardinala bera jin baitzen. Eta bake hori hobeki finkatzeko, bi erregeen familiak ezkontzaz juntatzea pentsatu zuten: Baionako gogernadorea, Erramun Agarramontesa, Madrilera joan zen, Felipe IV, Ezpainiako erregearen alaba galdatzera, Louis XIV-en emaztetzat.

Ezkontza Donibane Lohizunen egin zuten, 1660eko ekainaren 6ean. Olze apezpikuak benedikatu zituen bi esposak, Baionako bi kalonje lagun, erregearen omoniereri ez baitzen batere iduritu! Kontsolatzeko, Hayet Donibaneko erretorak, heietarik bat, Forcal, hartu zuen diakre gisa, meza emaiteko.

Pariseratekoan Baionan gelditu ziren eta apezpikuak bere etxea eman zioten espos berrieri, gaua iragaiteko. Urez joan ziren Akizeradino.

*Obra*

Baionan pasatu dituen 36 urtetan, ainitz obra egin du. Erregeak bere emaztearekin apezpikuteagian lo egin bazuen, ez zen uste gabetarik gertatu: apezpikuaren etxea "apezpiku jauregia" deitzen zen... eta hala zen! Haren aintzinekoak obra ederrak bazituelarik eginak, berak ere haunditu eta edertu zuen. Iholdin ere bere familiaren jauregia errotik berritu zuen.

1654ean, katedraleko kalostra lurrera baitzoan, hiriari berriarazi zion, zazpi pilare berritzen zituztela: bakotxa orduko 270 libera gosta zen.

1660eko eguberri bezperagoan, aire gaixtoak katedraleko dorre ttipia jo zuen. Barraiatu zuten eta ezkila dorre haunditan ezarri.

1668ean, ezkila haundia arraildu baitzen, berriz urtu zuten eta lan hori Baiones batek egin zuen, Labeyrie jaunak, oraiko egunean nik dakita norat joan behar delarik hortako.

San Leonentzat debozione haundia zukan: haren kutxa berritu zuen eta sailduaren iturri ondoko kapera eraiki.

*Zinodoak*

Bi aldiz diosesako erretor guziak bildu zituen zinodoan. Zinodo horien berri badakigu alde batetik, lehen zinodoaren ondotik atera ziren "statuts synodaux"-en bidez, bestalde, bigarren zinodoa deitzeke, Dumartin kalonjeak apezpikuari igorri zion letrari esker.

Lehenik zer galdatzen zuen ikus dezagun: Apezri galdatzen zuen katiximaren erakastea eta predikuaeren egitea igandetako mezan: ez zitaken beraz denetan egiten aintzinean dudarik gabe. Lan horren egiten laguntzeko apezpikuak ager-arazi zituen bere predikuak liburu batetan "Pre-garioak". Sylvain Pouvreau apezak berriz euskaraz itzuli zuen Bellarmin kardinalaeren katixima, "Girixtinoaren dotrina" izenarekin. Herrietan baliatua izan den lehen euskarazko katixima ditake.

Herrietako eskoletan, errient eta andere seroren lana zen haureri katixima erakastea. Serora horiek ez ziren ordre batetakoak, bainan elizaz arta hartzen zuten emazte batzu, herriko kontseiluak hautatuak. Bakar batzu gelditzen dira oraino, hala nola Bazkanen.

Apezek, jende jineri zuten katixima egin behar igande arratsaldetan.

Zinodotik landa atera liburuxkan badira lau orrialde ezkontzaz. Aitameri galdatua zaiote alde batetik haurren ez bortxatzea ezkontzerat, bestetik, ezkontzea ez debekatzea. Ezkontza bali izaiteko, mutikoez 14 urte behar zituzten, neskek aldiz 12-25 urteak arte aitamen baimena behar zuten.

*barragana*

Lau orrialde horietarik hiru "barragana" ohiduraz dira, eta hor gauza ederrik ikasten dugu: zer zen barragana? Ezkongaiak, ezkondu aintzin, bost urte elgarrekin bizi ziren, eta gisa hortan sortu haurrak ez zauzkaten baxtartak herritarrek: baxtartaren amak, eliza bortan egon behar zuen igandetan, mantalina gorri batekin; barragianian bizi zen ama aldiz ez. Ohidura hori, XIIIgarren mendekotzat aipu da jadanik, eta Nafarroko kontzilio batek onhartu bezala zuen, Euskaldunak, mahometanoen gisa bizpahiru emazte hartzetik beiratuko zituelako esperantzan.

Gero, hargatik, mendez mende, Eliza ohidura horren kontra altxatu da. Debaldetan! Olzen denboran, barragania hor zagon beti, sekulan bezen azkar. Bainan Olzek ez du Nafarroko kontzilio harek bezala onhartzten. Huna zer dion.

"Gure eta gure aintzineko apezpiku debeku guzien gatik, ohidura tzar bati jarraikitzen dira gazteak: ezkonduko direlako hitza eman orduko, etxe berean bizi dira ohaide batzu bezala. Hortakotz, erretor eta bika-

rio guzieren manatzen diotegu, urte guzietan, hiru meza nagusiz segidan, lekuko mintzaireraren irakur eta esplikak ditzaizten, Trenteko kontzilioak ezkontzaz eman erakaspeneri...Gure aintzineko apezpikuen erakaspeneri jarraikiz, jakinarazten dugu gisa hortan, elizaz ezkondu gabe bizi direnak, eskumikatzen ditugula; eta gaztigu hori, guhaurek edo gure bikario jeneralek baizik ez dezakete barka, penitentzia publiko batekin. Gaztigu bera izanen dute, gisa bat edo beste horiek laguntzen dituztenek eta holakoa egitea debekatzen ez dioten aitamek."

"Eta balire (Jainkoak beira gaitzala hortarik!) debeku hunen gatik gauza hori egin lezaketenak, gure erretor eta bikarioeri manatzen diotegu, gaztigu garratzenaren pean, hiru egunez segidan, lekukoekin a-berti ditzaten holako gazteak. Eta aintzina tematzen badira, elizan sartzea debekatua izan dakiotela. Ondoko igandean, gaztigatuak izan direnen izenak, elizan, herri guziaren aintzinean, oihukatuak izanen dira. Girixtinoeri galdatua izanen zaiote, Elizaren membro usteldu horietarik ihes egindezaten. Eta sekulan elizan sartzen balire, barkatuak izan aintzin, elizkizunak geldituko dira..."

Ikus ditaken bezala, ez zen irririk. Bainan mehatxu guzien gatik, ohidura horrek oraino luzaz iraun zuen. Iragan mendean oraino gaitzekoa zen! Eta orai, berriz pizten ari ote den!

*Apezak*

Apezak ere luzaz aipu ditu delako liburuxkak. Itxura guzien arabera, zinodo horrek zuen lehen aldikotz galdatu sotana jauntzea. Bainan jauntzi horrek ez zuen arrakasta haundirik izan. Bigarren zinodoari buruz, kalonje nagusiak idatzi letran irakur dezakegu, sotana batere ez zutela erabiltzen, mezaren emaitako ere; "justaucorps" xoil bat soinean emaiten zutela pleñi da.

Igandetan bederen, pilotan ez hartzea galdatu zioten, bai eta artetan elgarrekin biltzea otoitzean eta gogoeta hartzeko.

Bazuten beste estakururik ere: Eliza ez bazoan ontsa, apezaren ezazolkeria zela kausa, zion: batere ez ziren 1666eko zinodoaren erabakierik jarraikitzen. Ostatueta ibiltzen ziren eta han eskandala egiten. Beren lana batere ez zuten egiten: katixima erakastea, erien bisitatzea sakramenduen emaita eta beste. Aldiz, zenbait medikuntzari emanak ziren, erremedio "bitxi" batzu emanez erieri. Bilo faltsuekin fantasia soberaxko egiten zuten zenbaitek. Berdin ezpata gerrian ibiltzen!

Ordu heletako beste paper batzu ere ikusi ditugu, jure kalonjea ez zela airerat mintzo erakusten baitaukute.

-1656-Joanes Curutchet apezak, auzitan da eskandala egiten duelakotz, bereak zituen haur batzu, apez etxean atxikiz, eta berrettertzat hartuz; eta delako medikuntza "bitxi" hari emanez. "Eskandala" egiten bazuen, iduri luke apez aita familiakoak ez zirela ardura ikusten. Bainan ez zitaken hain arrado holakoen ikustea, zeren eta delako liburuxka hartan sobera xehetasun kausitzen dugu pundu hortaz. Huna funtsean zombait lerro:

"Gertatzen balitz; (Jainkoak beira gaitzala!) apez zenbaitek haurra izaita edo nexkatto gazte batekin edo ohaide batekin, edo beste emazte zenbaitekin, haur horren hazteko eta altxatzeko arta izanen du, ez bere etxean, bainan beste nunbait, eta ez du elizkizunik emanen bere haurrekin".

Hiru emazte mota aipu dira apezentzat eta horietan "ohaidea". Hainbeste xehetasun ez ditzake, "zer gerta ere", airerat emanak!

-1669- Arrangoitzeko erretora, auzitegira deitua da, Andrena Maritako otoitzen egitea errefusatzen duelakotz.

-1676- Apezpikuak katedralean ezarrazi afixa batean irakur ditake, diakre eta zudiakre egiten duteneri manatzen diotela, meza eta prosinoak bururatu aintzin ez jalgitzea katedraletik. Eta kalonje batek elizkizun guzietan markatu bahar du nor den hor eta nor falta; eta lan hori untsa eginen duela zin egiten du Ebanjelioaren gainean!

-1677- Joanes Gazteluzahar, Ziburuko erretora, Bordeleko auzitegira deitua da, ez diolakotz apezpikuari obeditu nahi. 30 liberaren prozedura izanen du eta lau hilabetez, lehen ortziraletan, mehe eta bazur egin behar du.

Dirua maite zuten orduko apezak, eta parropia on eta gizenen ondotik zabiltsan, batzutan bi edo hiru herrien erretor zagola apez bera, hala nola Ortzaize-Arrosa..eta Getariako! Getaria eta...Uztaritzeko! Edo Ortzaize eta Zuraideko. Elgarren artean ere trukatzeko ziren hala nola Uharte eta Ezpeleta; egia erran etsenplua goratik heldu zen, apezpikuak gauza bera egin zuten gain diosesarentzat.

Batzu jansenistak, eta beraz bortitz bezen kartsuak, besteak berriz ezazolak, denetarik bazen orduko apezetan; eta girixtino-apezak elgar iduriak baitira gauza bera erran ditake orduko girixtinoetat.

# Heriotze

1681eko neguan, Ortzaizera joan zen, Harizmendian zuen arreba-  
ren gana. Han eritu eta hil otsailaren 8an. 12 gizonak, Iholdiar eta Or-  
tzaiztar, ibili zuten haren kutxa Baionako karriketan. Hiltzearekin 1000  
libera utzi zuen Iholdiko elizari, 3 urte barne berritzekotan, bestenez  
erdiak baizik ez. Erran dezagun ere Ortzaizek ere poxi bat zor diola be-  
re eliza, 1668ean eraikia.

# Zenbait gogoeta

Horra zertsu izan ziren apezpiku horrek Baionan pasatu zituen  
38 urteak. Bizi horri behatuz, ohartzen gira delako "lehengo denboretako"  
girixtino famatu heiek ez zirela arras zenbaitek uste duten bezain  
kartsuak. Lehen ere, oraiko gisa, ez ziren patar guziak ordoki, hurbil-  
tzeorik ere !

Bere karguaz baliatzen zen apezpikua bere familiaren laguntze-  
ko, orduan ohi zen bezala: bera apezpiku iloba, bi iloba hautatu zituen  
bikario jeneraltzat; eta kalonjeekin eztabadak izan, horietarik bat ka-  
lonje izendatu nahi zuelakotz beste norbaiten partez.

Apezpikua auzitan kalonjeekin, katedraleko erretorarekin, Orri-  
ako fraileekin auzitan dirua gatik, kalonje izaiteko ohorea gatik ! Ez  
dugu holakorik ikusten oraiko egunean !

Diru hortarik bazuken polliki gure Olzek! Sort-herriko jauregia  
berriturik, apezpikutegia haunditurik, Baionaren laguntzarekin egia er-  
ran, hor lo egiten baitzuten Baionara jiten ziren jaun Haundi guziek  
(Errege, Mazarin eta beste), diruketa pollita utzi zuen oraino hil ze-  
larik bai eta zilarreria ederra. Orduko miserieri behatu-eta ez zaite-  
kena diru hori hobeki xahu ?


Ez zituen behartsuak arras ahanzi ere: "Filles de la Foi" dei-  
tu serorak jinarazi zituen Baionara, dirurik ez zuten neskatotetaz arta  
hartzeko ,1677ean.

Louis XIV-en letra bat ere badugu, eskalendako ospitale baten  
egitea galdatzen baitio, bainan itxura guzien arabera, ospitale bat bai-  
no segurrago, presondegi bat izan da etxe hori, sekulan egina izan bada.

Itzal horietaz kanpo bazuen onik ere gure apezpikuak. Agde-eko  
apezpikutegi aberatsa utzirik pobreagoa zen Baionara jin zen herriaren  
amodioz. Ordu berean Bossuet famatuak ez zuen zangorik ere sartu Condom-  
eko apezpikutegian, baizik eta sobera txarra zela harentzat, eta Paris-  
etik sobera urrun!

Bi zinodoen bidez erakutsi zuen bazuela bere diosesako girix-  
tinoen arrangura. Eta ez zen apezkeri zenbait manamendu eman eta gelditu:  
laneko tresnak eman ziozkaten: katixima eta bere predikuak zauzkan li-  
burua.

Zernahi gisaz, bere estakuruekin Olze izan da Ipar Euskal Her-  
riko azken apezpiku Euskalduna, eta Elizaren hutsa ez ote da Olzen huts  
guziak baino haundiagoa, bere erakспен guziak gatik, hiru ehun urte  
huntan Euskaldunak utzi baititu Euskaldun apezpikurik gabe ? Hiru ehun  
urtez Euskaldunek ez baitute apezpiku bat entzun, beren mintzaireran min-  
tzo ?



# gogoeta batzu estatuari

Orduan ideia bat guztiz ergela burura zitzaion, ezen ez balira bakoitza bere aldetik, 50 milioi frantses, 200 milioi amerikar, berauk baino sovietar gehixeago, 900 milioi txinatar eta abar, seguruzen ez litzatekeela munduan arazorik. Lehengaiak, energia eta informazio teknikoa ez balira, beren muga geografiko, ekonomiko eta teknologietan pulunpatuak dauden gizatalde batzuen jabegoa pribatuak, lurra ez badagokie estatuei baino gizonei, ez litzateke eiki gehiago harmen lantzerik, daukaguna bestei hatzeko, Horiek dudarik gabe ez litazkete ebatziko klase sozialen arazoak, baina arazo bertikal bat baizik ez litzateke ebatzekorik.

Engoitik, arazo horizontalak ebatziak diratekenaz gero, Hori ausnartua izan bide zen, baina zerk eragozten zuen burutapen hori zertzeraz? Jakina, jabegoaren nazioak, zein gizabanakoarenak, zein gizataldearenak, horik baitira bixtan da menerapen-hierarkien iturburua, gizabanakoen artean eta gizataldeen artean. Bada, jabegoa nazio horrek erroak egin zituen haraitzinean, ezaldi garaietan (1) zeren orduan janari gordearen pilatzeak, eta horik ekoitzeko gai zen lurraldean edukitzeak suntsi erazi baitzuten beti agigarri zen gosetearen larritasun itzela. Hitzkuntz eta kultur-lokarriek elkarrekin zituzten gizon eli batzu arrago baten golkoan eta hortik sorrerazi nazioak. Berauk zetxezkion hertsiki inguruneke arragoaren ehun materialari, hots, herriari. Baina haien artean, mendean zehar ez zarririk lokarriak gero eta abstraktuago, gero eta erakundetuago bilakatu ziren eta azkenean menerapenaren bilatzeari zegozkion. Horrela sortu ziren estatuak. Orduan desagerrera nahi zituzten herrien kultur lokarriak, berauk zuzenki baitzetozen gizabanakoek beren jatorrizko ingurunearekin zerezkaten harremanetatik; eta horien orde jarri zituzten herriarekin zerikusirik ez zituzten kultur lokarri berriak, erdiratuak, abstraktuak, goidanik ezarriak. "Gure arbaso galiarrak" ikasi ohi zuten oraino duela zenbait urte Afrika beltzako ikasleek; eta "Larzac"eko nekazariek ezin bestez beren lurra armadari utzi diote, hots nazio izan nahi duen estatuari. Beraz, Estatuak da molde abstraktua eta erakundetzen (2) ditu giza-harremanak, eskal-hierarkietan (3) ezarri direnak hain zuzen ere. Eta honela estatuak, erabiliz burokrazia, armada eta polizia, dena zaintzen du eta giza-harreman gizonak dituen artezko harremanetan. Alta bada, ulertzeaz zegoen zer zen egiazki arrago ekologikoa, eta igarrixeak ziren arrago horrek sorrerazten zituen askotariko erregulapenak (4), espazio geoklimatikoaren, faunen eta floren artean. Inguruneari zetxezkion erregulapen horik, horren lege gor-

(1) ezaldi garaietan

2 erakundetu

3 eskal-hierarkietan

4 askotariko erregulapenak

eskas denboretan  
= époque de pénurie  
= institutionnaliser  
échelle hiérarchique  
régulation complexe

# eta nazioari buruz.

ratzapean zeuden, baina systema bilgarri (5) baten azpi-multz (6) zirauten beti, guti edo asko onartuz systema honen helburua. Somatu zuten antolkunde kosmikoaren izatea, eta beroni behar zitzaiola jarraiki. Azterketa zientifikoa entseatu zen antolakunde horren azpi-multzoa zati arau, berorrek zeuzkan mekanismoak ikertzen; eta, oharturik ekaimunduarik (7) buruzko botereaz eta eraginkortasunaz, hotz, gizataldea, jarrera horrek zemienaz, beren eredu abstraktuen errealitate osoaren baitan sinetsi zuten. Systematik kanpoko mandu (8) jarri dira, serbomekanismoen manduak, pentsatzeke beraien sor zezaketela antolakunde berri baten maila, ezagutzen ez zituzten faktore batzuei zetxekiena. Systema ekologikoen erregulapenetik jalgiz gero, haien antolakunde berriaren mailak ezin du zezaketen erregulapena? Oharkabetuki jabetu dira systema bizikorretarik (9) kanpo den mandu batez, alhatu dena joeraka, ahala bilduz, bere faktore positiboen intentsitatetik oraingo hurrupaketa arte (10). Bi hitzez, beren egiturak, zein mintzamenezkoak, zein abstrakzio lotu dizkiote munduari, urrun baitaude ezjakitearen gatik, abstrakzio hau zerabilen mekanismoak hartutako bidetik; eta da giza-garuna. Sinetsi zuten giza-garunak zuzkituriko ereduaren errealitate baitan, entseiatu baino lehen ereduzkatzea (11) gailua (12); honek egin baitzitzakeen ereduak eta honela nork daki erlatibiza zitzaketen beren ereduak abstraktuari jarraikitzaera, natura behartu ordez. Esperimentakuntza fisikoak eta biologikoak galdezka dagozkio naturari nahizik eta, gero honek salhatuko dizkiokien sekretuez balia litezen. Aitzitik giza-taldeek ez dute galdekatu, baina bortxaz jarri beren diktadura gizonei eta gauzei; meneratzaileen betiko leloa baita, apaindua izan dena abstraktu logiko, mintzamenezko eta inkantagarrien (13) edergailu lainotsuez. Erregelek, portaerak mantzen zizkioten eta horik ez jakiteak sinets erazi dizkio gizonari aske zela bere egitadez (14) eta bere abstrakzioez jarein. Nola askatasun horrek jartzen baitzuen maizegi gizona egoera gatazkatsuetan (15), esana izan da gizonaren larritasuna, bere askatasunaren larritasuna zela. Baina bere ezjakitearen larritasuna, herstura zen egiazki; hori zela eta bilatu zuen antolaketa goi-maila bat (16), beronen menpean egon zaitekeena eta legeak eman ziezazkiokeena, bere egitadak erakustearren eta bere larritasuna eztitzea gatik. Asmatu zituen erlisio erazagutuak (17) eta ideologikoak. Baina bere irudira, bere ezjakitearen irudira halegia. Systema bilgarria (18) orduan, haren beraren systema osoki bildua ez zaitekeen izan. Halabaina, badirudi giza-ezpeziea ez dela systema-antolaketaaren azken

5	systema bilgarri	systeme englobant
6	azpi-multzo	sous-ensemble
7	ekaimundua	monde de la matiere
8	mandu	commande
9	systema bizikorreta	systemes vivants
10	hurrupaketa	pompage
11	ereduzkatzea	modéliser
12	gailua	instrument
13	inkantagarri	incantatoire
14	egitadez	actes
15	egoera gatazkatsuak	situations conflictuelles
16	antolaketa goi-maila	niveau supérieur
		d'oraison
17	erlisio erazagutua	religion révelée
18	systema bilgarria	systeme englobant

maila baino hedatuago den multzo baten azpi-systema baizik. Baina sinestera behartuak gara ezen systema bilgarriak ez duela nahi geniokeen eman egiturarik, mugatuak garen ber hertsiki geure multzoan. Eta luzaz onartu dugu, gure systematik kanpo den mandu bat, hots, antzertu dugunean bizarrarekin Jainkoa, gizarte patriarkalen aita zaindari bezala. Era berean Jainkoa hil zenean, haren ordeztan abantailatuki Hura bezain abstraktua zen egitura bat jarri zuten, hots, Estatua. Berau da egiazki menerapen burges eta burokratiko hierarki-adierazpena (19); eta Estatua eta nazioen esangura nahasi dugu. Nazioak ez ziren abstratuak, baina heldu ziren gizatalde baten ingurunearekiko zuen moldatzetik. Horrengatik Estatua da beti meneratzaile eta alienagarri, bere aitxakia, hizketa logiko alda korra delatik, proteziforma, baina ez zaio inoiz inguruneari lotzen. Ez zen joan behar estatar abstrakzioetik, baina oinarri nazionaletarik, beraiei utziz aurkitzen, beren kanpo-harremanen forma aldagarriak. Honela nazionalismoen oraingo birbizkundera ekidun ahal zaitekeen. "Vendearra" zen eta ez zuen irentsi oraino nola, bere herriari ezarri zizkioten "Askatasuna; Berdintasuna, Anaitasuna", 500 000 jende erhainez, Estatu burgesaren izenean; eta irribarre egin zuen entzun zuenean behar zela baitezpada aldeztu frankofonia, tonuera lyrikoak (20) ahotsean zituztela, Bretainean, gaeliera debekatu zutenen berorien gandik. Menerapenari uko egitea zen oraindik, aldi honetan menerapen ekonomiko eta anglo-saxoniarrari, gizartearen erakunde berri bati, ukapen estali ohi dena, hizketa logiko eta kultural batez. Hastapeneko itsasoetan bizi izan diren izaki zelulabakarrek (21) ukan ote zuten antolamendu plan (22) bat? era ahal zitzaten zelularizko-élkartea (23)? Ez! Zeren elkarrekiko moldatzeaz (24) egin bide baitzituzten, erabideak, eta harreman berriak asmatuz, sekula santan obeditu gabe, aldeztu aurretik sorturiko estatar plan bati. Nekez iruditzen da lurraldeak bizi ahal daitezkeela berebergoan (25); eta gaur atzo bezala, bila-kaera zertzen da, handituz doan konpletsutasunean, erakundearen maila. Baina zergatik ez utz gizatalde horiek adieraz ditzaten beren nahiak, beren irrutsak, hots beren irudimen-egitura (26) eraikia izan dena, gizatalde horiek ingurunean dituzten systematikako harremanez.

---

19	<i>hierarki-adierazpena</i>	<i>expression des</i>
20		<i>hiérarchies</i>
20	<i>tonuera lyrikoak</i>	<i>intonations lyriques</i>
21	<i>izaki zelulabakarrek</i>	<i>êtres unicellulaires</i>
22	<i>antolamendu plan</i>	<i>plan d'aménagement</i>
23	<i>zelularizko-élkartea</i>	<i>sociétés pluricellulaires</i>
24	<i>elkarrekiko moldatzea</i>	<i>ajustement réciproque</i>
25	<i>berebergoa</i>	<i>autarcie</i>
26	<i>irudimen egitura</i>	<i>structure imaginaire</i>

---





MILLE MILLIONS DE DOLLARS... ITXARO BORDA

Erran ohi da, subazter zoko beroetan literaturak ez duela bere gizona (edo emaztea bakarretan) hazten. Ordea jendeak mintza arazten ditu, ez baita batere gaizki. Udazkenean hostoak erortzenbadira, literatur sariketetan berdin primak jausten dira idazle xumeen sakeletara!

Has gaitezen beraz gure frantsez estado xarmegarrian banatu diren primetaz solasean. Goncourt saria Dominique Fernandez-i emana izanda "*Dans la main de l'ange*" Pasolinitaz idatzi liburuarentzat; Frantzes akademiakoarena Vladimir Volkoffen "*Le montage*"-eri eta Renaudot saria 35 urteko Georges Olivier Chateaufrenaud-i "*Faculté des songes*"-entzat (horrelako izen batekin nola ez?). Frantsez literatura ez da hilen Jainkoari esker...

Gabriel Garcia Marquez-ek aldiz (ikus nere artikulua Herria kasetan) Nobel saria hartu zuen bere obra guziarentzat. Ez ahantz halere G.G.M. Mitterand president sozialistaren lagun mina dela, eta premia Olaf Palmer Suedako lehen Ministro sozialistaren eskuetarik ukan zuela. Datorren urtean Andropov jaunak manatuko du sariketa hori, eta segurru Aita Sainduak irabaziko dukela bere "*N'ayez pas peur*" obrarentzat. Ordea "*Ehun urte bakartasun*" eta "*Patriarkaren larrazkena*" irakurtu dituenak txalotzen ahal du zinez balio baitu!

Euskal Herri hertsu honetan berdin, Frantzia gure etsaiaren hainera heltzeko, literatur primaketak egiten dira. Iduri luke iparraldeko idazle "gazte" hauek arrakasta gaitza dutela hegoaldeko sariketetan. Zeronek juja: Xipik(casse-toi, reviens!, klasikoak ezagutzen ditut!) eskuratu du Iruñako saria, Afrikako ixtorietaz entsaio bat eginez, kolonizatzaileen artean izan baitzen Arbelbide famatu hau ere. Marijan Minaberri berriz "*Toribio Alzaga*" prima ukan zuen bere antzerkien gatik Bizkaian. Andere Minaberri guti aipatzen da zorigaitzez. Gainera Davant gure poeta integralak ikusi du Bizkaiko Kutxak agertzen saristatu zuen poema bilduma bat. Davantek piz asko hartzen du euskal literaturan...

Azkenean ez du hitzak lerrokatzeak kalterik egiten, nahiz ez diren sekulan hoberenak saristatuak, partipri biziki delakoan milieu hortan. Bai Frantzian, munduan eta bai Euskal Herrian. Ohar bat: Iparaldeko idazleak ugari primatzea zerbaít nostalgia erakusten ote du euskal mintzairari buruz? Gure herrian oro nar hobe da den gutienik idaztea, idazle ospetsu izateko: etsenplu frango dauzkagu, eta mode d'emploi" askiko dugu segitzea gu ere noizbait ateratzeko..Badixie merreximendu oixu!

# Manex Erdozainzi - Etxarten

Duela zenbait aste librerietan atera zen Erdozainziren liburu hau, Elkar argitaletxeak kaleraturik. Lehenik autorea presenta dezagun, nahiz denetan famaz ezagutua den. Manex Erdozainzi Ibarlarra dugu, eta hango euskara ireki eta lazoan kondatzen dizkigu bere historioak, kasik poema gisan. Poeta ere dugulako funtsean, aski preziatua "Hinki hanka" obrarekin, eta "Maiatz" en agertu "herri honen erraietan" bildumarekin. Lanbidez Frantxiskanoen probintziala dugu Tolosan.

Kolore bakar bat aurkitzen dugu eleberri honen atzekaldean, hau da beltza. Orobat idazleak zuriz izkriba zezakeen textoa paper beltz baten gainean. Ordea beltza izan arren ez da eleberri hotza, intimista, eta beroa baizik.

Gaua eguna bezalako mundu bat da. Liburu honetan bereziki agertzen zauku eguna bezain bizia. Erdozainzik erakusten dizkigu gaua betetzen duten gizon eta emazteak: konziergeak, tabernetan edale amorratu bakartiak, eta "urxotegietarik" zakurra paseatzera doazenak. Eta gautiar horiek mintzo dira, ardurenean debaldetan; egunaz baizik ez baititazke ideiak egi bihurtu...

Bakgraund hortan ateratzen da drama bat: Txomin eta Joserren laguna Mikel hiltzen da. Eta biak haren pusken, ondarren bila doaz, orroimena bere bidean doan bezala. Emazte bakarra, Mirentxu, senditzen da liburuan, baina errealki mugimendutan sartzen da liburuko azken orrialdetan. Emazte urruna, laguna, artetan baizik ikus ez daitekeena!

Idazleak partizipatzen du gaueko ibilera horietan, baina gehienetan ikusle bezala agertzen da. Gauetik eta liburutik kanpo bailagon...

Liburuan azaltzen da duela zenbait urteko euskal ideologia; gaurkoan egoera aldatu da eta beti ideia berdinekin gelditzen gara: Txominek erakusten digu (ederki naski) Pariseko haritz baten sinbolua, lau lagunek hegoaldeko mitologia gorai patzen dute, langileriaren arrazoa eta hirietako bizitza (≠ baserrietakoa) ez dezakete sufri. Uste dut eleberrietako pertsonaiak guhaur bezala munduan non nahi lotzei ahal direla. "Gauaren atzekaldean" erreusitze bat da, idazketa mailan bereziki iparraldeko literatur egoera motel eta krixtau hontan, baina aurkitzen diodan akats bakarra zera da: eleberri garbi eta euskal herriari erreferentziarik gabekoa ez egina izatea. Badakit zaila dela horrelako zer baiten idaztea. Jakinak jakin ordea...

Eleberriaren lekua Parise da arras klasikoki ikusia, luzaz Parisen bizi izan den baten begiekin: hala nola metroaren eta hango gaueko biziaren erakustearekin. Gizaren situazio traditioaz asko pentsamen sakon eta desesperatuak badira. Baina pesimisma ez da obra honetakoa. Gauzak, nola gaua, normalak dirudite. Azkenean komendatzen dut kaseta hauen irakurleri har dezaten atsegin kritiko bat liburu hau leitzean...

"Gauaren atzekaldean"






# txutxak

LEHENGO DENBORETAN TXUTXAK (LANDARE  
BITXIAK DIRE) BEREN BARATZEAN BIZI  
ZIREN. BAINAN EGUN BATEZ...

XURI ETA BELTZ HELDU ZIREN





ATX!  
BARATZEAIN  
ZIREN.  
BERAZ...

ANTOLATU ZUTEN BARATZEA...

EBAKI,  
UREZTATU...

MADE IN BELTZ-HERRI

ma  
②



BAINAN TXUTXAK EZ DIRE HANDITZEN AHAL,  
ZER EGIN BA? BERTZE BARATZEZAINAK IKUSI.

DITUZTE (HALA NOLA "LI PAPA"  
ARRAS EZAGUTUA), ERREMEDIO  
BAT BAZUTENETZ. BAI! ...  
"EGIA" ZUTEN! BERAZ,



ETA





EREN GORPUTZ ZAIRITUETARIK ... HILTZEA ETA HILTZEA ...



NAHI DUGU BIZI!



ETA EMEKI EMEKI  
ARRAZA BERRI BAT SORTU DA.  
ARRUNT ELORRITSU, BAINAN  
"BAKEAN"

mo



BAIONAN

Jakin: 8 avenue Foch  
La rue en pente: 29 rue Poissonnerie  
Musée basque: 1, Marengo karrikan  
Zabal: 52, Pannecau karrikan

BILBON

Galeria del libro: Ercilla, 35  
Herriak: Lizenzado Poza, 11  
Kirikiño: Colon de Larreategi, 11  
Universitas: Alameda de Mazarredo, 6  
Verdes: calle Correo

GAZTEIZEN

Herrikoia: Cuchilleria, 76

HAZPARNEN

Carrère Pantxoa: rue de l'Ursuya

HENDAIAN

Derro liburutegia: 18 rue du Port

DONAPALEUN

Amikuze liburutegia  
Barthaburu liburutegia

DONIBANE GARAZIN

Maison de la Presse

DONIBANE LOHITZUNEN

Rouan liburutegia: Gambetta karrikan

IRUINEAN

Abarzuza: Nueva, 81 (Pza S. Francisco)  
Auzolan: San Gregorio, 3  
Centro Arturo Campion: calle Comedias, 14

DONOSTIAN

Bilintx: Fermin Calbeton, 30  
Kabo: Plaza Gipuzkoa, 13  
Manterola: Manterola, 8

MAULEN

Belatxa liburutegia: 44, Victor Hugo karrikan

MIARRITZEN

Eki: 21 av. de Verdun

PARISEN

Euskal etxea: 10 rue Duban 16é

*maiatz.*

15, Pontrique karrikan - 64100 Baiona  
Tél.: (59) 59.86.33 - Banco de Bilbao - 20007014004

Abonatzeko: urte batentzat (4 zenbaki): 70 F. edo 1300 Pts.  
sostengu gisa: 100 F. edo 1800 Pts.

HEGOALDETIK ABONATZEKO

Diru emaitza (giro bancario) bat egin behar da Banco de Bilbao-  
rentzat (Baionako bulegoarentzat) zenbaki huntara: 20007014004.

itzul iezaguzu

Deitura: .....  
Izena: .....  
Hebidea: .....  
.....  
Posta zenbakia: .....  
Hiria: .....  
Herria: .....

Honako xehetasunak eman ditzazkezu, nahi baduzu:  
Adina: ..... Lanbidea: .....  
Telefono zenbakia: .....

•  
Edité par l'association MAIATZ  
Responsable de publication: Maya BOVARD  
Dépôt légal: 1er trimestre 1983  
N° de C.P.P.A.P.: 64750  
Imprimerie IMPRIMINUTE à Bayonne  
Imprimerie MUGALDE à Hendaye  
•

**Maiatz.** 15, Poytrique karrikan  
64100 • Baiona.  
Dépôt légal de publication: 1<sup>er</sup> trimestre 83  
N<sup>o</sup> de C.F.R.A.P.: 64750 • Edité par l'as-  
sociation *maiatz*. M.J.C. de Palichon  
responsable de publication: maya bovaró  
imprimeries Mogalde (Herdaige) et Im-  
primerie (Bayonne) • 83.eko martxoá  
hiru hilabetekaria: 20 Frs edo 350 Pts  
urte osoko harpidetza: 70 Frs edo 1300 Pts  
Banco de Bilbao: 20007014004.